

ARETXABALETAKO TOKIKO AGENDA 21

IRAUNKORTASUNERAKO UDAL DIAGNOSTIKOA



2005eko urria

DIAGNOSTIKOA EGITEN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK

Aretxabaletako Udala

Arritxu Oliden. Alkatea
Jose Angel Antxia. Tokiko Agenda 21eko Zinegotzi Arduraduna
Iñaki Saenz. Zinegotzia
Xabier Sarasua. Zinegotzia
Aitziber Mendigain. Tokiko Agenda 21eko Teknikari Koordinatzailea
Begoña Arenaza. Gizarte Zerbitzu Teknikaria
Jose Mari Segovia. Hirigintza Teknikaria
Asier Mujika. Kirol Teknikaria
Ane Lore Estala. Euskara Teknikaria
Inma Miguel. Kultura Teknikaria
Jose Ramón Urrutia. Zerbitzu Teknikaria
Begoña Arenaza. Kontu Hartze Teknikaria

Beste Administrazio eta Erakunde batzuk

Debagoieneko Mankomunitatea
IHOBE A.B. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Gipuzkoako Ur Partzuergoa
Gipuzkoako F.A.Landa Ingurunearen Garapen Departamentua
• Mendi eta natur Ingurune Zuzendaritza
Gipuzkoako F.A. bide Azpiegituren Departamentua
• Errepide Zuzendaritza Nagusia
Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentua
• Ingurumen Kalitate Zuzendaritza
• Bioaniztasun Zuzendaritza
• Uren Zuzendaritza
Industria, Merkataritza eta Turismo Departamentua. Eusko Jaurlaritza
Iberdrola S.A. Gipuzkoako Eskualdeko Bulegoa

Aholkularitza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, S.A.

Carlos Alonso. Teknikaria
Arkaitz San José. Teknikaria
Jose Luis Pérez. Teknikaria
Ane Bustinduy. Teknikaria
Ibon Zugasti. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria

AURKIBIDEA

O. SARRERA	3
0.1. UDALERRIA ETA TOKIKO AGENDA 21.....	3
0.2. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA.....	5
1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA	7
2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA	11
3. GIZARTE EKINTZA, BIZIKIDETZA ETA ELKARTASUNA	16
4. LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA	21
4.1. ingurune fisiko eta naturala	21
4.2. LURRALDE ANTOLAMENDU ETA PLANEAMENDUA	32
4.3. HIRIGINTZA EGITURA ETA PLANEAMENDUA	38
4.4. ONDARE HISTORIKOA, ARKITEKTONIKOA ETA ARKEOLOGIKOA	45
4.5. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA.....	47
5. INGURUMEN SEKTOREAK.....	56
5.1. uraren ziklo integrala.....	56
5.2. ATMOSFERAREN KALITATEA ETA ZARATA	59
5.3. ENERGIA.....	62
5.4. LURZORUA.....	65
5.5. HONDAKINEN KUDEAKETA	67
5.6. JARDUEREN ERAGINA ETA INGURUMEN ARRISKUA	74
6. UDAL EGITURA ETA TOKIKO GIZARTEA.....	77
6.1. GIZARTEA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA	77
6.2. INGURUMEN INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIOA	78
6.3. UDAL EGITURA	78
6.4. UDAL INGURUMEN KUDEAKETA	80
7. UDAL IRAUNKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA.....	81

0. SARRERA

0.1. Udalerria eta Tokiko Agenda 21

Hiriek edota herriek beti ezarri eta islatu dituzte balore nagusiak zibilizazioen baitan. Historiaren aro ezberdinetan ere garapen-ereduak hiri-gizarteetatik ezartzen etorri dira. Udalek ingurumen gaietako kudeaketan, betebeharretan eta arduretan duten garrantziaren errekonozimenduak, berezko lege-arauak gainditzeko, bereziki herri aurreratuenetan.

Tokiko Agenda 21en kontzeptua Rio de Janeiron (Brasil, 1992ko ekaina) egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian edo "Lurraren Goi-bilera"n sortu zen. Gailur horretan "Agenda 21" (edo Programa 21) onartu zen, Garapen Jasangarria lortzeko bidean ekintza-plan orokorra. Agenda 21en 28. atalak "Agenda 21 babesteko Tokiko Agintarien Ekimenak" du izena eta hauxe dio:

- *1996rako, herrialdeetako herri-agintari gehienek beren komunitaterako "Tokiko Agenda 21"-i buruzko galdeketa-prozesua gauzatu beharko lukete beren herrietan.*
- *Herri-agintari bakoitzak, elkarrizketa ezarri behar du bere komunitatearekin, gizarte erakundeekin eta enpresa pribatuekin, eta Tokiko Agenda 21 zabaldu behar du.*

AEBko Ingurumen Arloko VI. Ekintza Programak ere ("Garapen Jasangarria lortzeko bidean") herri-agintariak animatzen ditu era horretako ekimenak garatzera (3. eta 5. kapituluak).

1994ko maiatzean 600 pertsona baino gehiago bildu ziren Danimarkako Aalborg hirian, besteren artean: Europako tokiko agintaritzetako ordezkariak, nazioarteko erakundeak, gobernu nazionalak, zentro zientifikoetako aholkulariak eta partikularrak, ICLEI deituta (The International Council for Local Environmental Initiatives). Europako Hiri Iraunkorren Lehen Biltzar horretan, Iraunkortasunera iristeko Hiri Europarren Gutuna heldu eta sinatu zen, egun, Aalborg-o gutuna izenez ezagutzen dena.

Gutunean, atxikidura azaldu zutenen artean borondatea azaltzen zen Tokiko Ekimen Plana edo Tokiko Agenda 21a idazteko, honek ekimen eta estrategia bateratuak eskatzen zituen, modu honetan hiriak XXI. mendean iraunkortasunerantz eramanez.

Aalborg-eko gutuna hedatzeko lehen denbora bat pasatu eta gero, beharrezkoa zen ekintzara pasatzea, eta horrela, Lisboan, 1996an, Iraunkortasunera iristeko Hiri eta Herrien Bigarren Biltzarra iragarri zen, han lanerako hamabi puntu adostu eta sakondu ziren Tokiko Agenda 21en idazteko prozesuan eta bere ezarpenean. Urte berean, Estambulen iragarritako Nazio Batuen Biltzarra Gizakiaren Kokalekuaz (Habitat II) aritu zen, bertan pertsona guztiek etxebizitza duin bat izateko eskubideaz eztabaidatu zen eta gizakien kokalekuen garapen iraunkorraz, horrek bere gain hartu zituen Agenda 21en printzipioak.

2000ko otsailean, Hannover-en izan zen Iraunkortasunari buruzko Europako Hiri eta Herrien III. Biltzarra, bertan 1400 pertsonak hartu zuten parte, aginte nazionalen ordezkariak, eskualdekoak eta tokikoak, unibertsitateak eta Tokiko Agenda 21eko prozesuetan inplikaturik dauden beste hainbat entitatek.

2004ko ekainean, berrogeita bost herrialdeetako zenbait politikariek, teknikari adituek, gobernu kanpoko erakundeetako nahiz tokiko administrazioetako ordezkariak Aalborg-eko

Konpromisoak sinatu zituzten Aalborg +10 Herri eta Hiri Iraunkorren Konferentzian. Aipatutako Konpromiso horiek hiriko iraunkortasunaren arlo ezberdinei lotuta daude; eta tokiko gobernuek helburu kualitatiboak eta kuantitatiboak identifikatzen lagundu behar dute 10 urte lehenago zehaztutako printzipioak finkatzeko.

Euskal eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Babeserako 3/98 Lege Orokorrak Udalerriek iraunkortasunean oinarritutako estrategiak hartzea onartzen du, beti ere gai urbano guztien inguruan ikuspuntu orokor bat izanez.

Azken urteetan, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailerik, batik bat, Tokiko Agenda 21eko prozesuak sustatu dira euskal udalerrietan, zentzu honetan egin diren ekimenetatik honakoak nabarmen daitezke:

- “Tokiko Agenden antolakuntzarako Gida Europearra” –ren Itzulpena, argitalpena eta banaketa.(ICLEI Gida)
- Urtero udaletxeentzako dirulaguntza deialdiak Ingurumen Ekimen Planak eta prozesuak sustatzeko.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesuak Sustatzeko Programa 2000-2003”.
- “EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 garatu eta ezartzeko Gida praktikoa”-ren argitalpena.
- EUDEL-ek, IHOBE-k eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako UDALTALDE 21 Proiektua; EAEko 9 udalerrietan Tokiko Agenda 21en gaineko proiektu-pilotoak ezartzeko.
- UDALTALDE 21 eskualde mailako Lan Taldeak garatzea; Mankomunitateak, Eskualdeko Garapen Agentziak eta Foru Aldundiekin lankidetzan.
- UDALSAREA 21 edo Iraunkortasunerako bidean dauden Udalerrien Euskal Sarearen eraketa, EUDEL, IHOBE-Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Tokiko Ekintza Plana daukaten 37 euskal udalerriek osatua.

Gaur egun, 170 udalerrri baino gehiago eta 17 UDALTALDE 21 daude inplikaturatuta Tokiko Agenda 21en ezarpenean. Garapen Iraunkorren EAEko Ingurumen Estrategian (2002-2020) 2006. urterako ondoko konpromisoa biltzen da: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea, banaka edo eskualdeka.

2004ko apirilean *UDALTALDE 21 DEBAGOIENA* konstituzio hitzarmena sinatu zuten honakook: Debagoieneko Udalerri Lan Talde batek (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati), Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak (IHOBE-ren bidez), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debagoieneko Mankomunitateak.

0.2.- Diagnostikoaren aurkezpena

Iraunkortasunerako Diagnosi hau 2004ko ekainetik 2005eko apirilera bitartean egindakoa da, pertsona askoren arteko lanaren ondorio, administrazio ezberdinen, enpresa publiko zein pribatuen, eta entitate nola herritarren lankidetzarekin batera gauzatua.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoak, modu integratzaile batean aztertzen du egungo egoera. Analisi horretatik abiatuz, Ingurumen Diagnostika egiten da, eta hori izango da Ingurumen Ekintza Plana definitu eta eraikiko duen oinarria. Baina Planak ez du espero den jo muga bakarrik izan behar, Tokiko Agenda 21en prozesuaren abiapuntua ere beharko du

izan.

Tokiko Agenda 21 konpromisozko dokumentu bat eta gerorako proiektu bat izango da, eta bertan gobernariak, herritarrek eta biltzen diren entitateek, beraien Udalerriko garapen iraunkorra lortzearren oinarriak jarriko dituzte.

Iraunkortasunaren kontzeptua 1987an aurkeztu zitzaion lehendabizikoz iritzi publikoari. Gro Harlem Bruntland andreak koordinaturiko informe batean, Ingurumen eta Garapenaren Munduko Batzordeak eskatuta, gizateriaren geroa garapen iraunkorrari erabat atxikia azaltzen da, hau da, gizarteak egungo bere beharrak ase behar baditu ere, ondorengo belaunaldikoen beharrak konprometitu gabe egin beharko du.

Diagnosia kapitulu ezberdinetan sailkatzen da eta ondoko gaien arabera:

- Demografia eta Biztanleria
- Ekonomia eta Lana
- Gizarte Ekintza, Bizikidetasuna eta Elkartasuna
- Lurraldea, Antolamendua eta Hirigintza
- Ingurumen Sektoreak
- Udal Egitura eta Tokiko Gizarteak

Azken Kapituluak, gai esparru bakoitzeko laburpenak eta ondorioak aurkezten dira.

Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoa *UDALTALDE 21 DEBAGOIENA* Lan Taldeak egin du, Udal arduradun politiko eta teknikoen zuzendaritzapean eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuetako teknikariek eta enpresa publiko zein pribatuekin elkarlanean. Horretarako, eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzea eta *INGURUNE S.L.* eta *PROSPEKTIKER S.A.* aholkularitzen Laguntza Teknikoa kontuan hartu da.

1. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA

1.1 Biztanleriaren bilakaera

Aretxabaleta udalerria Gipuzkoako Lurralde Historikoan hego-mendebaldean dago, honek Araba eta Bizkaiarekin duen mugan. Debagoiena eskualdearen barnean dago, eta Iparraldean Arrasaterekin du muga, Mendebaldean Eskoriatzarekin eta Aramaio Arabako udalerriarekin, Ekialdean Oñatirekin eta Hegoaldera Arabako lurralde historikoarekin eta Elgeako Mendizerrarekin.

29,1 Km²-ko azalera du, eta 2004an 6.281 pertsona bizi ziren bertan. Horrek, Km²-ko 215,84 biztanleko dentsitatea izatea dakar, herrigunean nahiko handitzen den batez besteko dentsitatea. Eskualdeko herrietatik bigarrena da dentsitateari dagokionean, Arrasateren atzetik.

Biztanleriaren banaketa eta dentsitate demografikoa 2001ean

Udalerria	Biztanleak		Km ²	Dentsitatea
	Kopurua	Debagoienan %		
Antzuola	1.899	3,06	27,7	68,6
Aretxabaleta	6.184	9,97	29,1	212,5
Arrasate	23.118	37,28	30,8	750,6
Bergara	14.965	24,13	76,0	196,9
Elgeta	974	1,57	16,9	57,6
Eskoriatza	3.925	6,32	40,4	97,2
Leintz-Gatzaga	240	0,03	14,7	16,3
Oñati	10.705	17,26	107,3	99,8
Debagoiena Guztira	62.010	100	342,9	178,0
GIPUZKOA GUZTIRA	673.563	-	1.980,3	340,1

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula.

Aretxabaletako biztanleriaren bilakaerak bere inguruko udalerrien joerekiko ezaugarri ezberdinak aurkezten ditu. Azken hamabost urteetan populazioaren bilakaerak eten uneak izan ditu, baina azkenaldian hazkunderako joera jarraitua erakusten du.

Eskualdeko gainontzeko udalerriekin alderatuz, Aretxabaleta eta Leintz Gatzaga izan dira populazioa jaso duten herri bakarrak. 1996. urtetik aurrera, pixkanaka bada ere, hazten hasten da udalerria, 90. hamarkadako lehen urteetan zuen populazio kopurua gaindituz.

Biztanleriaren Garapena

Udalerria	1986	1991	1996	1999	2001
Antzuola	2.130	2.047	1.936	1.894	1.899
Aretxabaleta	6.005	6.172	5.943	6.123	6.184
Arrasate	26.367	25.491	24.571	23.741	23.118
Bergara	15.718	15.510	15.317	15.105	14.965
Elgeta	1.041	1.005	982	968	974
Eskoriatza	4.004	3.852	3.999	3.930	3.925
Leintz-Gatzaga	207	245	250	260	240
Oñati	10.884	10.667	10.564	10.748	10.705
Debagoiena Guztira	66.356	64.987	63.562	62.769	62.010

Iturria: Eustaten eta Foru Aldundiaren datuetan oinarritutako Taula

Udaleko datuen arabera, honako hau izan da zuzenbidezko biztanleriaren bilakaera azken urteetan:

Urtea	2001	2002	2003	2004
Biztanleak	6.139	6.239	6.244	6.281

1.2. Biztanleriaren Egitura

Honako hau zen 2001ean adinaren arabeko biztanleriaren egituraren banaketa: udalerriko biztanleriaren %18,3a 20 urtetik beherakoa zen. %66,7-a 20-64 urte bitartekoa, eta %15 inguru 65 urte edo nagusiagoa. 20 urtez beherako populazioa ia 13 puntu jaitsi da 1986-2001 urte tartean, urte tarte berean 65 urtez gorako adin taldea ia 7 puntutan handitu den bitartean.

Populazioa adin taldeen arabera. Beste batzuekin alderatuta (%)

Urtea	Adina	Aretxabaleta	Debagoiena	Gipuzkoa
1986	0-19	32,0	29,7	29,9
	20-64	59,6	60,2	59,7
	>64	8,4	10,1	10,4
1991	0-19	27,4	25,5	25,5
	20-64	62,5	62,3	61,9
	>64	10,1	12,2	12,6
1996	0-19	22,5	20,8	20,6
	20-64	65,0	64,1	64,0
	>64	12,6	15,1	15,4
2001	0-19	18,3	17,3	17,0
	20-64	66,7	64,8	65,0
	>64	15,0	17,9	17,9

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

Garapenak, azken urteetan eman den populazioaren etengabeko zahartzea adierazten du, Mankomunitate mailan eta Gipuzkoan gertatu den bezalaxe. Hala ere, udalerririk duen biztanleria ez da Debagoienekoa eta Gipuzkoakoa bezain zaharra, jende gazte gehiago baitu (0-19 urte tarte) eta nagusien kopurua baxuagoa (65 urtez gorakoak).

Sexuaren arabeko biztanleriaren egiturak, gizonezkoen nagusigoa adierazten du, txikia bada ere, biztanleria osoaren %50,9koa, emakumezkoak guztizko %49,1 diren bitartean.

Biztanleria Sexuaren arabera. 2001-XII-31

Lurraldea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Aretxabaleta	3.178	3.062	6.239

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

1.3. Berezko mugimendua eta migrazio mugimendua

Euskal Estatistika Institutuak (EUSTAT) emandako datuen arabera, 1996-2002 epean udalerrian izandako jaiotza kopurua 1996ko 53 jaiotzetatik 2002ko 63 jaiotzetara igaro zen, eten uneak dituen gorako joera bat adieraziz, baita era berean heriotzetan ematen dena ere, baina kontrako zeinuarekin: 48 1996an eta 38 2002an.

Jaiotze tasa (jaiotze kopurua x 1.000 / biztanle kopurua, eta urteko batez-bestekoa eginez) nahiko altua da, heriotza tasa baxua izanik, jaiotza kopuruak baino baxuagoa, hain zuzen ere, ondorioz mugimendu natural positiboa emanez (jaiotze tasa – heriotza tasa, 1.000 biztanleko eta urteko) 1996tik 2002ra doazen urte guztietan.

Populazioaren mugimendu naturala

Urteak	Mugimendu Naturala		
	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde Beg.
1996	53	48	5
1997	62	38	24
1998	37	36	1
1999	45	41	4
2000	62	49	13
2001	57	31	26
2002	63	38	25

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

Migrazio mugimenduari dagokionez, 2001ean inmigrazioa emigrazioa baino handiagoa izan zen, eta ondorioz, kanpo migrazio saldoa edo sarrera eta irteeren arteko desberdintasuna positiboa da (21). Kanpo migrazio saldoa bezala, barne migrazio mugimendua positiboa da (41). Udalerria gune erakargarria da, inguruko eta eskualdeko herrientzako ez ezik, E.A.Eko beste eremu batzuentzako ere, eta baliteke hori izatea populazioak duen hazkunde motel baina etengabearen arrazoi nagusietako bat.

Migrazioak motaren arabera.

Urtea	Inmigrazioa	Emigrazioa	Kanpo migrazioa saldoa	Barne migrazioak Helmuga	Barne migrazioak Jatorria	Barne migrazioa saldoa	Herri barneko Migrazioak
1996	13	28	-15	63	107	-44	134
1997	15	22	-7	80	75	5	122
1998	20	20	0	181	71	110	249
1999	23	19	4	93	102	-9	155
2000	27	39	-12	136	96	40	213
2001	43	22	21	167	126	41	178

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

1.4. Herri guneak eta biztanleriaren banaketa espaziala

Aretxabaletako herri gunean, Deba ibaiak osatzen duen araneke eremu lauan kokatua dagoena, bizi da udalerriko biztanleria gehiena, baina, badira beste zenbait, bestelako gune eta elizateetan bizi direnak ere.

- **Larriño:** 23 baserri eta 63 bizt.
- **Isurieta:** 10 baserri eta 12 bizt.
- **Goroeta:** 19 baserri eta 24 bizt.
- **Galartza:** 17 baserri eta 63 bizt.
- **Etxebarri:** 10 baserri eta 19 bizt.
- **Oro:** 20 baserri eta 47 bizt.
- **Aozaratz:** 24 baserri eta 55 bizt.
- **Arkarazo:** 12 baserri eta 48 bizt.
- **Areantza:** 16 baserri eta 41 bizt.


(Gutxi beherako biztanleria. Iturria: Udal web orrialdea.)

2. EKONOMIA ETA ENPLEGUA

2.1 Jarduera eta egitura ekonomikoa


2001ean biztanleria okupatuaren banaketa, sektoreka, hurrengo erara antolatzen zen udalerrian:

Biztanleria okupatuaren banaketa, sektoreka (2001)



Aktibitatearen arabera sailkatutako establezimendu kopuruari dagokionean, hurrengo koadroan ikus daiteke 2003an establezimenduen %37,2a Merkataritza, ostalaritza eta garraioen sailari zegokiola; %18,6 Zerbitzuen beste aktibitate batzuei; %18,3 Industria eta energiaren atalari; %13,5 Bankuak, Aseguruak eta Zerbitzuak enpresei, eta %12,4 Eraikuntzari.

Udalerriko establezimenduak Aktibitate atalaren arabera 2003an



Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

Udalerraren balio erantsiaren egiturari begiratzen badiogu, 2.000an industria da sektore guztien artean udalerriko ekonomiari aberastasun gehien ekartzen diona. Oinarrizko sektore ekonomikoen balio erantsiaren osiera honela banatu zen: %0,46 oinarrizko sektoreari zegokion, %69,10 industriari, %4,8 eraikuntzari eta %25,63 zerbitzuei.

Udalerriko balio erantsiaren egitura 2000an.

Lurraldea	Lehen Sekt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Debagoiena	0,56	64,26	4,29	30,9
Aretxabaleta	0,46	69,10	4,80	25,63

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

Horregatik ondoriozta daiteke Aretxabaletak, zerbitzuetan eskaintza ekonomikoa handitu duen arren, egitura industrial trinko bat mantentzen duela.

2.001ean, 3.227 pertsonako biztanleria aktiboa (aktiboak/ biztanleria osoa) zuen Aretxabaletak, populazio osoaren %52,2. Aktibitate tasa Debagoieneko Mankomunitatearena (%49,9) baino altuagoa eta Gipuzkoako Lurralde Historiakoan neurtutakoa (%47,9) baino askoz altuagoa da.

LANE Biztanleria aktibitatearen arabera. (2001)

Lurraldea	Guztira	LANE Actiboak.					LANE Ezaktiboak
		Guztira	LANE Okupatuak	LANE langabeak			
				Guztira	Lehen Enplegua	Lan egindakoak	
Aretxabaleta	6.184	3.227	3.043	184	53	131	2.957
Debagoiena	62.010	30.991	28.777	2.214	480	1.734	31.019
Gipuzkoa	673.563	323.074	291.606	31.468	5.856	25.612	350.489

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

2.2. Sektore Ekonomikoak

Lehen sektorea, XX. mendeko lehen erdira arte udalerriko eta eskualdeko egitura ekonomikoaren ardatza izan zenak, garapen industrialari eta hiritartzeari uzten dio nagusigoa, udalerriko nekazal jarduera baztertuz. Herriaren eta industriaren hazkunde arinak lur hoberenak bete eta okupatzen ditu, nekazal jarduera bigarren mailan utziz. 2.000an udalerriko balio erantsian lehen sektoreak zuen pisua edo ehunekoak ez zen %1era heltzen, Debagoiena eskualdean eta Gipuzkoako Lurralde Historiakoan ematen ziren antzerako baloreak.

Udalerriko lurraldeek aurkezten dituzten zailtasun orografikoak landaketak azalera konkretu batzuetan egiteko aukera ematen du. Landatzeko egokiena den eremua ia erabat ortu lurrek osatuta dago, produktu tradizionalak (artoa, patata, fruta arbolak) eta zuhaitzez. Azken horiek, larre naturalekin batera, behi eta ardi mota ezberdinen nagusigoa duen abeltzantzarako oinarri dira, batez ere familia mailako ekonomiarentzako osagarri diren abeltzaintza ustiategi txikiei loturik.

1.999an, Aretxabaletan erroldatuta zeuden 160 ustiategitak. %51,8k abereak zituen, %48,1ek ez zuen abererik eta ez zegoen lurrik gabe aktibitategaratzen zuen ustiategirik. Nekazal erabilerari zuzenduriko udal azalera 1.960 Hektareakoa zen.

Erroldatutako Ustiategiak eta guztizko azalera 1999an

	Guztira		Abeltzantzarekin		Abeltzaintzarik gabe		Lurrik gabe
	Kop.	Ha./Ust.	Kop.	Ha./Ust.	Kop.	Ha./Ust.	Kop.
Debagoiena	2.210	29.564	1.081	16.087	1.121	13.476	8
Gipuzkoa	12.405	162.071	7.328	92.504	4.938	69.567	139
Aretxabaleta	160	1.960	83	1.232	77	728	0

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

2001ean, **Industriaren sektoreak** Aretxabaletako biztanleria landunaren %60a hartzen zuen. Nahiz eta sektore honen balio erantsiaren pisua, udalerriko balio erantsiaren %69,1a, bere garrantzia zerbitzuen sektorearen mesedetan gutxituz joan den, udalerriko egitura ekonomikoaren oinarritzko erreferentzia izaten jarraitzen du, bai balio erantsiari eta baita lanari dagokionean ere. Egitura hau eskualdeak orokorrean duenaren oso antzekoa da, baina Gipuzkoako eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan duenaren oso desberdina, hor hirugarren sektorearen garrantzia askoz handiagoa baita.

Udalerriko biztanleria landunaren %50a baino gehiago, ondoko beste udalerrri batzuetara mugitzen da egunero sektore industrialean lan egitera. Datu honek berretsi egiten du aurrez esandakoa, hau da, ondoko herrien aurrean Aretxabaletak populazioa erakartzeko eta bertan bizitzeko duen joera azpimarratuz.

16 urte edo gehiagoko biztanleria aktibitate atalaren arabera . 2001

<i>Guztira</i>	<i>Guztira</i>	<i>Nekazaritza</i>	<i>Industria</i>	<i>Eraikuntza</i>	<i>Zerbitzuak</i>
<i>Gipuzkoa</i>	291.606	5.073	91.934	23.924	170.675
<i>Debagoiena</i>	28.777	238	15.609	1.501	11.429
<i>Aretxabaleta</i>	3.043	18	1.826	133	1.066

Udalerriko aktibitate industrialari dagokionean, 10 langile baino gehiagoko establezimendu eta enpresak dira nagusi, metalaren eraldaketa, fundizioa eta laminazioari loturiko aktibitatea dutenak. Euskal Herriko Esportatzaileen eta Industria Katalogoaren arabera, gaur egunean 19 dira udalerrian 10 langile edo gehiago duten industria establezimenduak.

<i>Arrazoi Soziala</i>	<i>Aktibitatea</i>
<u>AURRELAN, S.L.</u>	Automatizazio orokorra. Makina bereziak
<u>AUTOMATISMOS IDF, S.L.</u>	Automatizazio elektrikoak.
<u>AZATZA, S.L.</u>	Kooperatiba Enpresa Hezkuntza. Zabalpen kooperatiboa.
<u>AZBE B.ZUBIA, S.A.</u>	Sarrailagintzan dabilta: sarrailak, morroiloak, krisketak, giltza ikusezinezko zilindro mekatronikoak
<u>AZK TALDEA, S.A.</u>	Komunikazio planak, marketina internetez, harreman publikoak, marketin zuzena, publizitatea, packaging, stand.
<u>CERRAJERA VALLE LENIZ, S.A.</u>	Sarrailagintzarako artikulua: sarrailak, morroiloak, krisketak eta segurtasun zilindroko sarrailak...
<u>COPRECI, S.COOP.</u>	Etxe tresna elektrikoak eta horientzako osagarriak egiten dituzte.
<u>EGUZKIGRAF, S.COOP.</u>	Arte grafikoak: bulego lan inpresok, katalogoak, eskuorriak...
<u>EXCAVACIONES Y TRANSPORTES BESAIDE, S.A.</u>	Indusketak, baso bideen zabalpenak, errepide eraikuntzak, orotariko desmonteak eta garraioak.
<u>FAGOR EDERLAN, S.COOP.</u>	Auto-mozio sektorerako aluminioaren lehen eraldaketa eta ekoizpena egiten ditu, baita burdin eta berun galdatzeak ere.
<u>FAGOR SISTEMAS S. COOP</u>	Makina bereziak egiten dituzte, zelula robotizatuak.
<u>FUNDICIONES OLAZABAL, S.L.</u>	Aretan aluminioa galdatzen dute. Auto-moziorako aluminio piezak, automatismoak
<u>LAMINADOS DE ARETXABALETA, S.A.</u>	Gogorak ez diren metalak galdatzen eta xaflatzen dituzte: barrak, erroiluak, tirak eta kobre, latoi, aluminio eta brontze lanak.
<u>LKS INGENIERIA, S.COOP.</u>	Produktu diseinua. Diseinu estrategikoa, produktu irudia, diseinu formala.
<u>LKS, S.COOP.</u>	Aholkularitza: Zuzendaritza aholkularitza (estrategia, marketina, komunikazioa, industria eremuaren kudeaketa eta hobekuntza, antolakuntza eta aldaketa, etengabeko hobekuntza, giza baliabideak); Soluzio zehatzak (kudeaketa, marketina, giza baliabideak, teknologia, kalitate sistemak eta ziurtagirak, merkatu ikerketak, aliantzak, dibertsifikazioa, auditoriak eta diagnostikoak, azterketa ekonomiko-finantzieroa, barne komunikazioa, lan talde doitzak, formazioa eta berrikuntza lantzeko soluzio zehatzak.
<u>LUCIO GARAY, S.A.</u>	Aretan galdatutako aluminio piezak: eskuzko moldeak, karrusela eta mota.
<u>MONDRAGON SISTEMAS DE INFORMACION, S.COOP.</u>	Industria enpresentzako soluzio orokorrak; Automatizazioa, gainbegiratzea eta kontrola, Informatika sistemen diseinua eta jartzea; aholkularitza, kalitate aholkularitza eta etengabeko hobetzea.
<u>PLASTICOS KAPPA, S.L.</u>	Materia plastikozko artikuluan ekoizpena. Erremintarako heldulekuak...
<u>RUBBER-LAN, S.C.L.</u>	Kautxu naturalen ekoizpena, sintetikoak, ... etxe tresna elektrikoetarako piezak...

Iturria: Euskal Herriko Esportatzaileen eta Industriaren Katalogoa

Hirugarren sektoreari dagokionean, 70 hamarkadatik aurrera oso nabaria da sektore horren garrantziaren hazkundera, bai biztanleriari dagokionean eta baita ekonomia aktibitateari dagokionean ere.

Jarduera taldeen arabera udalerriko establezimenduak aztertuz. Establezimenduen %69,1ek zerbitzuen sektorean betetzen du bere eginkizuna, azken urteetan etengabe handituz joan den kopurua. Zerbitzuen sektorearen azpisektore ezberdinen artean “Merkataritza, ostalaritza eta garraioak” da nagusi, gainontzeko lurralde eremuetan gertatzen den bezala.

Udalerriko establezimenduak, jarduera motaren arabera. 2003.

	GUZTIRA		Industria eta energia	Eraikuntza	Merkataritza, ostalaritza eta garraioak	Bankuak, aseguruak eta zerb. enpresak	Beste jarduera batzuk.
	Kop.	Lana	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.
<i>Gipuzkoa</i>	61.870	271.258	5.988	9.264	25.705	11.261	9.652
<i>Debagoiena</i>	4.186	32.513	590	560	1.707	611	718
<i>Aretxabaleta</i>	370	2.943	68	46	137	50	69

Iturria: EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Direktoriaoa.

Mugimendu Kooperatiboa

Aretxabaletako jarduera ekonomikoaren nolakotasunean arreta berezia merezi du kooperatiben mugimenduak. Hasiera datak 1955era arte eraman gaitzake, inguruan duen Arrasateko udalerrian ULGOR kooperatiba eratzearekin (izena bere sortzaileen izenen inzialez osatuta dagoena). Haien ondoren ekimen kooperatibo berriak sortuz doaz mugakideak diren udalerrietan, MCC bezala (Mondragón Corporación Cooperativa), euskal kooperatiba gehienak batzen dituen taldea. Korporazio horren gunerik garrantzitsuena Fagor, Caja Laboral eta Lagun Aro aseguru entitateak osatzen dute.

Kooperatiben indarrak produkzioaren dibertsifikazio nabaria eragin du eskualde osoan, horien artean adierazgarriak izanik lerro zuria, talde ondasunak, auto-moziorako atalak, trokeleria, laminazioa, profilak, makina-erreminta, prezisiozko mekanika, tailer mekanikoak, eta orokorrean, siderurgia eta metalurgiarekin zerikusia duten arlo guztiak.

Kooperatiben errealitateak Aretxabaletan izan du adibiderik garbienteko bat Fagor taldearen eskutik. Talde horrek zenbait industria ezberdin batzen ditu, eta horiek metalen eraldaketa eta prezisiozko mekanika sektorearen barruko arlo ezberdinetan berezitu dira era kooperatiboaren bitartez.

2.3. Lan merkatua, enplegua eta gizarte bazterketa

2001ean, Aretxabaletan bizi ziren 6.184 pertsonetatik % 52,1 aktiboak ziren (16 eta 64 urte artean). Bestalde, biztanleria ez aktiboak, hau da, zerbitzu eta ondasunen sorreran parte hartzen ez duten pertsonak, adibidez umeek, pentsiodunek edo etxeko andreak, populazio osoaren % 47,8 osatzen zuten.

Langabeziaren garapena eta analisisia

1997ko lehenengo hiruhilabetekoan %5,43koa zen biztanleria aktiboaren udalerriko langabezia tasa. Zazpi urte geroago, 2004ko lehen hiruhilabetekoan, mendebaldeko eta Euskal Herriko ekonomiak sarturik dauden hedapen garaiari esker, %3,8ra jaitsi zen.

Langabeziaren bilakaera hiruhilabeteka 1987-2004 (%)

	1997				1998				1999				2000			
	1º	2º	3º	4º	1º	2º	3º	4º	1º	2º	3º	4º	1º	2º	3º	4º
Aretxabaleta	5,43%	4,30%	4,86%	4,93%	4,58%	3,94%	4,26%	4,54%	3,76%	3,27%	2,91%	3,30%	3,41%	2,56%	2,80%	2,66%
Debagoiena	6,92%	6,15%	6,20%	6,21%	5,70%	5,18%	5,25%	5,78%	5,34%	4,53%	4,41%	4,58%	4,35%	3,22%	3,46%	3,45%
Gipuzkoa	12,52%	11,39%	11,26%	11,46%	10,94%	9,79%	9,55%	9,71%	9,37%	8,44%	8,35%	8,40%	8,20%	7,26%	7,33%	7,68%
E.A.E.	13,19%	12,06%	12,09%	12,18%	11,73%	10,41%	10,30%	10,43%	10,23%	9,11%	9,20%	9,22%	9,21%	8,20%	8,31%	8,59%
	2001				2002				2003				2004			
	1º	2º	3º	4º	1º	2º	3º	4º	1º	2º	3º	4º	1º	2º		
Aretxabaleta	2,95%	2,27%	3,41%	4,65%	4,65%	2,77%	3,73%	4,05%	4,25%	4,03%	3,94%	4,25%	3,87%	3,41%		
Debagoiena	3,53%	3,14%	3,56%	4,57%	4,70%	3,32%	3,93%	4,86%	4,50%	4,24%	4,70%	4,89%	4,28%	3,85%		
Gipuzkoa	7,56%	6,81%	7,16%	7,44%	7,93%	7,01%	7,33%	7,72%	7,73%	7,01%	7,27%	7,56%	6,89%	6,28%		
E.A.E.	8,50%	7,67%	7,93%	8,21%	8,72%	7,69%	8,01%	8,42%	8,55%	7,76%	8,08%	8,33%	7,73%	7,02%		

Iturria: INEM-Egailan

Langabeziaren bilakaera 1997-2004 (%)

Udalerrria	Langabezia tasa 1997	Langabezia Tasa 2001	Langabezia Tasa 2004
Aretxabaleta	5,4	2,9	3,8

Datuak, adina eta sexuaren arabera aztertuta, desberdintasun nabaria ikusten da banaketan emakumezkoen kaltetan. 2004an langabezia bulegoetan inskribatutako gizonezkoak 39 ziren, eta inskribatutako emakumezkoen zenbatekoa, aldiz, 79.

Adinari dagokionez, langabe gehien duen adin taldea 25-44 urte tartekoa da, bai gizonezkoen kasuan eta baita emakumezkoen kasuan ere.

Langabeen adina eta sexua. 2004

Udalerrria	Guztira	Gizonezkoak			Emakumezkoak		
		<25	25-44	<=45	<25	25-44	>=45
Aretxabaleta	118	9	21	9	8	51	20

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

Langabezia sektorearen arabera aztertzean, industrian eta zerbitzuetan ematen da langabezia gehien. Izan ere, lana sortzeko orduan ere beraiek dira garrantzi handiena dutenak.

Neurturiko langabezia sektorearen arabera. 2004

Udalerrria	Guztira	Sektoreak				
		Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Aurreko lanik gabe
Aretxabaleta	118	-	53	8	51	6

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

3. GIZARTE EKINTZA, BIZIKIDETZA ETA ELKARTASUNA

3.1. Gizarte-laguntza, Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak

2004an 9 familia unitate zeuden Aretxabaletan Oinarrizko Errenta jasotzen zutenak. Gizarte Larrialdietarako Laguntzei dagokienez (A.E.S.), 23 eman ziren.

Gizarte Laguntzarako beste laguntza batzuk:

Udal Tasen Hobariak

Udal tasen hobariak jasotzera 24 familia heldu ziren. Horrez gain, 28 familia (familia ugariaren kategorian sartutakoak denak) kiroldegiko kuotaren murrizketa batez baliatu ziren.

Bizilekuan laguntza zerbitzua

2004.urtean zehar lagunduriko etxebizitza edo bizileku kopurua 52ra heldu zen, horietako 34 menpeko ziren eta 18 autonomo. Hirugarren adineko taldeari, batik bat, eta elbarrien zenbait kasuri, eman zitzaizkion etxebizitza zerbitzua eta zerbitzua.

Tele-Alarma

2004an udalerrian jarritako tele-alarma kopurua 5era igo zen.

Egoitza eskaerak

5 eskaera egon ziren herrian 2004an, itxaron zerrendan 1 egonik.

Eguneko Zentroa

2 izan ziren eguneko zentroan (psikogeriatrikoa) jasotako eskaerak.

Norbanako laguntza eskaerak

2004an elbarrientzako 3 norbanako laguntza eskatu ziren.

Arriskua duten adingabeak dituzten familiak

Arriskua duten adingabeak dituzten familietan egindako ekintzak 2 izan ziren.

Talde eta elkarteei dirulaguntzak

2004an 8 elkarteri eta 2 GKeri eman zitzaien dirulaguntza.

Prebentzioari dagokionez:

- Eskola prebentzioa:
 - o SASOIA enpresarekin batera drogamenpekotasunaren prebentziorako tailerrak egin ziren ikasturte guztietan ESO: 132 ikasle; 24 guraso; 10 irakasle.
 - o Sexu hezkuntza eman zen ESO: 132 ikasle; 30 guraso; 10 irakasle.
- Desohitze tratamendurako zentroetara mugitzeko laguntza ekonomikoak, 3.
- Emakumeentzako auto-estimazio tailerrak, 15.

Gizarte politketan egindako udal gastua Udal Aurrekontuaren %9,27a da.

3.2. Osasun Zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna

Aretxabaletako udalerrian dauden osasun zerbitzu nagusiak, Euskal Osasun Zerbitzuari – Osakidetzari dagozkionak, honako hauek dira:

Ospitalez kanpoko Zentro Publikoak. 2.002

Udalerria	Guztira	Anbulatorioak	Kontsultak	Osasun Zentroak	Larrialdi Zerbitzuak	Zentro Periferikoak	Osasun mental zentroak	Mutua asistentzia zentroak	Beste
<i>Debagoiena</i>	13	1	-	4	1	3	1	3	-
<i>Aretxabaleta</i>	1	-	-	1	-	-	-	-	-

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

Aretxabaletak Osasun Zentro Publiko edo Anbulatorio bakarra dauka, aurrez eskaturiko hitzorduaz kudeatzen dena eta Medikuntza Orokorreko arreta eskaintzen duena. Oinarritzko arretaz gain Ginekologia zerbitzua ere eskaintzen du emaginak emana, Ginekologoaren aldizkako bisitekin (astean 2 aldiz). Larrialdi Zerbitzua ere badu. Ematen den ospitale zerbitzua tratamenduaren edo gertutasunaren arabera izaten da, izan daiteke Arrasateko Ospitalean edo Donostiakoan.

Biztanleriaren osasunari dagokionean, Aretxabaletako hilkortasunaren datuek honako emaitza hauek islatzen dituzte:

Heriotzak, sexu eta arrazoiaren arabera. 2002

	<i>Heriotzaren zergatia</i>								
	Guztira	Gizon.	Emak.	Tumoreak	Zirkulazio Aparatua	Arnas Aparatua	Digestio Aparatua	Istripuak	Gainontzeko Gaixotasunak
Gipuzkoa	6.023	3.217	2.806	1.701	1.870	635	296	298	1.223
Debagoiena	526	293	233	171	152	46	22	28	107
Aretxabaleta	30	20	10	13	10	2	1	3	1

Iturria: Eustaten datuetan oinarritutako Taula

Azaldutako datuak ez dira ondorio zehatzak ateratzeko bezain adierazgarriak, baina aukera ematen dute eskualdean ematen diren gutxi gorabeherako joerak ikusteko. Datu esanguratsuenak ondoko hauek lirateke:

- Zirkulazio aparatuarekin eta tumoreekin loturikoak dira heriotza gehienak.
- Arnas eta digestio aparatuekin loturiko heriotzak gutxi dira.
- Istripuekin loturiko heriotza kopurua ere handia da.
- Gainontzeko gaixotasunekin loturiko heriotza gutxi dago herrian.

Ez dago Aretxabaletako biztanleriaren osasunaren egoerari buruzko ikerketa zehatzagorik.


3.3. Etxebizitza

Gai hau, dokumentu honetako “Hirigintzako aurreikuspena” atalean lantzen da.

3.4. Hezkuntza eta kultura

2001ean, eta hezkuntza mailari dagokionean, modu honetan banatzen zen biztanleria: biztanleriaren gehiengoak (2.179 pertsona) haur eskolako edo lehen hezkuntzako ikasketak eginak zituen; 1.134 biztanlek bigarren hezkuntza egina zuen; 1.002 biztanlek ikasketak profesionalak eginak zituzten; 439 pertsonak erdi mailako ikasketak eginak zituzten eta 309k goi mailakoak. 277 pertsona zeuden ikasketarik egin gabe eta 28 ziren alfabetatu gabeak.

Biztanleria hezkuntza mailaren arabera. 2001



Iturria: EUSTATEko datuetan oinarritua

Erdi-goi mailako, bigarren mailako eta ikasketa profesionalak dituzten pertsonen nagusitasuna, neurri batean, eskualdean dagoen heziketa eskaintzak eragiten du. Eragile da baita, eskualdeak eta udalerrriak duten produkzio eta ekonomia espezializazioa ere.

Udalerriko hezkuntza zentroak

Honako hauek dira udalerriko hezkuntza eskaintzaren barne dauden zentroak:

Aretxabaletako hezkuntza eskaintza (99-00 ikasturtea)

Zentroa	Haur hezkuntza		Lehen hezkuntza		DBH		DBHO	
	Publ.	Prib.	Publ.	Prib.	Publ.	Prib.	Publ.	Prib.
PAUSOKA		X(0-2 urte)						
SANTA RITA		X						
KURTZEBARRI L.H.	X		X					
KURTZEBARRI DBH					X			
ARETXABALETAKO							X	
INSTITUTOA								X
ALMEN*				X		X		X
MU (Eskola								X
Politeknikoa)*								X

Iturria: Aretxabaletako Udala. * Inguruko udalerritan dauden hezkuntza zentroak, Aretxabaletako Hezkuntza eskaintzaren barne kokatzen direnak.

Pausoka. Haur hezkuntza (lehen zikloa, 0-3 urte). D hizkuntza eredia.

Santa Rita. Gizabideko kide den zentro pribatua. Haur hezkuntza irakasten dute bi urtetik aurrera. D hizkuntza eredia. Epe ertainean Pausokarekin bat egitea espero da.

Kurtzebarri. Bi ildotan banatutako zentro publikoa. **Kurtzebarri LH**-k bi urtetik aurrera haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen ditu. **Kurtzebarri DBH**-k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Bi kasuetan hizkuntza eredia euskalduna da osorik: D eredia eta “murgiltze” eredia, hor ere euskaraz dira irakasgai guztiak, baina, tratu berezi batekin, guraso erdal hiztunen seme-alabei begira egindakoa baita. Eskualdeko beste udalerrri batzuetatik ere joaten dira ikasleak Kurtzebarrira, Eskoriatzatik, batez ere, DBH ikastera.

Almen. Eskoriatzan badago ere, guraso eta gazteentzat Aretxabaletako hezkuntza eskaintzaren parte da. Zentro honek goi mailako zikloak ere eskaintzen ditu. Eskaintza guztia D eredian ematen da. Hala ere, Analisi eta Eraikuntza zikloen kasuan A eredian ere matrikula daiteke.

Aretxabaletako Institutu publikoa. Erdi mailako zikloak eskaintzen ditu nagusiki.

Momentu honetan goi mailako ziklo bat eskaintzen dute eta hurrengo ikasturterako beste bi gehitu nahi dituzte. Arautu gabeko hezkuntza ere eskaintzen dute, heziketa okupazionala eta jarraitua. Bere helburua arautu gabeko hezkuntzak leku handiagoa hartzea da, helburua ikasketen %40a hezkuntza arautua izatea eta %60a arautu gabekoa izatea da.

Heziketa jarraituari dagokionez, bere gaitasunen arabera ikasketak eskaintzeaz gain, Aretxabaletako institutuak enpresen beharren arabera ere lan egiten du (informatika, soldadura...). Institutua sarri eskaerari erantzun ezinda egon ohi da, dituen giza baliabide urriak eraginda.

Unibertsitateari dagokionez, eskualdean Unibertsitate bat dago (Mondragon Unibertsitatea). Bertan ingeniari (Eskola, Aretxabaleta), Humanitateak (HUEZI, Eskoriatza) eta Enpresen administrazioa eta kudeaketa (ETEO, Oñati) ikas daitezke.

Unibertsitatez kanpoko ikasketen banaketa honako hau zen 2002-2003 ikasturtean:

Unibertsitatez kanpoko ikasketak, ikasleria mailaren eta titularitatearen arabera. 2002-2003

	Publikoak	Pribatuak	Guztiak
Haur hezkuntza (1)	116	124	240
Lehen hezkuntza (2)	160	-	160
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (3)	143	-	143
Batxilergoa (4)	-	-	-
Lanbide Heziketa (5)	-	-	-

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua

1. Haur hezkuntza eta maila horretako hezkuntza berezia ditu barnean.
2. Lehen hezkuntza eta maila horretako hezkuntza ditu barnean.
3. DBH eta maila horretako hezkuntza berezia ditu barnean.
4. Batxilergoa du bere barne.
5. LH eta maila horretako hezkuntza berezia ditu barnean.

Honako hauek ziren 2002/03 ikasturtean, unibertsitatez kanpoko ikasketak mailaren eta hezkuntza eredu elebidunaren arabera:

Unibertsitatez kanpoko ikasketak, ikasleria maila eta ereduaren arabera. 2002/03

	A-X (6)	B (7)	D (8)
Haur hezkuntza (1)	-	42	198
Lehen hezkuntza (2)	-	80	80
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (3)	-	68	75
Batxilergoa (4)	-	-	-
Lanbide Heziketa (5)	-	-	-

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua

1. Haur hezkuntza eta maila horretako hezkuntza berezia ditu barnean.
2. Lehen hezkuntza eta maila horretako hezkuntza ditu barnean.
3. DBH eta maila horretako hezkuntza berezia ditu barnean.
4. Batxilergoa du bere barne.
5. LH eta maila horretako hezkuntza berezia ditu barnean.

A: Euskara irakasgai gisa ikasten dute. X: Ez dute euskara ikasten

B: Irakaspen elebiduna

D: Irakasgai guztiak euskaraz ikasten dituzte

3.5. Euskara

Euskararen ezagutzari dagokionez, biztanleriaren %64,8a euskalduna zen 2001ean, %16,8a ia euskalduna eta %18,2a erdalduna.

2 urte edo gehiagoko biztanleria euskara maila orokorraren arabera, 2001.

Udalerrria	Guztira	Euskaldunak				Ia euskaldunak				Erdaldunak
		Guztira	Alfab.	Ia-alfab.	Ez alfab.	Guztira	Alfab.	Ez alfab.	Pasiboak	
Aretxabaleta	6.018	3.905	2.980	811	114	1.015	294	323	398	1.098

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua,

Euskararen normalkuntza Euskara Zerbitzuaren xedea da, bai udal administrazioari dagokionean eta baita udalerriko egunerokoan ere. 1986-2001 urte arteko euskararen ezagutzaren garapena honakoa da:

Euskararen maila orokorraren garapena, 1986-2001

Hizkuntza gaitasunaren garapena				
	1986	1991	1996	2001
<i>Euskaldunak</i>	3.283	3.615	3.707	3.905
<i>Ia euskaldunak</i>	1.011	1.011	837	1.015
<i>Erdal hiztunak</i>	1.586	1.434	1.292	1.098
<i>Guztira</i>	5.880	6.060	5.836	6.018

Iturria: Eustat

1986-2001 urte arteko garapenak erakusten du euskaldun kopurua 9 puntu hazi dela.

4.- LURRALDEA, ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

4.1. Ingurune fisikoa eta naturala

Aretxabaletako udalerrria Gipuzkoako Lurralde historikoaren hego-mendebaldean dago, Araba eta Bizkaiarekin mugan, Deba Garaia eskualdearen baitan. Iparraldean Arrasaterekin egiten du muga, mendebaldean Eskoriatzarekin eta Aramaiorekin, ekialdean Oñatirekin eta hegoaldean Barrundiarekin, Araban eta Elgea mendizerran.

29,1 Km² inguruko azalera du eta hirigunea itsasoko mailatik 235 metrora dago, punturik altuena Zaraiturri (1.189 m.) da, Barrundiarekin mugan. Aipatzeko beste tontor batzuk Kurtzebarri (1.119) eta Elorretako atxa (1.140) dira.

4.1.1. Geologia, klima eta hidrologia

Geologia eta litologia

Bizkaiko antiklinorioko ekialdeko muturrean dago Aretxabaleta, Iurre unitatearen barruan eta Udala sektorean. Litologia aldetik, Behe Kretaziko materialak daude bertan: Wealdiar faziak, urgoniarrak eta supraurgoniarrak. Materialik hauskaitzenek (kareharriek, margo-kalizek eta batez ere, koraldun kareharriek) osatzen dute udalerraren hegoaldeko sektorea, erliebe monoklinal

garrantzitsua osatuz. Honen azala Debako aranak eta Urkuluko urtegiaren inguruak osatzen dute.

Geomorfologia

Morfologikoki, Elgeako mendizerrarekin lotzen dira erliebe hauek, oso karstifikatua izan dena eta aipatzekoak dira hainbat kobazulo, leize, dolina...horien artean aipatu dezakegu Ametzetako depresio karstikoa.

1.000 metroak gainditzen ditu erliebeak eta azpimarratzekoak dira honako tontorrak: Zariaiturre (1.189 m), Elorretako atxa (1.140 m), Kurtzebarri (1.119 m), Andarto (1.069 m), Kargaleku (1.062 m), Maruatz (1.019m),...

Erliebe multzo honen amaieran tontorrak gutxitzen dira litologia ezegonkorragoek eraginda (lutitak, limolitak, arbela beltzak...). Horren erakusle dira honako guneen batez besteko altuerak: Potzuzarreta (474 m), Goikomandoain (476 m),...

Egituraz, bi zonaldeak Urkuluko failak bereizten ditu, Mendebaldetik Ekialderako norabidean (Bolibar eta Urrejola artean). Urrejolatik gertu Bilboko failarekin (IM-etik HE-era) eta Bexoazketako failarekin lotzen da. Hiru haustura hauen artean dago Urrejolako urtegia.

Klima eta meteorologia

Debagoieneko klima epela izan ohi da – 4-10°C hilabete hotzean eta 18-20°C hilabete beroan. Prezipitazioak 1.300 – 1700 mm ingurukoak dira.

Tenperaturari dagokionez, Urkuluko estazioan 1983-1992 urte artean egindako datu bilketaren arabera urteko batez bestekoa 12,3°C-koa da, abuztukoak dira batez besteko altuenak eta urtarrilekoak baxuenak. Prezipitazioen urteko batez bestekoa 1.126,2 mm-koa da. Ez dira barnebiltzen elur edo kazkabar formako prezipitazioak. Azaroa da euri gehien egiten duen hilabetea eta Abuztua gutxien egiten duena.

Udaldiko hiruhilekoan haizearen norabidea I eta MIM da egunez eta gauez MIM-M da nagusi. Orokorrean, haize indartsua ibiltzen da egunez (2 eta 6 m/s) eta ahulagoa gauez (<2 m/s). Negualdiko hiruhilekoan haizea ahulagoa da (gutxitan gainditzen dute 5 m/s) eta M noranzkoan izan ohi dira, bai egunez eta baita gauez ere.

Jarraian, Aretxabaletatik gertu dauden Euskal Herriko Sare Hidrometeorologikoko estazio automatikoen 2003an jasotako datuak aurkezten dira.

	San Prudentzio	Arrasate	Urkulu
Prezipitazioa orotara l/m²	1.251,4	1.351,3	1.020,5
Egun euritsuak	183	180	189
Batez besteko tenperatura	13,8 °C	12,6 °C	13,4 °C
Gehienezko tenperatura absolutua	40,7 °C	40,0 °C	40,3 °C

Gutxienezko tenperatura absolutua	-3,4 °C	-6,0 °C	-4,6 °C
Batez besteko gehienezko tenperatura	19,3 °C	18 °C	18,5 °C
Batez besteko gutxienezko tenperatura	9,4 °C	8,2 °C	9,2 °C
Izotz egunak	12	29	16
Batez besteko eguneko hezetasuna		80,8	77,1
Batez besteko eguneko irradiazioa		18.532 (Kw/m ²)	
Batez besteko abiadura		6,8	
Gehienezko bolada abiadura		103,0	

Iturria: Euskalmeten datuetan oinarritua

Hidrologia

Deba ibaiaren arroak 530 Km² hartzen ditu eta Gipuzkoako mendebaldeko ertzean dago. Ia osorik Gipuzkoan dago ibai-arroa; Aramaio eta Egoko buruak soilik daude Gipuzkoatik kanpo, lehena Araban eta bigarrena Bizkaian. Deba ibaia Leintz-Gatzagan jaiotzen da eta Deban itsasoratzen da. Kare jatorriko materialak dira nagusi eta horrek, uraren mineralizazio handia eragiten du.

Deba ibaia Leintz-Gatzagan sortzen da, eta Aramaio ibaiarekin elkartzen da Arrasaten. Bestalde, Oñati ibaiaren urak ere jasotzen ditu. Azken horren sorrera Aizkorriren ur emarian aurkitzen da gehienbat, urak kareharria disolbatzen duen tokian, hainbat koba, leize eta e.a. sortuz. Urkuluko urtegia berriz, Oñati ibaiaren arroan dago eta Debagoiena eta Debabarrena hornitzen dituen urtegieta bat dugu.

Sare hidrologiako deskribatzeko San Prudentzioko estazioaren datuak darabilzkigu. Puntu horretan, 2002-2003ko batez besteko ur emaria 2,78 m³/s-koa izan zen. Horrek, 22,81 l/s/Km²-ko emari espezifiko arrunta esan nahi du. Abenduan eta otsailean areagotze nagusiak ageri dira eta txikiagoa maiatzean. Urrian eta maiatzean emari handiak ageri dira, udan, aldiz, txikiak. Emari handienak abendua, urtarrila eta otsailean izan dira. Hilabete lehorrena, aldiz, abuztua izan da, eta bertan jasotzen da batez besteko emari txikiena, 0,23 m³/s. Emari txikiena abuztuaren 11n izan zen, 0,181 m³/s.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako “Gipuzkoako Herrietako Ibaien Uraren Kalitate Ikerketa 2003” azterketak diotenaren arabera, Deba jaiotzen den lekuan, Leintz-Gatzagan kalitate fisiko-kimikoa ona du urak. Tenperaturak fresko mantentzen dira, uda beroa izan arren; 15,8°C-ko maxima jasotzen da. Oxigenoak urteko batez besteko altua erakusten du, 10,14 mg/l; udan kontzentrazioak txikiagoak dira eta behin baino gehiagotan ez dira iristen 9 mg/l-ra. Ez da ageri kutsadura organikorik edo metalek eragindako toxikotasunik.

Arrasaten dagoen estazioaren arabera, eta aurreko urteekin alderatuz gero, amonioa urritu egin dela nabari da. Urteko batez bestekoa 0,31 mg/l-koa da, eta 2,70 mg/l-koa zen 2002an. Hobekuntza hau eragin du Eskoriatzako eta Aretxabaletako isurketak puntu honetatik behera egiteak. Aldi batean 1 mg/l-ko muga gainditu egiten da, arrainen bizitzarako aproposak ez

diren urak eraginez. Fosfatoen mailak ere nabarmen egiten du behera, 0,21 mg/l-ko urteko batez besteko batekin. DQOk 24ko urteko batez bestekoa du, iazkoa baino balio askoz txikiagoa (111 mg/l.). Horrek guztiak kutsadura organikoan egindako hobekuntza erakusten du. Oxigenazioak hobera egiten du kutsadura organikoaren gutxitzeak eraginda, eta urteko batez bestekoa 9,75 mg/l-koa du. 21,5°C-tik behera mantentzen da temperatura. Mineralizazioa indartsua da (706 µS/cm).

San Prudentzian okerrera egiten du egoerak. Puntu horretan jasotzen dira Eskoriatzako eta Aretxabaletako hondakin urak Arrasatekoekin batuta. Amonioak balio oso altuak hartzen ditu, urteko batez bestekoa 7,90 mg/l-tan jarritz, gehienezko balioa 24,4 mg/l-ra iristen da. Fosfatoek ere kontzentrazio handiak erakusten dituzte, 5,76 mg/l-ko gehienezko balioa erregistratuz. Horri guztiari batu behar zaizkio muturreko giro tenperaturak eta oxigenazio eskasa. Baldintza horiek ezindu egiten dute arrainen bizitza garatzea.

4.1.2. Flora eta fauna

Landaredia

Euskal Herriko kantauriar isurialdeko klima ozeanikoa da. Gipuzkoak, Bizkaiak eta Araba iparraldeak duten euri jario handiak eraginda, lurra azidoa da gehienez neutroen kaltetan; ondorioz, landaredi azidofiloa da nagusi.

Zonalde guztiko erliebeak gora behera asko ditu, gandorren norabidea HIIH-EHE norabidean dago. Paisaia gehiena mendiek eta aran estuek osatzen dute.

Bi landaredi pisu ditu Aretxabaleta inguruak: muinotarra eta menditarra. Lehenengoan, haritz pedunkulatuak osatzen du berezko paisaia. Zonalde lehorretan artea izan zen eta da, nagusi, pisu menditarrera gerturatuz. Haltzadiak inguratu zuten ubide oro, menditarreko errekek barne.

Pisu muinotarretik gora pisu menditarra dago, pagoen eremua, garai batean gure ia mendi guztiak bete zituen zuhaitza. Muinotarrean ez eta menditarrean hazten diren beste baso batzuk haritz sesilifloroko hariztiak eta haritz hibridoko harizti kalzikolak dira.

Landaredi hostotsuen baso mistoek eta harizti azidofiloek osatzen dute altuera baxuetan eta pagoek (azidofiloek nagusiki) erdi eta goi altueretan. Egoera eta erliebe lokalaren arabera da batzuen eta besteen arteko limitea, baina, pagoak, altuera baxuetan aurkitzen ditu bizitzeko baldintza egokiak. Lurralde gehienarentzat 400-600 metro inguruan jarri daiteke muga, batzuetan 700-800 metrora iristen bada ere.

Ametz basoek egutera aldea eta tontor silizeo batzuk hartzen dituzte, erliebean duten garrantzia txikia izanik. Presentzia txikia du albar haritzak ere, aldika haritz pedunkulatuaren

eta ametzaren artean azaltzen da.

Egungo landarediarekin asko aldatu da paisaia: laborantzarako soroek eta konifera basoek kolonizatu dute paisaia. Laborantzarako soroek haritz pedunkulatuaren berezko lurak hartzen dituzte eta baso birpopulatzeek hartu dituzte baso guztiak; gainera, erdi eta goi altueretan bazkalekuek, txilar sastrakek, oteak eta garoak dute garrantzia.

Azkenik, aipatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu den bezala, hazkunde azkarreko konifera exotikoko birpopulaketek, eta maila baxuago batean, zelai eta soro atlantikoek, ordezkatu dituztela hasiera batean udalerrria estaltzen zuten baso masak. Hala eta guztiz ere, oraindik interesgune batzuk aurki genitzake.

Landaredi masa horien ezaugarri nagusienak honako hauek dira:

a) Belarki landaredia

1.- ZELAI ETA LABORANTZA ATLANTIARRAK:

Kantauriar isurialdean, koniferen birpopulaketekin batera, paisaiaren elementu garrantzitsuenak dira zelai eta laborantza atlantiarrak. Gehienbat, haritz kandunduna zegoen tokian daude eta maila txikiago batean pagoa zegoen tokian.

Zelairik onenek araretako sakoneko lurak hartzen dituzte, baina, ez dira falta lur lehorragoetan ere. Zelaien erabilera ezberdina da, baina orokorrean simaurraren bidez mantentzen dira, bi edo hiru sega aldi jasaten dituzte eta neguan larre funtzioa betetzen dute. Egokitasun gutxi duten lurak ez dira segatzen eta larretarako erabiltzen dira.

Askotan sagarrondoak ere aurki genitzake zelaietan. Baita beste fruitu zuhaitz batzuk ere: intxaurrondoak, gereziak, udareak (bakar batzuk) eta abar.

Laborantzak berriz, eremu txikiak hartzen ditu orokorrean. Ereiten diren haziak honako hauek dira normalean: arbia, erremolatxa eta artoa eta lekak eta barazkiak giza kontsumorako.

2.- ALBITZAK ETA BESTE BAZKA MESOFILO BATZUK

Albitza da herrialdeko belarrik ugariena; baso garbiguneak, zelaiak eta gutxi zaindutako bazka lekuak hartzen ditu, lur azidoak soilik baztertzen ditu. Albitzaren alboan izaten dira ote-txilar landareak eta honako hauek: *Campanula glomerata*, *Pimpinella saxifraga*, *Poligala vulgaris*, *Achillea millefolium*, ...

Albitz eremuak eta beste bazka mesofilo batzuk barreiatuta daude Aretxabaletan, hartzen duten azalera txikia den arren.

3.- MENDI-ZELAIAK

Batez ere ardiak (neurri txikiagoan zaldiak eta behiak) ibiltzen dira zelai lau eta ugaritan. Herriaren kare mendigune gehienak betetzen dituzte, Kantauriko eraginaren menpe. Antzinatik artzainek lermatu dituzten pagadien eratorriak dira. Zonaldeka txilar muluz eta otez (*Ulex grallii*) beteta daude. Larreek ere osatzen dute paisaia.

4.- ZELAI LERDENAK EDO UHOLDEAK IZAN DITZAKETEN MALDAK

Buztin lurrak hartzen dituzten lur oso hezeetan dauden belarrak dira. Zelai lerdan ohikoetan, lur eutrofoak edo arinki azidoak dira, *Juncus inflexus* da ohikoena. Lagun ditu *J. conglomeratus* eta baita *J. effusus* izeneko azidofiloa ere. Horiekin batera lur hezeetara ondo egokitzen diren espezieak bizi dira. Urkuluko urtegiaren inguruan eta beste hainbat puntutan aurkitu dira.

b) Sastrakak

ATLANTIKO ALDEKO TXILARDI-OTADI-GAROA

Fisionomia aldetik itxura ezberdinak erakutsi arren, agerikoa da elkarren arteko eragina. Hiri landare horiek osatzen duten sastraka oso ohikoa da Kantauriar isurialdean, eta baso zidofilo ezberdinak ordezkatzeko ditu.

Osaketaren izaera, lurraren azido-oligotrofia graduaren eta pertsonak eragin dizkion eraldaketaren arabera da (erretzeak, artzaintza, segaldiak).

Aretxabaletako lurralde guztian banatzen dira txilardi-otadi-garoak.

c) Landaredi antropogenikoa

Baso landaketak zuhaitz formazio homogeenak dira, normalean espezie bakarrak osaturikoak dira eta adin bera izaten dute, nahiz eta, batzuetan, espezieen alternantzia gertatu. Zabalduek dagoen espeziea *Pinus Radiata* da.

Gehien landatzen den espeziea *Intsignis pinua* da. Gehienbat altuera baxu eta erdi mailakoetan izaten da, 0 eta 800 metroren artean. Garrantziari dagokionez, bigarren maila batean, *Larix Kaempferi* edo alertze japoniarra aurki genezake, hainbat eremutan intsignis pinua ordezkatzeko.

Ibai eta erreka ibilguen inguruan, *Platanus hibrida* edo platanoren ilara batzuk aurki genitzake, makala eta makal kanadarra baino ohikoagoa izanik. Gaztainondoa, gaztainondo japoniarrak ordezkatu izan du, eta pegoa ere aurki genezake, nahiz eta lur eremu txikietan izan.

d) Basoak

1.- KANTAURI ALDEKO ARTEA

Mediterraneo izaerako landaredia, garai bateko klimen antzekoa. Kantauriar isurialdetik zabaltzen da eta baita aran eta amildegi nabarretatik ere, altitude baxuetan.

Lurzoru lehorretan ezartzen da artea, eguteraan egon ohi da, muinoetan edo mendi magaletan.

Kareharria eta marrega ditu normalean ezarleku.

Bada oraindik artea ugari, normalean nekazaritzarako egokiak ez diren lurak hartzen dituztelako eta ikazkintza ere bertan behera geratu delako. Erdibidekoak dira arteak, aurrez aipatutako bertan behera uzte horiek azken garaiko kontuak baitira.

Eskualdeko baldintza onenak dituzten txokoetan dira arteak. Inguru honetako puntu askotan ikus daitezke arteak haritzekin nahastuta.

2.- AMEZTIA

Ametza, *Quercus pyrenaica*, laino gutxiko leku eguzkitsuetan eta silizeoen zatiak dauden eremu aretsuetan bizi ohi da. Batez ere silizeo duten mendien eguteran edo tontorrean hazi ohi dira, edo lautada aretsuen hegoaldera.

Ametz sastrakak, eta haritzarekin egiten duen hibridoaren sastraka gutxi batzuk, aurki ditzakegu Aretxabaletan.

3.- ERKAMEZTI-HARIZTI KALTZIKOLA

Quercus pubescens eta *Q. Faginea* hibridoek, *Q. Pyrenaica* espeziearekin nahastuta, izaera txikiko baso osaera marjinalak osatzen dituzte. Kareharrizko aldapetako egutera aldean azaltzen dira, artadiak harizti-baso mistoekin eta pagadiekin nahastuz.

Oso gutxi dira kantauriar isurialdean. Zuhaitzak, gainera, txikiak dira eta osatzen duten estaldura oso murriztua. Era horretako basoa Orkatzategi eta Kurtzebarri arteko amildegian aurki daiteke.

4.- HARIZTI AZIDOFILOA ETA HARIZTI-BASO MIXTO ATLANTIKOA

Landaredi multzo nagusia da Euskal Herriko kantauriar isurialdeko muinoetan. Hariztia nagusi den basoak bi motatakoak izan daitezke, mendi-mazela azidoetan edo neutralitatetik gertu dagoen pHa duten amildegia lurretan daudenaren arabera.

Topografiaren arabera, ohikoa da aldaerak ikustea baso batetik bestera. Erliebeak baldintzatu egiten du landaredia udalerriak dituen gora beherak eraginda. Eragiten den efektuetako bat lurra aberastea da zuloetan eta terrenoaren jaitsieretan, mendi-mazeletatik iritsitako materialen pilaketak eraginda.

Gaur egunean, azalera txikia hartzen dute eta normalean haritz pedunkularrak aldarazten du, bere gune potentzial gehiena labore lurrek eta koniferoek hartzen dute. Oraindik badira harizti azidofiloak eta harizti-baso hostotsu mistoak, baina oso aldatuta eta Aretxabaletako zonalde txikietan.

5.- ALTZADI KANTAURIARRA

Kantauriar isurialdeko erreka eta ibai guztietan haltza da erriberako zuhaitza. Normalean, baso estuak eta galerian osatzen dituzte. Egun ordea, ilara bakarra edo bakar batzuk osatzera iristen dira errekaen ibilguan zehar.

6.- PAGADIAK

Pagadiak dira mendietako baso potentzialak. Pagadi kaltzikolak eta eutrofikoak, lurzoru azidoetan edo neurri batean azido direnetan aurkitzen dira. Bergaran ez dira ohikoak.

Pagadi azidofiloez kantauriar erlaitzeko zati handiena hartzen dute, lur azido ugari baitago bertan, mendietan, batez ere.

Fauna

Aretxabaletan dagoen fauna aurrez deskribatu dugun ekosistema naturalen ezaugarrien araberakoa da. Gaur egun aipatutako ekosistemak, gutxi edo banatuak izatearen ondorioz, espezie hauen gutxitzea eragin du, hauetako batzuk desagertu ere egin dira eta beste asko gutxitu.

Urkuluko urtegia eta Elgea eta Aizkorriko mendizerretako ingurune naturaletan aurki ditzakegu intereseko espezie nagusiak.

Aizkorri da Euskadiko pago masa handienetakoa duen lekua. Otzaurtetik hasita Leintz-Gatzagaraino zabaltzen dira. Pago zaharrak dira, gehienez, euren zuloak animalia askok erabiltzen dituzte negua igarotzeko edo habiak egiteko. Hor ditugu: lepahoria, lepazuria, muxarra eta okila. Pagadi handi horietan orkatzak eta basakatuak ere aurki ditzakegu, eta basoaren zabalguneeetan txilarrak eta igelaren antzeko anfibioen umetoki diren putzuak.

Aizkorriko harkaitz malkartsuetan 30 sai arre bikote eta sai zuri bikoteran bat ere topa dezakegu udaran. Harrapari handi hauekin batera: zapelatzak, belatzak eta beleak ere badira. Negu garaian Pirinioetatik datorren *trichodroma muraria* ere han izan ohi da. Aldian behin, ugatz gazteren baten hegaldirik ere izan ohi da. Aizkorri da, euskal geografian, sagu zahar espezie gehiena aurki dezakegun lekua: *rhinolophus sp.*, *myotis emarginatus*, *miniopterus schreibersii*...

Erbia ere ugari da, orain gutxi birsartua, inguruko mendietan habia egiten duen arranoaren elikagai.

Urkuluko urtegia berez artifiziala bada ere, dituen ezaugarri fisiografikoek ur hegaztiak eta anfibioak egotera ahalbidetzen dute, Gipuzkoa barnealdeko hezegune garrantzitsuena bihurtuz. *Tachybaptus ruficollis* eta *Podiceps cristatus* bikote batzuk ditu. Gainera, migrazio garaian beste ur hegazti batzuk ere aurki daitezke bertan: lertxunak...

4.1.3. Ekologia eta paisaia intereseko guneak

Aretxabaletako udalerrak paisaia intereseko gune garrantzitsuak ditu. Baina, bi zonalde dira nagusiki aipagarriak euren balio ekologiko eta paisajistakoagatik:

- Udalerraren hegoaldera zabaltzen den lerro luzea, Elgeako mendizerraren eta aurreikusitako Aizkorri-Aratz parke naturalaren barne.
- Urkuluko urtegia eta bere ingurua, jatorri artifizialekoa, baina, natura aldetik balio garrantzitsua duena.

Bi zonaldeak udalerraren barneko babes bereziko aurreikusitako arauetan daude:

- Aizkorri-Aratz parke naturala, Baliabide Naturalen Arautze Planaren onarpenaren zain
- Euskal Herriko Hezeguneen Lurraldeko Sektore Plana.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalari dagokionez, Aretxabaletako 945 Ha. sartzeara proposatzen da (udalerriko azaleraren %36,52a), Interes Komunitarioko Leku gisa onartuta.

Urkuluko urtegiari eta bere inguruari dagokionez, Aretxabaletako Udala Naturgintza Fundazioarekin batera ekintza plana lantzen ari da bere erabilera arautzeko eta biodibertsitatearen mantenuarekin bateragarria egiteko.

Gainera, Debagoieneko LZPak honako puntu eta espazioak jasotzen ditu:


- Natura intereseko guneak. Natura Sarea 2000n aurreikusitako gunez gain (Aizkorri-Aratz etorkizuneko parke naturala bezala) ondo mantendutako haltzadi ekosistemak barnebiltzen dira (Urkuluko errekek) eta Urkuluko urtegiko guneak.
- Interes hidrologikodun guneak. Dagokion LAAPn definituak
- Zuhazti bereziak: Gaztainondoa eta Aretxabaletako pinua
- Interes geologiko-geomorfologikodun guneak: Orkaitzategiko aldapa, Kurutzebarriko aldapa, Degurixako dolina.

Interes geologikodun beste puntu batzuk Andartza-Arenatzako azalera, Leizabalko mozketa eta Andartoko-Arrua guneak dira.

4.1.4. Bioaniztasunean eta paisaian eragina duten jarduerak

Aretxabaletako lurak orotara 29,1 Km² hartzen ditu, gehiena hirigintzarako erabili ezin den lurra.

Lurraren erabileraren banaketa (hektareak) 1996



Iturria: EUSTATen oinarritua

Aretxabaletako laborantza azalerari eta aldatutako laboreei dagokienez, 1999-2004ko garapena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Sailak atxikitako datuetan aurkitzen dugu. Ikus daiteke basoko laborantza eta bazkalekuak direla euren azalera gehien handitu dutenak.

Nekazaritza laboreen azalera 1999-2004.

Laborea	Aldatutako azalera 1.999	Aldatutako azalera 2.004
Douglas izeia	16,53	27,71
Izei gorria		1,81
Laritza	7,87	22,11
Akazia		0,79
Gaztainondoa		0,65
Gereziondoa		0,43
Bazkarako neguko zereala	0,55	
Koniferak	27,53	13,27
Arteak	0,13	0,87
Sastraka espezieak	27,38	16,29
Eukaliptoak		0,20
Hostotsuak	92,75	110,11
Fruta arbolak	1,39	2,54
Pagoa	19,75	50,60
Baratza	1,75	2,02
Bazkarako artoa	0,18	0,13
Kontsumorako artoa		0,40
Intxaurrondoa		0,43
Beste hostotsu batzuk	5,04	4,54
Bazkalekuak	107,87	220,20
Intsignis pinua	427,24	598,20
Larizio pinua	24,19	35,59
Pinuak	157,66	45,78
Berezko zelaia	741,75	558,70

<i>Garaiko landarea</i>		0,80
<i>Bazkarako erremolatxa</i>	0,38	0,38
<i>Haritza</i>	6,10	5,35
<i>Haritz amerikarra</i>	4,60	5,30
<i>Haritz kanduduna</i>	1,64	1,64
<i>Guztira</i>	1.672,24	1.726,87

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Nekazaritzan eta abeltzaintzan ustiatutako lurri dagokienez, 1999an 1.962 Ha. ziren, nekazaritza eta abeltzaintzako 161 ustiapenetan edo baso ustiapenetan banatuta, modu honetan:

Erroldatutako ustiapenak eta azalera guztira 1999

	<i>Ustiapenak</i>	<i>Ha.</i>
<i>Abeltzaintzarekin</i>	63	1.024
<i>Abeltzaintzarik gabe</i>	98	938
<i>Lurrik gabe</i>	-	-
<i>Guztira</i>	161	1.962

Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua

Abeltzaintzari dagokionez, behiak eta ardiak dira nagusi.

Abeltzaintza: 1999

	<i>1999</i>	
	<i>Ustiapen kopurua</i>	<i>Buru kopurua</i>
<i>Behiak</i>	45	673
<i>Ardiak</i>	23	1.321
<i>Ahuntzak</i>	2	21
<i>Zerriak</i>	11	20
<i>Zaldiak</i>	13	41
<i>Hegaztiak</i>	57	1.000
<i>Untxi amak</i>	25	134


Iturria: EUSTATen datuetan oinarritua

Abeltzaintzan dabilzan gehienek nekazaritza ustiapenak ere badituzte, edo etxerako abere multzo txikiak dira, baserriko ekonomiaren osagarri.

Baso probetxua

Zuhaitzdun baso azalerari dagokionez, 1996an 1.381 Ha. ziren Aretxabaletan. Horietako 926 Ha. koniferenak ziren eta 455 Ha. hostodunenak honako banaketarekin:

Espezien araberako zuhaitzdun basoen azalera (hektareak) 1996



Iurria: EUSTATen datuetan oinarritua

Aipagarria da 1996an azaleraren %67,5a koniferei zegokiela, mantenu lan gutxi dakarten eta agudo hazten diren espezieak. Hostotsuei zuzendutako azalera, berriz, %32,5koa zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Ingurunearen Garapenerako Sailaren datuen arabera, Aretxabaletako mendi pribatuetan egindako baso husteek 2000-2004 garaian 94,63 Ha.-ko eta 22.075,78 m³-ko neurria izan zuten. Azpimarratzekoa da baso probetxuaren guztitik %50a “matarrasa” eran garbitu dela basoa.

Mendi pribatuetan egindako baso husteak (2000-2004)

<i>Urtea</i>	<i>Espeziea</i>	<i>Mozketa</i>	<i>Ha.</i>	<i>M³</i>
2000	Intsignis pinua	Bakanketa	4,72	109,32
	Intsignis pinua	Matarrasa/Soilketa	3,7	2.010,52
Guztira			8,42	2.119,84
2001	Douglas izeia	Bakanketa	0,17	1,77
	Intsignis pinua	Bakanketa	11,77	288,58
	Intsignis pinua	Matarrasa/Soilketa	3,35	1.590,65
Guztira			15,29	1.881
2002	Laritz	Bakanketa	1,07	9,36
	Intsignis pinua	Bakanketa	1,61	37
	Intsignis pinua	Matarrasa/Soilketa	13,23	4.235,89
Total			15,91	4.282,25
2003	Alertzea	Matarrasa/Soilketa	0,18	41,68
	Douglas izeia	Entresaca/Bakanketa	0,59	19,4
	Intsignis pinua	Entresaca/Bakanketa	15,51	335,17
	Intsignis pinua	Matarrasa/Soilketa	25,27	11.998,6
Total			41,55	12.394,85
2004	Intsignis pinua	Entresaca/Bakanketa	10,02	522,89
	Intsignis pinua	Matarrasa/Soilketa	2,17	814,71
	Larizio pinua	Entresaca/Bakanketa	0,92	11,29
	Pagoa	Matarrasa/Soilketa	0,35	48,95
Total			13,46	1.397,84
Total			94,63	22.075,78

Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, honakoak izan ziren 1994-2004. urteen artean zurezko baso probetxuak:

Baso husteak mendi publikoetan (1994 -2004)

<i>Esleitze data</i>	<i>Espeziea</i>	<i>M³</i>	<i>Ha.</i>	<i>Mota</i>
----------------------	-----------------	----------------------	------------	-------------

20-11-97	Intsignis pinua	4.752,00	15,39	Matarrasa
30-04-98	Intsignis pinua	5.234,00	18,26	Matarrasa

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuetan oinarritua

Baso suteak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurune Naturaleko Sailaren arabera, hauek dira 1999ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean sutea izan duten mendiak:

Sutea izan duten mendiak arrazoiaren arabera (1999-1-1 /2003-12-31)

Sute kopurua	Arrazoiak				Azalera Ha.		
	Arduragabekeria	Beste arrazoi batzuk	Nahita eragindakoak	Ezezaguna	Zuhaiztia	Ez zuhaiztia	Guztira
9	7	0	0	2	16,70	40,20	62,90

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Naturaleko Saila.

Erauzteak

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren arabera, ez dago mehatzerik martxan. Bi ustiapen daude udalerrian erabiltzen ez direnak:

Aretxabaletan bertan behera utzitako erauzte ustiapenak

Materiala	Aktibitate mota	UTM (X)	UTM (Y)
Arrezife kareharria	H	534125	4762150
Arrezife kareharria	H	540625	4766100

Aktibitate mota: Itxi gabeko ustiapenak (normalean harrobiak)

4.2. Lurralde antolamendu eta planifikazioa

4.2.1. Lurralde Antolaketarako Arauak eta Lurraldearen Zatikako Plana

Baldintzatzaille geografiko eta historikoak

Aretxabaleta, Deba ibaiak sortzen duen Leintz bailaran dago, horrek baldintzatu egiten ditu giza kokalekuak eta horien egitura morfologikoa, bai udalerrian eta baita eskualdeko zatirik handienean ere.

Hauek dira Aretxabaletaren erreferentzia elementu nagusiak:

- Deba ibaiak sortutako bailara, hirigunea eta komunikazio azpiegitura eta hiri kokaleku gehienak biltzen dituena.
- Mendebaldeko muinoak, landa gune kokaleku txikiak dituztenak (Isurieta, Apotzaga-Etxebarri eta Galartza), baso landatzeak eta zelai txikiak.
- Ekialdeko muinoak eta Aizkorriko irteerak; landazabalek, laborantzak eta zelaiek osatutako paisaian dauden landa kokaleku txikiak (Oro, Bolinaga, Arkarazo, Larriño, Aozaratza eta Goronaeta).
- Zehar-aranak, Galartza mendebaldean eta Bainatxe ekialdean.
- Aizkorriko mendigunea, mendi zelaiekin eta kareharri karstiko paisaiaduna. Ia ez da

inor bizi bertan, baina abeltzaintza eta baso jarduera ditu.

Historikoki, Aretxabaletako lehen datuek Leintz Bailarako mankomunitatearekin lotzen dute herria, Leintz Gatzagatik Arrasatera doa bailararekin. Urteak pasatu ahala mankomunitatea bereizi egin zen, 1260an Arrasate bereizi zen eta 1331n Leintz Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaleta soilik geratu ziren mankomunitatean. Bi udalerriak bat eginda egon ziren 1630eko urtarrilaren 31 arte, urte horretan Felipe IV.-k aitortu zuen bereiztea. Aretxabaleta osatuko dute hortik aurrera Aozaratzak, Arkarazok, Areantzak, Bedoñak, Galartzak, Goroetak, Isurietak eta Larrinok.

Badirudi lehen kokalekua hilerrian izan zela, Bedarretako Mikel Deunaren eliza zegoen tokian. Pentsatzen da eliza horren inguruan zeudela lehen biztanleriaren eraikuntzak. Kosta goi-ordokiarekin lotzen zuen bideak zehaztutako kokapena dela dirudi.

XVI. mendean eraikuntza dentsitatea garrantzitsua zen, hirigunea errege-bidearen bi alboetara zabaldu zen jadanik, eta kokalekuak ohiko hiri linealen itxura hartu zuen.

Nahiz eta Erdi Arotik, jada, baziren artisautza instalazioak, Aretxabaletako garapen industrialak XX. mende hasieran izan zen, sarrailagintzan eta pospologintzan. Gune turistiko garrantzitsu ere bihurtu zen bi bainuetxe ireki zituztenean.

Mende honen hasieran menpeko elizaurre asko zituen gune administratiboa zuen Aretxabaletak. Hirigunea bi kaletan antolatzen zen: Otorara (Eskoriatzara begira) eta Durana (Leintz-Gatzagara begira). Biek bat egiten zuten elizan eta parean zuen plazan, harri oneko eraikinekin eta oinarri nobleko jauregi batzuekin. Bere inguruan labore baratzak eta abeltzaintzarako zelaiak zabaltzen ziren.

Baina, 60ko hamarkadatik aurrera industria eta hiri zabalpen handia bizi izan zuen herriak. Hirigune tradizionala mantendu zen arren, biztanleria hazi egin zen, hainbat zabalguneginez eta bailarako behe aldea okupatuz. Hirigune historikoak ere izan zituen berrikuntzak, Herriko Plaza izan zen proiekturik esanguratsuenak.

Euskal Herriko LAAen aurreikuspenak

Euskal Hiriburuen Sistema Polinuklearraren baitan (EHSP) eta Lurraldearen Antolaketarako Arauetan (Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, 97/2/12an EAO-n argitaratuak) Autonomia Erkidegoan egituratzen dituzten jardute eremuetan Eskoriatza Arrasate-Bergara edo Debagoieneko jardute eremuan ageri da, Arrasate da ardatz nagusia eta Bergara bigarrena. Jardute eremu horrek Debagoieneko eskualdea hartzen du honako udalerriak barnebilduz: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati Gipuzkoan, eta Aramaio Araban.

Erkidegoko jardute eremu bakarra da biztanlerian jaitsiera bizi duena 1981etik. Azpimarragarria da Autonomia Erkidegoaren erdigunean betetzen duen kokagune

estrategikoa. Horrek beste jardute eremuen arteko interkonexio izaera esleitzen dio eta hiru hiriburuetatik antzeko distantziara kokatzen dute, bereziki Gasteiz eta Donostia arteko erlazioan. Horrek hainbat aurreikuspen baldintzatzen ditu, batez ere, garraio azpiegitura handiei dagozkienak.

Aretxabaleta, Arrasate eta EHSPko errepidezko oinarrizko interkonexioen erdigunetik gertu dago, lotura zuzena du Gasteizekin eta zeharkakoa Donostiarekin (Arrasate eta Eibartik) eta Bilborekin (Arrasate eta Durangotik). Eragiten dioten aurreikuspen zehatzetan hauek azpimarratu behar ditugu:

- Oinarrizko interkonexioak: Donostia-Gasteiz autobidean erabat barneratua, Deba bailaratik. Bi hiriburuen arteko lotura eskasa dela eta, bailara goi-ordokiarekin eta mugarekin komunikatzea ditu proiektuak xede.
- Jardute eremuen interkonexioak: Durango-Beasain ardatzetik gertu dago, eragiten dien jardute eremuen arteko komunikazioa indartu nahi ditu.
- Trenbide sareari dagokionez, Eskoriatza, Ibilbide Luzeko Oinarrizko ardatzeko AHT bidezko “Y-aren” ibilbideak zeharkatzen du.
- Eraberritze urbanistikoari dagokionez, erdigune historikoa aintzat hartzeak eta Eskoriatzarekin planteamendua bateragarri egiteko gomendioak soilik eragiten diote.
- Azkenik, udalerriko hegoaldea Aizkorriko aisialdi gunean kokatzen da.
- Aisialdirako gertu dauden beste gune batzuk Urkiola eta Urrunaga dira, lurralderako sarrera gune nagusia Aramaio, Leintz-Gatzaga eta Oñati dira.

Debagoieneko LZPko aurreikuspenak

Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati barnebiltzen dituen Arrasate-Bergara edo Debagoieneko jardute eremuko Lurraldearen Zatikako Planaren barruan dago Aretxabaleta.

LZPa 2003ko urtarrilaren 14an onartu zen lehen aldiz. Eta 2004ko uztailaren 27an onartu zen behin behingoz. 87/2005 dekretuaren bidez onartu zen apirilaren 12an behin betiko.

LZParen helburua da 16 urteko tartearekin nahikoa jardute tamaina hartzea, lurraldearen mugapen fisikoa gaindituz eta lurraldean eragina duten ekintzak koordinatuz.

Hauek dira memorian biltzen diren helburu nagusienak:

- Bertako emigrazioaren arriskuaren aurrean, lurralde identitatearen beharra nabarmentzen da, espazio baten gizarte berri bat sortzeko gai izango dena, leku “berri” bat.
- Oinarrizko interkonexioetan aurreikusitako harreman sistemaren egituraketa burura eramatea (Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango autobia), eskualdeko interkonexioen hobetzearekin (lehen mailako sarea). Horrekin batera, garraio publiko

egokia ezarri eta beharrezko izango dituen azpiegiturak egitea (aparkalekuak, garraio gunea, autobus geltokia,...)

- Beharrezkoak diren bitartekoak garatu 16 urteko epean 70.000 biztanleriako potentziala izateko, kanpoko biztanleria erakartzeko elementu sozialak sortuz.
- Aurreikusitako biztanleriarentzat egokia izango den etxebizitza politika garatzea, salneurri tasatuko etxebizitza eskaintza bermatuz bere forma guztietan.
- Zonaldeko ekinbide ekonomiko tradizionalen garapen iraunkorra indartu, industriaren birmoldatzea eta hirugarren sektoreko alternatibak babestuz handitzeko joera duten instalazioen kaltetan.
- Egungo hezkuntza inizatibak osatu (Mondragon Unibertsitatea) olgetarako eta erakarpen sozial handiko ekipamenduekin.

Proposatutako Lurralde Ereduari dagokionez, honako aurreikuspen orokor hauek daude:

1.- Ingurune Fisikoan, balio ekologikoen, produktiboen, paisaiakoen eta zientifiko eta kultural edo ekonomikoen, eta bitarteko naturalen ustiapen zentzudunaren kontserbazio estrategia zehazten da.

Interes naturaleko guneen lau kategoria zehazten dira:

- Babestutako Ingurune Naturalak: Aizkorri-Aratz
- Zuhaitz bereziak: Aretxabaletako Gaztainondoa eta Pinua.
- Natura aldetik interesa duten guneak: Ez dago erreferentziarik.
- Beste interesgune batzuk: Deba ibaiko haltzadiak eta Urkuluko urtegiko arroa.

Nekazal intereseko eta interes hidrologiakoa duten guneak jasotzen dira dagokien Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planaren arabera.

Interes geologikoa eta morfologikoa duten gune gisa zehazten dira honakoak:

- 1) Kurtzebarriko aldapa (Eskoriatza – Aretxabaleta)
- 2) Orkatzategiko aldapa (Aretxabaleta – Oñati)
- 3) Degurixako Dolina (Eskoriatza – Aretxabaleta)

2.- Azpiegiturei dagokienez honako aurreikuspen hauek jasotzen dira:

- Tren bidezko garraiorako gune logistikoa Epelen, Elorregiko interkonektatzailea eta errepide bidezko garraio gune bat Elkoromuino-Ipiñarrin.
- Lau lotura dituen (Bergara Amillaga-iparraldea, Bergara Zaldumendi-hegoaldea, Arrasate-Epele eta Eskoriatza-San Bernabe) Eibar-Gasteiz autobidea eta bost lotura dituen (Antzuola ekialdea eta mendebaldea, Bergara hegoaldea, Arrasate iparraldea eta

Kanpazar) Beasain-Durango autobia barnebiltzen dituen Autobide eta Autobia Sare Orokorra.

- Hobekuntzak lehen mailako, osagarri diren eta bertakoak diren errepideen sarean.
- Trenbide sareak, LAAPko aurreikuspenez gain, (AHTren ibilbidea) tranbia proiektua aurreikusten du. Gainera, honen luzapena proposatzen da Telleriarteraino (Legazpi) RENFE-Aldirikoekin bat egiteko, Elorregiko Geltoki Intermodala eta honen errepide zerbitzua Leintz Gatzagarekin, Elgetarekin, Antzuolarekin, Aramaiorekin eta Arantzazurekin lotzea.
- Hondakinen trataerari dagokionez, RU transferentzia estazioa Akeien (Arrasate) mantentzea proposatzen da, RP transferentzia estazio berri bat sortzea Epelen (Bergara), Epeleko Inerteen zaborteia mantentzea, egungo DAR-ei (Ibarreta-Arrasate, Urrutxu-Oñati eta San Kristobal-Bergara) beste bat gehitzea Esteibarren (Eskoriatza) eta baso hondakinen Balorazio Planta bat sortzea Epelen (Bergaran) edo eraldaketa lurretan (zaborteiak, harrobiak).
- Elgeako Parke eolikoa mugatzen du, dagokion LAAPrekin
- Urkuluko egungo urtegia handitzea proposatzen du eta Hondakin Uren Araztegiak Epelen eta Mekolalden jartzen ditu.

3.- Ekipamenduei dagokienez Ikasbide Zentroa bakarrik aipatzen da ekipamendu unibertsitarioen barnean.

4.- Kokaleku Sistemen Barruan, Birgaitze Integratuko Interbentzioak aurreikusten dira hirigune historikoan eta eraldaketa urbanoko Interbentzioak Beroa-zerrategian (Aretxabaleta).

5.- Bizitegitarako lurren aurreikuspena kuantifikatzeko, LAAen irizpideei jarraiki 9.536 etxebizitza berri aurreikusten dira (hauetatik 2.510 Babes Ofizialekoak). Honakoa da horien banaketa:

AZPIESKUALDEA	Udalerria	Aurreikusitako Etxebizitzak	Babestutako etxebizitzak
LEINTZ		4.427	1.210
	ARRASATE	2.514	750
	ARETXABAleta	922	620
	ESKORIATZA	618	150
	LEINTZ GATZAGA	83	20
	ARAMAIO	290	70

Dentsitate altuko bizitegien garapenerako, Beroa zerrategiko eraldaketa urbanoa eta Etxebarri inguruko garapen berriak jasotzen dira. Ez dago dentsitate ertaineko eta baxuko proposamenik.

6.- Aktibitate Ekonomikoentzako lurzoruari dagokionez, ez dago eskualde mailako jardueren aurreikuspenik. “Lehenetsitako interesa” duen udalerrri gisa definitzen da. Abiapuntua 33,28 Ha. kalifikatu dira, horietako 18,55 okupatuta daude eta 14,73 libre. Ez da lurzoru gehiagoren

kalifikazioa proposatzen.

4.2.2. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana

Behin betiko onartutako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planei dagokienez, gutxi dira Aretxabaletako udalerriarentzat egindako aurreikuspen zehatzak. Garrantzitsuenak aipatuko ditugu jarraian:

- Ibaien eta Erreken ertzak antolatzeko Antolaketa Plana -. Kantauriar isurialdea (Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak onartua). Deba ibaiaren eta bere isurkideen inguruan babes arau orokorrak aurreikusten dira.
- EAEko Errepideen Plan Orokorra (355/1992 dekretuak onartua). Diagnostiko horren beste kapitulu batean garatzen dira aurreikuspenak.
- EAEko Trenbide Sarearen Plana (otsailaren 27ko 41/2001 dekretuak onartua). Udalerria zeharkatzen duen Abiadura Handiko Trenari dagozkion aurreikuspenak jasotzen ditu.
- Energia Eolikoari dagokion LAAP (maiatzaren 14ko 104/2002 dekretuak onartua). Elgeako mendizerrako parke eolikoa hartzen du bere baitan, gaur egun eraikita dagoena eta Aretxabaletako hegoaldeko zati bat hartzen duena, beste udalerrri batzuen artean.
- Hezeguneen Antolaketa Plana (uztailaren 27ko 160/2004 dekretuak onartua). Aretxabaletako Urkuluko urtegia barnebiltzen du, hezegune artifizial gisa eta babes aurreikuspen zehatzekin.
- Jarduera ekonomiko eta Merkatal Ekipamenduentzako Lurzoru Plana (abenduaren 21eko 262/2004 dekretuak onartua).

Udalerriari eragiten dioten ingurune naturalaren babeserako plan bereziak

Udalaz gaindiko izaera duten ingurune naturalaren babeserako plan berezietan, badira Aretxabaletari eragiten dioten aurreikuspen zehatzak eta aurrez aipatu ditugunak.

Azpimarratu behar da Hezeguneen LZPko aurreikuspenean Aretxabaletako Urkuluko urtegia barnebiltzen dela. Antolaketa kategoria “Lurzoruko uren babesa” da, inguruan (200m. urek handitzean hartzen dituzten ohiko neurrietatik abiatutako neurketan) erabiltzeko mugarekin.

Gainera, LAA-ek Aizkorriren babesa aurreikusten zuten, Parke Naturala izendatzeko adierazpenaren arabera garatzeko zain. Horren Bitarteko Naturalen Antolaketa Planak, udalerrriaren zati handi bati eragingo dio, Urkuluko urtegiaren ingurutik udalerrriaren hegoaldeko mugaraino.

4.3. Hirigintza Egitura eta Planeamendua

Aretxabaletako udalerriak 2.626 Ha. hartzen ditu orotara. Gehiena landa lurra edo urbanizatzerik ez dagoena da, hiriguneak Deba ibaiaren bailararen amaieran pilatzen dira, guztira 84 Ha. inguru hartuz.

Landa lurzoruan bizidun gune txikiak daude eta ia udalerrri guztian zabaltzen dira:

- Iparraldean, Aramaio eta Arrasaterekin mugan, Galartza eta Isurieta
- Mendebaldean, Etxebarri
- Ekialdean, Oro, Larrino eta Aozaratza. Azken hori Urkuluko urtegiaren alboan.
- Hegoaldean, Arkarazo eta Bolinaga; Eskoriatza, Areatza eta Goroetarekin mugan, Urkuluko ertzean hauek ere.

Hegoalderako, udalerrria Elgeako mendizerrarantz eta Aizkorrirantz zabaltzen da.

Hirigunean biltzen da biztanleriaren eta jarduera industrialaren, merkataritzaren eta zerbitzuen zati handiena, biztanleria dentsitate garrantzitsuarekin. Lurralde erabilgarriaren okupazioa oso altua da, gainera, hutsik dauden lurrek Eibar-Gasteiz autobiararen eta komunikazio azpiegituren baldintzapean daude. Aldapa gutxiko zonaldetan dauden lurraldetan hiri garapenerako aukerak daude.

Gainontzeko lurraldea baso jarduerarako dago, eta neurri txikiagoan abeltzaintzarako eta nekazaritzarako, nahiz eta gehienez ekonomia osagarria diren. Eraikuntza sakabanatuta dago eta biztanleria dentsitatea baxua da.

Planeamendurako Arau Subsidiarioen analisia

Aretxabaletan indarrean dauden hiri planeamendurako Arau Subsidiarioak 2001eko maiatzaren 21ean onartu ziren behin betiko eta b) motakoak dira. Arau horiek, 1984koak ordezkatzeko egin ziren.

Indarrean jarri zirenetik honako moldaketa hauek izan dituzte: 3 eta 2 guneei dagokiena (behin betiko onarpena 03/10/16) eta 2b sektoreari eta 16 eta 20d guneei dagokiena (hasierako onarpena 03/11/28).

Arau Subsidiarioen helburu eta ezaugarri orokorrak

Arau subsidiarioak egungo eredia onartzetik abiatzen dira, behar eta baldintza berriei egokitu arren. Azken urteetan onartu diren lurraren izaeraren inguruko arauak eta lurralde antolamendurako tresnak ere kontuan izan dira.

Honako helburu eta ezaugarri orokorretako batzuk dagozkie:

- Lurralde egitura. Hirigune bat eta biztanleria gune txikiak dituen landatar lurraldeetan oinarritutako egitura mantentzen du. Baita errepide egitura ere, berrikuntza bakarra Debako korridorea izango da.
- Lurraren sailkapena. Legediari moldatzeko lana aurreikusten da. Hiriguneen ertzeko Sistema Orokorrak urbanizatzerik ez dagoen lur gisa zehazten dira. Lurzoru mota horrek gainera, urbanizatzerik ez dagoen Lurzoru babestua jasotzen du, ohikoa eta Landaguneko azpiklase espezifikoa.
- Urbanizatzerik ez dagoen lurra. Erabilpen murriztuak proposatzen ditu, ingurune horren

berezkoa. Nekazal balioko eta interes naturaleko guneen babesa zehazten du bereziki.

- Errepideak eta konexioak. Iparraldetik hegoaldeko noranzkoan hirigunearen jarraipena bultzatuko duen apustua egiten du, trafikoa hirigunean pilatu ez dadin. Deba ibaia hiri egitura lotzeko bitarteko gisa zehazten da eta balio natural eta paisajistiko berezia esleitzen zaio.
- Erabilpenen banaketa. Hirigunea industria trinkoaren erabilpenez hustea zehazten du, eta bereziki, jarraikortasun fisiko eta egiturazkoa lurralde fisikoari lotutako hazkunde lineala eraginez eta eraikuntza “irlak” saihestuz.
- Hirigune erabilpeneko intentsitateak. Helburu nagusienak dira eraikuntza aukerak agortzea saihestea eta lurzoru industrialaren eskaintza areagotzea.
- Eskoriatzarekin gai komunak direnak bateragarri egiteko koordinatzea: Deba ibaiaren arroa, Ederlango plantak eta horren errepide sarrerak eta ALMEN eskola multzokoa.

Lurzoruaren izaera

Aretxabaletako lurren azalera guztira 2.626 Ha. da, Arau Subsidiarioen zifren arabera. Horietako 2.541,85 Ha. urbanizatzerik ez dagoen lurzorua da, 61,71 Ha. hiriguneko lurrak dira eta 22,44 Ha urbaniza daitezkeen lurzorua da.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, hirigune nagusia eta landa lurraldearen arteko bereizketa argia mantentzeko apustua zehazten da, kokaleku sakabanatuak ekidin nahirik.

Lurraldea, nagusiki, bailararen (errepideen korridoreak eta hirigune pilatua) eta biztanleria gune txikiagoen arteko harremanetan egituratzen da.

Honako hauek dira Arau Subsidiarioen aldaketa nagusiak:

- Urbaniza daitezkeen lurrak izatetik hiri lur izatera pasatu diren lurzoru batzuen moldaketa.
- Urbanizatzerik ez egotetik urbanizatzea egotera aldatzeko proposamena, 3 sektore industrialetara eta bizitegi batera murrizten dira.

Helburua da, hiri lurrak eta urbaniza daitezkeen lurrak bailararen amaieran pilatzea, hirigune jarraitua osatuz, arrazoi ezberdinengatik bi gune industrial txiki bereizten dira.

2 gune industrial bizitegi bihurtzea ere planteatzen da.

Hiri lurren eta urbaniza daitezkeen lurren erabilera orokorren taula (m2)

	<i>Abiapuntua</i>	<i>Hazkunde aurreikuspena</i>	<i>Aurreikusitako egoera</i>
<i>Bizitegi-zorua</i>	270.580	120.620	391.200
<i>Industrialak</i>	231.600	87.000	318.600
<i>Parkeen sistema orokorra</i>	16.700	33.000	49.700
<i>Eskola ekipamendua</i>	23.100	9.000	32.100
<i>Kirol ekipamendua</i>	30.800	4.100	32.400

Beste ekipamendu sozial batzuk	7.865	3.720	11.585
---------------------------------------	-------	-------	--------

Iturria: Aretxabaletako Hiri planeamendurako Arau Subsidiarioak.

Etxebizitza eta bizitegitarako lurzorua

1984ko arau subsidiarioen aurreikuspenak 2.300 etxebizitza zehazten zituen. 1.996an zenbakia gainditu egin zen, 2.339 etxebizitza baitzeuden.

1998an 2.394 etxebizitza zeuden orotara; horietako 2.249 bizitegitarako lurzoruan zeuden eta 145 landa lurretan. Etxe hutsak 383 (%15a) zirela uste zen eta horietako 36 landa lurretan ziren.

Arau subsidiarioek lau kategoriatan banatzen dute bizitegi-lurzorua:

- Hirigune zaharreko bizitegiak. Birgaitze Plan Berezi batek arautzen du, gune berezia da inguruneagatik eta dituen balio historiko eta kulturalengatik.
- Bizitegi mistoa. Historikoki lehenak izan ziren. Bizitokiak eta hiri erabilpenak nahasten dituzten eraikinak dira, nagusiki azpisolairuetan. Bizitegi irekien antza handiagoa duten eraikuntza batzuk ere gehitzen dira. Horiek erdigunean daude eta erabilera bat baino gehiago dituzte.
- Bizitegi irekiak. Eraikuntza arrazionalista edo antzekoa dute, hirigunetik gertu ez dauden auzoetan daude eta erabilera bakar batzuk baino ez dituzte.
- Intentsitate baxuko bizitegiak. Lorategiak dituzten familia bakarreko edo bikoitzeko etxebizitza bakanak.

Arau subsidiarioetako aurreikuspenek, 640 etxebizitza berri eta zahar ordezkaturako lituzketen beste 23 jasotzen zituzten. Aurreikuspen horiek gehieneko eskaintzari lotzen zaizkio, LAA-n arabera, 2006rako espero den 6.293ko biztanleriarako. Gutxi gorabehera horien erdiak hiriguneko lurlean ezartzen dira, bizitegitarako egokia den lurlean ezarriz, 310 etxebizitza lurzoru irekian eta 32 dentsitate baxukoak.

Bizitegitarako lurzorua eta etxebizitza

<i>Lurzorua</i>	<i>Egoera 1.998 Etxebizitza kopurua (m2)</i>	<i>Arau subsidiarioen aurreikuspenak etxebizitza berrietarako (*)</i>
<i>Hirigune historikoa</i>	240 (40.946)	--
<i>Mistoa</i>	821 (85.350)	260
<i>Irekia</i>	1.152 (125.000)	348
<i>Dentsitate baxukoa</i>	36 (17.200)	32
<i>Guztira</i>	2.249 (268.496)	640 (120.620)

Iturria: Aretxabaletako Hirigintza Planeamendurako arau subsidiarioak

(*) Ez dira barnebiltzen zaharrak ordezkatzeko etxebizitzak

Etxebizitzaren arazoari dagokionez, Debagoiena Udaltalde 21 lan taldearen lanen baitan egindako udal iraunkortasunaren problematikaren inkestako emaitzen arabera, Aretxabaletako biztanleriak uste du etxebizitzarako sarrera, kalitatea eta salneurria dela udalerriko eta eskualdeko arazorik garrantzitsuena.

Jarduera ekonomikorako lurzorua

Aretxabaleta tradizionalki industria garapen garrantzitsua izan duen udalerrria izan da. Arau subsidiarioen lanketan industria erabilpenerako lurzoru berria sortzea baloratzen zuen. Horrekin gaur egun dagoen mota honetako eskaintza txikia (15.000 m² Bainetxeko 33 sektorean eta 5.000 m² gehiago EDERLAN izango denerako) osatu nahi zen. Gainera, eskaintza txiki horri gehitu behar zaio bi industria gune bizitegitarako gune bihurtu direla Hiri Antolamendu Orokorraren estrategiaren mesedetan.

Horrela, arau subsidiarioek 4 gune berri proposatzen dituzte industria erabilpenerako, bizitegitarako lurretan garatu beharrekoak. Guztira 87.000 m² dira, horietako 25.600 m² okupatutako lurtekoak izango dira eta banaketa honekin:

* 1a Sektorea	20.000 m ²	6.500 m ² okupatu
* 1b Sektorea	43.000 m ²	14.300 m ² okupatu
* 34 Sektorea	14.000 m ²	2.800 m ² okupatu
* 36 Sektorea	10.000 m ²	2.000 m ² okupatu

Horietako bi eremu Arrasateko errepidearen babesarekin kokatzen dira udalerrriaren iparraldeko muga. Besteek, dentsitate baxukoek, Galartza eta Isurieta arteko zatia hartuko lukete.

Hurrengo taulan arau subsidiarioek erabilpen industrialerako egiten duten lurzoru aurreikuspenak agertzen dira.

Industria erabilpenerako lurzorua

<i>Lurraren izaera</i>	<i>Azalera orotara (m²)</i>	<i>Okupatutako azalera (m²)</i>
<i>Hirigune trinkotua</i>	132.500	65.200
<i>Garapen fasean dagoen hirigunea</i>	52.100	33.000
<i>Garapen fasean dagoen urbanizagarria</i>	47.000	15.000
<i>Garatzeke dagoen urbanizagarria</i>	87.000	25.600
<i>Guztira</i>	318.600 (31,86 Ha.)	138.800 (13,88 Ha.)

Iturria: Aretxabaletako Hirigintza Planeamendurako arau subsidiarioak

Ekipamenduak eta zerbitzuak

Aretxabaletak ekipamenduen maila onargarria du, nahiz eta arau subsidiarioetan horiei

zuzendutako lurzorua areagotzea jaso, batez ere, eskolarako izango zirenei.

Ekipamendu sozialei eskainitako lurzorua

<i>Ekipamenduak</i>	<i>Egun dagoen lurzorua(m2)</i>	<i>Aurreikusitako hazkundera (m2)</i>
<i>Eskola ekipamendua</i>	23.100	9.000
<i>Beste ekipamendu batzuk</i>	7.865	3.720
-Publiko instituzionala	-2.170	
-Sozio-kulturala	-2.855	
-Beste ekipamendu sozial batzuk	-2.000	
-Erlijosoa (hirigunekoa)	-840	
<i>Kirol ekipamendua</i>	30.800	4.100

Iturria: Aretxabaletako Hirigintza Planeamendurako arau subsidiarioak

Ez dago merkataritza ekipamendu zehatzik, horren ordez hiriguneko denda txikiak eta Arrasaten dagoen merkatalgunea daude.

Gainera, etorkizuneko Eibar-Gasteiz autobidearen ipar-ekialdean dagoen gunean, 90.000 m2 aurreikusten dira ekipamendu soziokulturalentzat (aisialdia, kirolak...) eskualde mailan.

Zerbitzuen azpiegiturei dagokienez, hauek dira arau subsidiarioen proposamen nagusiak:

- Ur hornikuntza. Sare orokorrean hobekuntzak proposatzen dira eta baita Goroeta eta Arkarazo-Bolinaga landa auzoetan ere.
- Saneamendua. Hodi biltzaile orokorra, hiriguneko bilgunea iparraldetik hegoaldera zeharkatuko duena urak San Prudentzioko EDAR-era eramateko. Erreteneko uren berreskurapena. Landa auzoentzako bederatzi saneamendu unitate garatzea.
- Gas naturala. Aizkorri zeharkatzen duen hornikuntzako ardatz nagusiaz gain hirigunerako aurreikusitako sarea ere bada.
- Hondakin solidoak. Eskualdeko tratamendua dute eta ez da aurreikusten azpiegitaririk.

Hurrengo kapituluetan aztertuko ditugu zerbitzuetarako hainbat azpiegituren garapen maila.

Zonalde berdeak eta espazio irekiak

Espazio irekien eta zonalde berdeen sistema orokorra nahiko murrizta da, ohiko gutxienekoa (5m2/biztanleko) ez da betetzen. Arau subsidiarioek esfortzu garrantzitsua proposatzen dute arlo horretan, egoera orekatu eta hobetzeko asmoz.

Herri Sistemetan irekitako espazioak 27.500 m2 ziren orotara, 11,5 m2/etxebizitzako, kokaleku berrietarako proposatutako 18m2/etxebizitzako modulutik urruti. Honakoa zen banaketa:

- * Lorategiak eta plazak 11.000 m2
- * Haur jolasak 16.500 m2

Parkeen Sistema Orokorrari dagokionez, 16.700 m² barneratzen zituen orotara, 2,7 m²/biztanleko ratioarekin eta honako eremuak barnebiltzen zituen:

* 19 Area 12.500 m²

* Hego Pasealekua (71 area) 4.200 m²

Gabezia hori, zeharka, espazio batzuen kalitateak, pasealeku batzuek eta ingurune natural aberatsek orekatu badezakete ere, arau subsidiarioek 33.000 m² aurreikusten dituzte hiriguneko lurzorua mugan Porrukotxara parkea egiteko. Horrek nabarmen igoko luke ratioa eta 5,43 m²/biztanleko tasan jarriko litzateke (aurreikusten diren 9.150 biztanlerentzat, kopuru hori da arau subsidiarioen proposameneko ahalmen handiena).

Errepide sarea

Errepide sareari dagokionez, honako hauek dira arau subsidiarioen aurreikuspen nagusienak:

- a) Urbina-Maltzaga edo Gasteiz-Eibar autobia. Aretxabaletarekin duen lotura Eskoriatzan zehazten da, EDERLANen hegoaldera. Eragin erlatiboa du hiriguneeekin. Isurieta eta Apotzagarako bideak moldatzea ere eragiten du horrek, baina, neurri handi batean, behinik behin, tunelak salbatzen ditu bi auzo horiek.
- b) Hiriarteko loturak. Sarrerako hiru errepideen arteko loturen mugimendu batzuk konpontzearekin lotuta daude kontu nagusienak: Arrasate (iparraldera), Eskoriatza (hegoaldera) eta Aramaio (mendebaldera).

Aurrez aipatzen genuen moduan, ezaugarri eta helburu orokorren baitan egungo errepide egitura mantentzearen beharra nabarmentzen da, egungo landa bideak mantenduz eta landa lurraldeari eragingo dioten errepide berriak eraikitzea ekidinez, bereziki, Aozaratza-Urkulu eta Aizkorriko pista babestuetan.

Urbanizatzerik ez dagoen lurzorua

Urbanizatzerik ez dagoen lurzorua da nagusi Aretxabaletako udalerrian, guztira gutxi gorabehera 2.542 Ha. dira (Udalerriko guztiaren, 2.626, %97a). Baditu landa izaerako kokaleku eta gunek txikiak eta orotara 145 etxebizitza ditu.

Arau subsidiarioetan landa eta natur ingurunearen babeserako irizpide eta arauak barneratzea proposatzen da, honako sistema eta elementuenak:

- Bertako basoa
- Mendiko bazkalekuak
- Geomorfologia eta paisaia elementuak
- Lurazaleko urak (urtegia eta euri arroak)
- Basoen eta nekazaritza eta abeltzaintzarako balioak
- Landatar kokalekuen balioak

Horretarako, arau subsidiarioek lur mota hauetan egin beharrekoak arautzen dituzte, hiru lur

mota eta kategoria nagusi ezartzen dituzte:

- Lurzoru babestua. Erabilpen muga askorekin, baina, produkzio ekinbide batzuen garapena ahalbidetuz. Hainbat gunetan zatitzen da:
 - Babes bereziko gunek
 - Aizkorriren babes
 - Bertako basoa
 - Kultur interesekoa
 - Lurrazaleko uren babes gunea
- Landatar gunek. Eraikitze aukerarik gabe, etorkizuneko Plan berezia da salbuespena.
- Landatar lurzoru komuna. Landa, nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenerako aukera gehiagorekin.

Ekinbideen arautze zehatzagoari dagokionez, hauek dira aginduak:

- Bizitegitarako eraikuntza guztietarako aukerak ezeztatzen dira; nekazaritzari, abeltzaintzari edo basogintzari loturikoak izan ezik, baina, horietan ere bermeak eskatuko dira. Nekazalturismoa onartzen da.
- Inpaktua ekiditeko asmoz, produkzio ekinbideen eraikuntza aukerek azalera eta baldintza betebeharrak dituzte.
- Instalazio eta ekipamendu publikoentzako aukerak mantentzen dira; horiek, Erabilpen Publikorako diren adierazpena beharko dute eta, behar den kasuetan, Ingurune Inpaktuko Azterketa.
- Urkulu ingurua aisialdirako gune gisa mantentzen da. Hor intentsiboak ez diren ekimenak onartuko dira eta eskualdeko izaera dutenak.
- Elgeako Parke Eolikoaren Plan berezitik eratorritako kalifikazioa barneratzen da, udalerraren hegoaldeko mugan.

Babes bereziko zonaldeak

Aizkorriko mendizerrarako eta Urkuluko urtegirako betebeharrak lehenesten dira; baita atlantikoko baso tradizionalak, kantauriar artadiak, produktibitate oneko lurrak, paisaia karstikoko elementuak, landatar auzoak eta ondare historikoko elementuak.

Aizkorriko mendizerrari dagokionez, bereziki kontuan izan da aurreikusten den Aizkorriko Parke Naturalerako garatu den Baliabide Naturalen Antolamendurako Plana.

Urkuluko urtegiarentzat eta bere inguruarentzat, eskualdeak horretaz egin duen aisialdirako erabilpen tradizionala da abiapuntua, nahiz eta babeserako planteamenduak gehitu eta proposa daitezkeen balizko garapenak mugatu.

Ingurunean eragin berezia duten arau subsidiarioen proposamenak

Natur eta landatar ingurunearen eta urbanizatzerik ez dagoen lurzoruaren gainean egiten den babeserako proposamenez gain, bi dira ingurunean inpaktua eragin dezaketelako zaintza berezia beharko duten arau subsidiarioen proposamenak:

- Aurreikusitako erabilpen industrialerako lurzorua areagotzea, %37 hazten da lur kalifikatua eta %22 berez okupatutako lurzoruan. Ingurune inpaktua, lur horietan garatzen diren ekinbide moten arabera izango da azkenean, nahiz eta arau subsidiarioek, garapen teknologikoa izan baduten produkzio ekinbide garbi eta orotarikoen aldeko apustua egin.
- Urbina-Maltzaga edo Gasteiz-Eibar autobiarren proiektua. Udalez gairik izaera du baina, eragin nabariak izan ditzake (indusketak, inausketak, betetzeak...) urbanizatzerik ez dagoen lurzoruan.

Mugikortasunean eragina izango dute bi proposamenek, trafikoa ugartzea aurreikusten da. Beraz, gomendagarria da gai horri dagokion arreta jartzea, eratorritako inpaktuak ekiditeko: hotsak, kutsadura atmosferikoa, espazio okupazioak...

4.4. Ondare historikoa, arkitektonikoa eta arkeologikoa

Arau subsidiarioek, Interes Kulturalako Ondare Higiezin gisa jasotzen diren elementu eta Multzoen Katalogoa barnebiltzen dute, baita, "Ondare Kulturalaren Babeserako Arauen" arautze zehatza ere.

4.4.1. Ondare Kulturalako ondasun klaseak.

Interes Kulturalako Multzo Arkitektonikoak.

Arexabaletako Antzinako Hirigunea edo hirigune historikoaz gain, arlo horretan barnebiltzen dira Goroeta, Oro eta Galartza; Isurieta, Larrino eta Areantza auzoen zatiak eta Aozaratzako Otalora multzoa. Ondare guzti horiek, Aozaratzako inbentarioa izan ezik, Udal Babeseko Multzo gisa definitzen dira eta horrela proposatzen dira.

Interes Arkeologikoko Ondareak.

Hainbat leitze eta Murugaingo herrixka.

Interes Kulturalako Multzo Arkitektonikoak.

- Aozaratzako Multzoa (Gaur egun inbentariatutako Monumentu Multzoa).

Hauek dira Udal Babeseko Monumentu Multzo Arkitektonikoak:

Arexabaletako Hirigune Historikoaren Multzoa.	Otalorako Multzoa
Goroeta auzoa.....	Oro auzoa.
Galartza auzoa.	Isurieta auzoa
Larrino auzoaren zati bat.	Areantza auzoaren zati bat.

Adierazitako edo Adierazpena abiatutako Interes Arkitektonikoa duten Ondasun Higiezinak edo Eraikinak.

Otalora Jauregi-Etxea.	Arratabe Jauregi-Etxea.
"Humilladero del Santo Cristo y Cruz de Término" delakoa.	Otalora Jauregi-Dorrea (XV. mendea) (Aozaratz).
Galartzako Dorretxea	

Interes Arkitektonikoa duten Monumentuak izendatzeko proposatutako Eraikinak eta Ondasun Higiezinak.

Jasokundeko Santa Mariaren Eliza.
San Millán eliza
San Cristobal eliza.
Santiago eliza.
Ama Birjinaren Sorkundearen eliza.
Palaziokua baserria.
Isurieta-Azpi baserria.
Urkizuene baserria.

Durana Kaleko 11 zenbakidun etxea.
Bedarretako San Migelgo aurriak eta atea
San Pedro eliza.
San Juan Bataiatzailearen eliza.
Santa Luzia Eliza.
Iturralde baserria.
Zaloña Goikoa baserria.
Vergara Jauregi, Resusta y Cía.

2.- Udal babesa jasotzeko proposatutako Interes Arkitektonikoa duten Ondasun Higiezinak eta Eraikinak

Otalora kaleko 9. zenbakidun etxea.
Durana kaleko 38. zenbakiko etxea.
Goroetako Maisuaren etxea
Aozaratzako apaizetxea.
Arkarazo Dorretxea.
Arkarazoko Teresena baserria.
Areantzako Bitarte Azpikoa baserria.
Areantzako Arientza baserria
Goroetako Urtixi baserria.
Galartzako Perurena baserria.
Apotzaga Etxebarriko Kortazar baserria.
Gaikoetxe baserria
Durana kaleko 13. zenbakiko etxea.
Durana kaleko 18. zenbakiko etxea.
Durana kaleko 21. zenbakiko etxea.
Otalora kaleko 3. zenbakiko etxea.
Otalora kaleko 7. zenbakiko etxea.
Kurtzebarriko gurutzea
Aozaratzako Otalora-Azpi baserria.
Areantzako Ardantza baserria.
Murube baserria.

Durana kaleko 17. zenbakiko etxea.
San Blas edo Salluente baseliza
Goroetako apaizetxea.
Areantzako San Vicente baseliza.
Arkarazoko Juanaetxea / Juanatxokua baserria.
Areantzako Bitarte Handikoa baserria.
Intxaurbe baserria.
Goroetako Urisarte / Uxarte baserria.
Galartzako Etxebarri Garai baserria.
Galartzako Goitiko baserria.
Ugastiko Erdikoetxe baserria.
Errotaberri baserria (Hirigunean).
Durana kaleko 15. zenbakiko etxea.
Durana kaleko 19. zenbakiko etxea.
Durana kaleko 23. zenbakiko etxea.
Otalora kaleko 5. zenbakiko etxea.
AZPE Pabilioi Industrialia
Otalazelaiko kanpa
Goroetako Mendikurtza baserria.
Hiriguneko Errotetxe baserria

Presuntzio Arkeologikoko Zonaldeak.

Udalerriko Presuntzio Arkeologikoko Zonaldeak hauek dira:

Gure Amaren Eliza (Antigua).
Ibarralp S. Martín baseliza (ez dago egiturarik ikusgai).
Errotetxe baserria, hirigunean.
Larriñoko San Cristobal eliza.
Aozaratzako San Juan Bataiatzailearen eliza.
Areantzako Ama Birjinaren Sorkundearen Eliza.
Arkarazoko Palaziokua baserri-dorrea. (N)
(Landeta Dorretxea). – AGORTUA-
Isurietako Isurieta baserria
Galartzako Santa Luzia eliza.
Iruaxpe –I leizea.
Uribearruako Leizea –I

Arratabe Jauregi-Etxea. (Egungo Udaletxea).
Bedarretako Mikel Deunaren Tenplua (Udalerria).
Oroko Iturralde baserria.
Otalorako Dorretxea.
Goroetako Santiago eliza.
Murube baserria.
Arkarazoko San Millán baseliza.
Isurietako San Pedro eliza.
Galartzako Zaloña baserria.
Gazteluarro-V leizea.
Iruaxpe –IV leizea.

Inbentariatzeke edo kalifikatzeke dauden Interes Arkeologikoa duten ondasunak.

Gazteluarro leizea
Ugastegi leizea
Murugain herrixka.

Iruaxpe leizea
Ugastegi leizea
Ugastegiko Gune Arkeologikoa eta leize eta tumuluen babesduna

4.5. Mugikortasuna eta Garraioa

4.5.1. Azpiegiturak: ezaugarriak eta proiektuak

Eskualdeko errepide sistema

Debagoieneko Ibilgailuen errepide sistema ondoko egituren gainean oinarritzen da:

1.-Deba bailara zeharkatzen duen Erdiko ardatza. Eibar Gasteizekin lotzen duen GI-627az osatua dago, Arlabaneko gainaren bidez:

Ardatz honen gainean Eibar-Gasteiz autopista proiektatua dago, lau lotunerekin:

- Bergara Iparraldea-Amillaga (GI-627 eta GI-6232arekin lotunea)
- Bergara Hegoaldea – Zaldumendi (GI-627 eta Beasain-Durango korridorearekin lotunea)
- Arrasate iparraldea– Epele (GI-627 eta Beasain-Durango korridorearekin lotunea)
- Eskoriatza Iparraldea – San Bernabé (GI-627arekin lotunea)

Egun, Eibar eta Bergara Hegoaldea lotzen dituen errepide tarte funtzionamenduan da.

2.- Zeharkako hiru ardatz nagusiak:

- Durango-Beasain korridorea, Debagoiena Deskargako portutik Kanpanzarko porturaino zeharkatzen du. Egun GI-632 errepidearen bidez egiten da eta GI-627arekin bat egiten du Zaldumendi-Epele tartean. Beasain-Durango Autobia proiektua ere badago, bost lotunerekin: Antzuola ekialdea eta mendebaldea, Bergara hegoaldea, Arrasate iparraldea eta Kanpazar.
- GI-2630 errepidea, Oñatiko harana zeharkatzen duena, San Prudentzio – Elorregitik Udana porturaino.
- GI-2632 errepidea, Elgetako gaineratik Elorriotik Bergarara doana.

Aretxabaletako udalerrria Erdiko ardatzean dago, GI-627ak zeharkatzen du eta saihezbide baten bidez ekiditen da hiri gunetik pasatzea. Gainera, Durango-Beasain eta Elorregi-Oñati zehar lerroko ardatzetatik oso gertu dago.

Udalerriko errepide sarea

Udalerriko errepide sareari dagokionez, honako hauek zehazten dira:

- Herri sareko GI-3920 (sare horia), Aretxabaleta Aramaio eta Gesalibarrekin (Arrasate) lotzen duena, Gellaoko gunetik igaroz.
- GI-3920 errepidea, Isurietarekin (GI-3132) eta Galartzarekin (GI-3133) lotzen dituzten Sare griseko errepideak.

- Hirigunea, Larrino (GI-4132), Gorueta (GI-3131), Areantza (GI-4131) eta Arkarazo (GI-3345) guneekin lotzen duten Sare griseko errepideak.
- Hirigunetik Oro auzora doan herriko errepidea.

LZPan Larrino-Bedoña bidearen hobekuntza eta zabaltzea aurreikusten da.

Trenbide sarea

Egun ez dago trenbide mugikortasun sistematik martxan Debagoiengan. Egoera berean dago garai bateko Debako “vasco-navarro” trenbidea., egun utzia dago eta zenbait tartetan okupatua. Honez gain hainbat proiektu aztertu dira: Debako tranbia, eta Gipuzkoako bidegorri sarea.

Debako tranbiak Eibar eta Eskoriatza lotzea aurreikusten da. Lehen fase batean, Bergara-Aretxabaleta tartea garatuko litzateke. Gainera, LZPk honako hau proposatzen du:

- RENFERekin lotzeko linearen luzapena-Telleriarten (Legazpi) aldiriko tren.
- Elorregin estazio intermodala.

Trenbide sistemaren barruan, izan ditzakeen eraginagatik, Abiadura Handiko Trenaren proiektua batu behar da, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Arrasate, Bergara eta Antzuolako udalerriak zeharkatzen ditu-eta. Eskualdean ez dago geltokirik aurreikusita.

Mugikortasunaren inguruko beste azpiegitura batzuk

Debagoieneko LZPk izaera berezidun hiri arteko ibilbide sare bat proposatzen du (oinezkoentzako zirkuituak eta bidegorriak), horren baitan biltzen da (trenbide zaharren ibilbidea jarraituz) ibilbide alternatiboen sarea garatzea.

Aretxabaletan honako ibilbide bereziak daude (oinezkoenak eta bidegorriak):

- Baintxeko hiriguneko bidegorria Urkuluko urtegiarekin lotzen duena (1.789m.)

4.5.2. Udalerrri barneko eta udalerrien arteko mugikortasuna

Debagoieneko mugikortasun kudeaketa eta antolamendurako azterketaren arabera (2005eko martxoa), honako hauek dira egoeraren ondorio garrantzitsuenak:

- Garraio publikoaren eskaintza minimoa eta geldia da.
- Ordu puntetan trafiko pribatuaren saturazioa izaten da.
- Ibilgailua erabiltzeko joera dago eta aldaketarako nagikeria.

Hasierako datuek metropoli izaera duen mugikortasun eredu propio bat adierazten dute, ondokoak nabarmentzen dira:

- Eskualdean sortzen diren bidaien %92a eskualdean bertan dira.
- 70.000 bidaia motorizatuetatik 2.700 bakarrik dira garraio publikoa erabiltzen dutenak.
- Garraio publikoaren eskaintza (12 plaza/1000 biztanleko) Gipuzkoako gutxienaren erdia da.
- Garraio publikoaren merkatu kuota %3koa da eskualde barruan, eta %10a eskualdez kanpo.
- Irisgarritasuna Gipuzkoako okerrenetakoa da.

Garraio pribatua

Trafiko egituraren %76a ibilgailu arinek osatzen dute, eta %23a pisutsuek (bidaiari eta merkantzien garraioa), eta %1a bi gurpilekoek.

Honako hau da ibilgailuen mugimenduaren banaketa:

- GI-627 Leintz Gatzagatik (Arlabanetik) Bergarara: %28.
- GI-2630 Udana - Oñatitik San Prudentzioko bidegurutzera: %23.
- GI-632 Deskarga eta Antzuolatik Bergarara: %21.
- GI-632 Arrasatetik Kanpanzarko gainera: %12.
- GI-2632 eta GI-2639 Elorrio eta Eibartik Elgetara: %8 (Elgetatik, %5a Bergarara eta %2a Arrasatera)
- GI-3750 Elosutik Bergarara: %1,2.
- GI-2620 Aramaiotik Arrasatera: %6.

Eskualdean, lanegunetan 3 une daude ordu kritikoak direnak: 7etatik 8:30era / 12:30etik 14:30era / 16:30etik 18:30era.

Inkosten arabera, oso altua da lana eta ikasketengatiko mugikortasun maila: batez bestekoaren %85a, hain zuzen ere, eta maila hori igo egiten da eskualde arteko bidaietan.

Honako hau da lanegun batean garraio pribatuaren bidaien jatorri/helmuga matrizea:

Garraio pribatuz egindako J/H matrizea. Laneguneko batez bestekoa 2004.

Jatorria Helmuga	/Elgeta	Bergara	Antzuola	Arrasate	Oñati	Aretxabaleta	Eskoriatza	Gatzaga	Kanpokoak	Guztira
<i>Elgeta</i>	85	442	30	387	70	29	14	1	195	1.253
<i>Bergara</i>	442	7.472	1.617	4.042	1.444	545	248	20	3.504	19.334
<i>Antzuola</i>	30	1.617	150	319	127	49	23	3	617	2.935
<i>Arrasate</i>	387	4.042	319	13.807	2.647	5.268	1.528	73	5.167	33.238
<i>Oñati</i>	70	1.444	127	2.647	5.469	376	176	10	2.033	12.352
<i>Aretxabaleta</i>	29	545	49	5.268	376	790	2.010	35	971	10.073
<i>Eskoriatza</i>	14	248	23	1.528	176	2.010	308	35	341	4.683
<i>Leintz, Gatzaga</i>	1	20	3	73	10	35	35	3	2	182

Kanpokoak	195	3.504	617	5.167	2.033	971	341	2	0	12.830
Guztira	1.253	19.334	2.935	33.238	12.352	10.073	4.683	182	12.830	96.880

Datu horiek, 2003koak baino %6,32 altuagoak dira.

Garraio publikoa

Garraio publikoaren merkatu kuota oso baxua da: eskualde barneko mugikortasun motorizatuaren %3a, eta eskualdez kanpokoaren %10a. Bere eboluzioa gelditi dagoela antzematen da.

Autobusek eskaintzen dute eskualdean dagoen garraio publikoaren zerbitzua:

<i>Udalerria</i>	<i>Eguneko zerbitzuak</i>	<i>Biztanleria 2001</i>	<i>Biztanle./ Zerbitzua</i>	<i>Bidaia GP Bzt/urteko</i>
<i>ELGETA</i>	6	974	162	1,8
<i>LEINTZ GATZAGA</i>	10	240	24	1,1
<i>ANTZUOLA</i>	18	1899	106	4,8
<i>ESKORIATZA</i>	77	3925	51	17,9
<i>ARETXABALETA</i>	77	6184	80	14,8
<i>BERGARA</i>	93	14965	161	13,7
<i>ARRASATE</i>	99	23118	234	14,4
<i>OÑATI</i>	43	10705	249	8

Iturria: Debagoieneko mugikortasunaren kudeaketarako azterketa, 2005.

Aretxabaleatik Donostiara eta Gasteizera zuzenean joaten diren autobusak:

- Gasteizera egunean 15 aldiz
- Donostiara egunean 5 aldiz

Urteko bidaien zifrek 1.105.800 bidaia daudela esaten digute, batez beste 3000 bidaia/eguneko (4.500 lan egun normal batean). Horietatik, %47 barnekoak dira eta %53 beste eskualde edo toki batzuetakoak.

2003ko EAeko Mugikortasunaren Azterketaren arabera, egin ziren bidaia gehienak (%60 baino gehiago) eskualde bera dute jatorri eta helmuga.

<i>Debagoienetik egindako bidaiak , helmuga:</i>	<i>Zk.</i>	<i>%</i>	<i>Debagoienera egindako bidaiak, jatorria:</i>	<i>Zk.</i>	<i>%</i>
<i>Gasteiz</i>	290	8,52	<i>Gasteiz</i>	231	7
<i>Bilbo</i>	138	4,05	<i>Bilbo</i>	19	0,58
<i>Durango aldea</i>	162	4,76	<i>Durango aldea</i>	162	4,91
<i>Donostia</i>	146	4,29	<i>Donostia</i>	218	6,6
<i>Debabarrena</i>	422	12,40	<i>Debabarrena</i>	487	14,75
<i>Debagoiena</i>	2.120	62,32	<i>Debagoiena</i>	2.120	64,22
<i>Goierrri</i>	124	3,64	<i>Goierrri</i>	64	1,94
<i>Guztira</i>	3.402	100	<i>Guztira</i>	3.301	100

Iturria: 2003ko EAeko Mugikortasun Azterketa.

PESAk emandako datuen arabera, euren autobus lineetan urtero 1.069.214 bidaia egiten dira Debagoienarekin lotuta. Horietatik, %48,67 eskualdeko udalerrri artekoak dira.

LINEA	Bidaiaria k guztira	Guztira Debagoien a	Barnekoak Debagoien a	Debagoiena % Barnekoak
42- Donostia-Bergara-Arrasate-Gasteiz	215.311	175.029	30.313	17,32
44-Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz	257.967	224.958	56.025	24,9
50-Bilbo-Bergara-Tolosa-Donostia	49.961	25.767	5.188	20,13
51-Bergara-Arrasate-Durango-Bilbo	40.996	37.519	1.086	2,89
52-Oñati-Arrasate-Durango-Bilbo	24.604	22.179	1.047	4,72
60-Bilbo-Arrasate-Bergara-Ordizia	1.672	1.125	20	1,78
71-Eibar-Eskoriatza	448.197	351.424	234.687	66,78
72-Oñati-Arrasate-Eskoriatza	151.715	151.332	150.814	99,66
73-Oñati-Bergara	16.287	16.287	16.287	100
74-Zumarraga-Oñati-Arrasate	45.124	30.161	2.588	8,58
75-Zumarraga-Legazpi-Oñati	97.848	36.603	22	0,06
76-Bergara-Antzuola-Zumarraga	14.433	14.423	10.435	72,35
77-Bergara-Elgeta	604	604	588	97,35
79-Eibar-Eskoriatza-Gasteiz	14.891	12.120	7.080	58,42
80-Zumarraga-Oñati-Arrasate	2.966	2.875	2.867	99,72
82-Bergara-Arrasate-Gasteiz	3.411	3.411	1.339	39,26
GUZTIRA	1.288.139	1.105.817	520.386	47,06

Iturria: Debagoieneko mugikortasunaren kudeaketarako azterketa, 2005.

Udalerrien arteko erlazioei dagokienez, horiek 2003an egin zen Jatorri/Helmuga matrizean jasotzen dira.

Garraio publikoaren J/H matrizea. Laneguneko batez bestekoa 2003ko urrian.

Jatorri/Helmuga	Elgeta	Bergara	Antzuola	Arrasate	Oñati	Aretxabaleta	Eskoriatza	Leintz	Kanpokoak	GUZTIRA
Elgeta	0	3,9	0	0	0	0	0	0	1,4	5,3
Bergara	5,2	72,3	34	264	40,1	37,4	26,8	0	302,4	782,2
Antzuola	0	37,2	0	0	0	0	0	0	4,5	41,7
Arrasate	0	257,9	0	14,7	146,7	169,3	278,6	0	448,4	1315,6
Oñati	0	38,7	0	164,5	13,1	15	11,6	0	100,8	343,7
Aretxabaleta	0	39,5	0	209,1	17,7	1	41,3	0,1	54,5	363,2
Eskoriatza	0	23,4	0	192,5	11	28,6	0,2	0,1	56,5	312,3
Leintz, Gatzaga	0	0,3	0	0,1	0	0	0	0	0,8	1,2
Kanpokoak	1,3	341,3	3,3	537,2	172,5	57,5	56,6	0,9	0	1170,6
GUZTIRA	6,5	814,5	37,3	1382,1	401,1	308,8	415,1	1,1	969,3	4335,8

Garraio publikoari dagokionez, honako hauek dira Debagoieneko Mugikortasun Azterketaren Ondorioak:

- Eskaintza defizitarioa
- Eskariaren egonkortze bat
- Eskariaren bidezko erantzun bat eskaintzaren hobekuntza baten aurrean.
- Hazteko potentzial garrantzitsu bat.

Merkantzia Garraioa

Debagoienaren moduan, nagusiki industrialak den eskualdean, merkantzien garraioak garrantzia eta eragin nabaria du bertako udalerrien mugikortasunean.

Aipatutako azterketa aintzat hartuz, merkantzia garraioen %33a distantzia luzekoa da, %25,2 distantzia motzekoa (egunean karga eta deskarga) eta %25,8 pasekoa.

Irteera eta sarrera gune nagusia Bergara Iparraldea da, Deskargako portua, Arlabangoa eta Kanpazargoa ditu atzetik. Gehienetan, %40 inguruan, sarrera leku bera erabiltzen dute gunetik irteteko.

Mugikortasunari dagozkion beste alderdi batzuk: aparkalekuak, parke mugikorra...

Arestian aipatutako mugikortasun azterketaren arabera, enpresa handietan aparkamenduak egoteak autoa erabiltzera bultzatzen du jendea.

Azterketa zehatzagoa egin da Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatirako. Bertan agerian uzten da egonaldien iraupenaren batez bestekoa nahiko altua dela. Aipatutako udalerririk horietako bakar batean ere ez dago aparkamendua arautzeko sistemarik.

Orokorrean, Aretxabaletan ez dago aparkamendu arazorik, baina berriki eraiki diren udalerririk zonalde batzuetan arazoak izaten dira aldika aparkamenduak lortzeko. Zehazki, Lausitta auzoan, Santakurtz Kalean, Otalora Kalean eta Bedarretako San Migel auzunean. Parke mugikorra altua da eta hazkunde joera du. Hau da azken urteetan izan duen garapena:

Aretxabaletako parke mugikorra

<i>Modalitatea</i>	<i>1996</i>	<i>2001</i>	<i>2002</i>	<i>2003</i>	<i>2004</i>
<i>Turismoak</i>	2.185	2.706	3.068	3.151	3.221
<i>Motorrak</i>	83	96	184	199	215
<i>Kamioiak-furgoiak</i>	359	500	155	154	154
<i>Autobusak</i>	0	0	0	0	0
<i>Traktore industrialak</i>	4	7	43	53	53
<i>Beste batzuk</i>	18	40	36	46	54
<i>Guztira</i>	2.649	3.349	3.486	3.603	3.697

Iturria: Eustat (1996-2001) eta Udala (2002-2003-2004)

Hiritarrei egindako inkesta 2004

“Iraunkortasunaz hiritarrek duten harreraren inguruko inkesta” kontuan hartuta (Udaltalde 21 Debagoiena, 2004ko abendua), hiritarrek 2,02 desplazamendu egiten dituzte egunero 38,83 m. denboran (Autonomia Erkidegoaren datuekin alderatuz oso baxuak dira datuak).


Taula 1. Eskualdeko biztanleen mugikortasun datuak Euskal Autonomia Erkidegokoekin alderatuz.

	DEBAGOIENA	E.A.E.*
Biztanleko desplazamendu kopurua eguneko	2,02	2,55
Desplazamenduen batez besteko distantzia (km.)	7,12	10,34
Desplazamenduen batez besteko denbora (Min.)	12,33	20,00
Biztanleak egunean egiten duen distantzia (km.)	19,30	26,37
Biztanleko desplazamenduetan pasatako denboraren batez bestekoa (Min.)	38,83	51,00

*2004ko Ekobarometro sozialetik jasotako datuak.


Desplazamendu arrazoiei dagokienez, indizea txikiagoa da “Lana, Ikasketak eta Aisialdian” eta handiagoa “Erosketak eta haurrak eskolara eramatean”.

Grafikoa 1. Desplazamenduak arrazoiaren arabera.



Erabilitako garraiobideei dagokienez, oinezkoen desplazamendua da nagusi eta EAEko batez bestekoa baino handiagoa da (%49 Eskoriatzan eta %41 EAEn). Handiagoa da ibilgailu pribatuaren erabilera ere (%40 Eskoriatzan eta %37 EAEn). Garraio publikoaren erabilera (autobusa, tren edo biak), aldiz, askoz txikiagoa da.

Grafikoa 2.Desplazamenduak medioen arabera.



Mugikortasun ez motorizatu (oinez edo txirrinduz)

Udalerrien arteko mugikortasun ez motorizatu ez da existitzen oinezkoen kasuan eta oso txikia da (%1etik behera) txirrinduan. Arrazoiak, txirrinduaren erabilera aisialdiari lotzen zaiola ia osorik.

Orokorrean, ez dago eskualdeko udalerrien arteko oinezko mugikortasuna erraztuko duen sare egituraturik, bereziki gertuen dauden artean.

4.5.3. Irisgarritasuna

Udalak ez du ezintasunak dituzten pertsonentzat Irisgarritasun Planik, hala ere, eta mugikortasuna errazte aldera, azken urteotan koskak jaitsi dira kale guztietan.

Udalerrian guztira 180 pertsona ezindu daude.

INGURUMEN SEKTOREAK

5.1. Uraren ziklo integrala

5.1.1. Uraren hornikuntza, kalitatea eta kontsumoa

Hornikuntza Sare orokorra

Debagoienerako hornikuntza sistema, Bergara urez hornitzen duena, Urkuluko (Aretxabaleta) urtegiak eta Ur Edangarriaren Tratamendu Estazioak osatzen dute. Sistemak ur edangarri hornitzen ditu 66.000 biztanle eta kontsumoa orotara 7.360.000 m³ da urteko.

Urkuluko urtegia harri-lubeta modukoa da eta hormigoizko pareta du. 10.000.000 m³ ur edukitzeko kapazitatea du. 58 metro ditu altueran eta 540 l. erregulatzen ditu segundoko, isuri arroa 19 km²-koa da.

Giza kontsumorako uraren kalitatea

Hainbat mailatan neurtzen da kontsumorako uraren kalitatea:

- Urkulutik datozen urek tratamendu sistema bat igarotzen dute. Sistema horren baitan aurre-ozonizatzea, gatzatze-flokulatzea, dekantazioa, tarteko ozonizatzea eta harearen aurkako iragaztea jasotzen ditu. Bere kalitatea zuzenean “Gipuzkoako Urak SA” enpresak kontrolatzen du eta aldika intereseko parametro guztiak neurtzen ditu eta udalera igortzen ditu.
- Osakidetzaren Debagoieneko eta Debarrenen Osasun Publikoko Eskualdeko Zentroak aldikako analisiak egiten ditu (hilean behin baino gehiagotan). Azterketa horietan parametro mikrobiologikoak, fisiko-kimoak, organoleptikoak, nahi ez diren sustantziak eta kloroa neurtzen ditu. Laginak hornikuntza sarearen puntu ezberdinetan hartzen dira (8 kokagune ezberdinetan) eta hilero analisisien emaitzak igortzen dituzte udalera.

Orokorrean, Urkulutik jasotzen diren uren kalitatea egokia da.

Udalerriko uraren kontsumoak

Gipuzkoako Uraren Partzuergoko datuen arabera, 2003an Aretxabaletako udalerriri emandako kopurua 676.285 m³ izan ziren, Urkuluko urtegitik eskainita.

1_Zentrua	Bezeroa	Biltokia	4. hiruilekoa	3. hiruilekoa	2. hiruilekoa	1. hiruilekoa	Guztira urtean
Urkulu	Aretxabaleta	Municipal	184.921	162.285	160.959	168.120	676.285

Udalerriko datuen arabera, udalerriko uraren kontsumoek joera egonkortzailea bizi dute, nahiz eta aldakorra izan. Azken urteetan hau da joera:

Urteko ur kontsumoak (m³)

1990	1995	2000	2001	2002	2003
802.630	554.882	671.613	737.011	616.803	726.915

Iturria: Aretxabaletako Udala

Etixerako ez den uraren kontsumoa

Kontsumo industrialei dagokienez, azpimarratu behar da Aretxabaletako industriak errekatik hartzen dituela ur kantitate handiak, baimena duten hiru enpresen kasuan soilik ezagutzen dira kantitateak; Deba ibaiak garai zehatzetan duen emari eskasa kontuan izanik, arazo larriak sortzen dira ur-jarioaren ekosisteman.

5.1.2. Uraren saneamendua eta arazketa

Saneamendu sarea

Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate kolektoreek osatzen dute sistema eskualdean. Hondakin Uren Estazio Araztegia Epelen dago (Arrasate-Bergara).

Kolektorea Hormigoi Armatuzkoa da, 1.500 mm-ko diametroa du eta 12 Km. da luze. Gehienera, segundoko 1.500 l. garraiatzeko dago diseinatua. Sistemak dagokion arintzeko bitarteko kopurua du.

Hondakin uren tratamendua

Epeleko Hondakin Uren Estazio Araztegiaren diseinua bi etapako lohi aktiboen modukoa da, nitrogeno eta fosforoaren ezabaketa biologikoa egiten ditu. Kutsadura karga 95.000 bzt/ek da eta aurretratamendurako gehienezko gaitasuna 1.300 l. segundoko, eta biologikoa 450 l/seg.

Gaur egun arte egindako inbertsioa (kolektoreetan) 3.600 milioikoa da, oraindik inbertitzeke geratzen dira 4.000 milioi inguru.

Esaten denez, Debaren arroa da EAEn ur kalitate okerreduena duena. Errekara egindako zuzeneko isurketek, bai etxeke eta baita aktibitate ekonomikoetatik eratorritako hondakin urenak ere, jario uraren kutsadura eragin dute maila oso altuan. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren azterketen arabera, Deba ibaiak ur kalitate ona du Eskoriatzara iritsi artean. Degradazioa muturrekoa da Eskoriatzatik Bergara.

Kontuan hartzeko beste arazo bat, ohiko saneamendua ez duten landa guneetan sortutako hondakin urak dira, baserrietakoak eta abeltzaintza sektorekoak.

Ur horien kutsadura hiriguneko hondakin uren antzekoa da, nahiz eta geroz eta garrantzitsuagoa izan substantzia kimikoen presentzia (detergenteak, pestizidak...). Abeltzaintzako hondakinei dagokienez arazo nagusia kutsadura mikrobiologikoa da, osasunari eragin diezaioketen germen patogenoak daudelako.

Industriako isurketa likidoak

Karga Kutsatzailearen Adierazpena (Hondakin Uren Isurketa) egin duten industriei dagokienez, hauek dira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Ingurugiro sailburuordetzako Ingurunearen Kalitaterako Zuzendaritzak emandako datuak:

Izena	Egiazko ubidea	Urteko baimendutako m³
Cerrajería Valle Leniz	Deba	700
Tubos Metálicos de Precisión	Deba	22.000
Aretxabaletako Udala	Deba	535.600
Galvanizados Marchante	Deba	8.250

Iturria: Uraren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

5.1.3. Uraren kudeaketa integrala

Ur edangarriaren hornikuntza zerbitzuaren tasa (2002)

Kontagailuaren irakurketa, fakturazioa eta ordainketa hiru hilabetez behin egiten da. Hiruhileko kobratze ordainketa bakarrean egiten da estolderien tasarekin batera.

Hobi septikoa dagoen lekuetan, eta haren jabea udalerriko ur edangarriaren hornikuntza sarera lotuta ez badago, hiruhileko 650 pta kobratzen zaizkio.

Kolektorerara egindako isurketak direnean, isurtzen duena udalerriko ur edangarriaren hornikuntza sarera lotuta ez dagoenean, hiruhileko 650 pta kobratzen zaizkio.

Tasa hori hiru hilabetez behin kobratzen da ur edangarriaren hornikuntza tasarekin batera.

1. ETXERAKO ETA KOMERTZIORAKO ERABILERA

<i>Hiruhileko gutxienekoa: 30 m³</i>	0,49 €/m ³
<i>30,1 m³ baino gehiago</i>	0,79 €/m ³

2. INDUSTRIARAKO, LANETARAKO ETA OSTALARITZARAKO ERABILERA. ARRAINDEGIAK ETA TINDATEGIAK

<i>Hiruhileko gutxienekoa: 60 m³</i>	0,90 €/m ³
<i>60,1 m³ baino gehiago</i>	0,98 €/m ³

3. SARERA LOTZEKO ESKUBIDEAK

<i>Kontagailua ezartzea edo lehen aldiz lotzea etxeko eta komertziorako erabileretan</i>	23,00 €/m ³
<i>Komertziorako edo etxerako erabilera duenaren deszigitatzea eta lotzea</i>	11,52 €/m ³
<i>Sare orokorrera lehen aldiz lotzea promotoreari edo jabeari</i>	60,87 €/m ³
<i>Sare orokorrera lotzea hartze puntua aldatuz promotoreari edo jabeari</i>	98, €/m ³

4. INDUSTRIARAKO ERABILERARAKO

<i>1,5 hazbeteko tutueria</i>	290,87 €/m ³
<i>2,5 hazbeteko tutueria</i>	467,43 €/m ³
<i>3 hazbeteko eta gehiagoko tutueria</i>	808,87 €/m ³

Aplikaturako tarifen datuei begiratuz gero, esan daiteke Aretxabaletako tasak jarraikorrak edo zigortzaileak direla gehien kontsumitzen dutenekiko eta industriarekiko.

Uraren kudeaketa osoa

Kontagailuetan irakurritako kontsumoen ehunekoa nabarmen hobetu da azken urteetan, %60koa zen 1990ean eta %72koa 2003an.

Uraren fakturatze portzentajeak ere hazkunderako joera erakusten du, nahiz eta aldakorra

izan, 1990ean %78a zen eta azken urteetan %90 inguruan dabil, 2003an %88koa izan zen.

Datu horiek uraren kudeaketa egokia erakusten dute eta kontabilizatu ez den uraren indize baxua (fugak, noizbehinka galdutakoak, legez kanpoko hartzeak...). 2000 fugak aurkitzeko lan handia egin zen, hornikuntzan akats gutxi aurkitu ziren, 14, eta horietako gehienak txikiak.

Erabilera industrialerako ur-hartzeak

Eusko Jaurlaritzako Uraren Zuzendaritzaren arabera, honako hauek dira, ura zuzenean hartzeko baimena zuten enpresen eta horien oinarritzko datuak eta emaria:

<i>Tomaren izena</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Era</i>	<i>Forma</i>	<i>Gehienezko_K (l/s)</i>	<i>Maiztasuna</i>	<i>Erabilpena</i>
<i>Deba Ibaia</i>	Laminados de Aretxabaleta	Ibaia	Ponpa zuzena	16,7	Iraunkorra	Industria hornikuntza
<i>Larinbe</i>	Talleres Sabe-B Zubia S.A.	Erreka	Azud	0,023	Iraunkorra	Industria hornikuntza
<i>Gellao-Erreka</i>	Tubos de precisión	Errekena	Azud	12	Iraunkorra	Industria hornikuntza

5.2. Atmosferaren kalitatea eta zarata

5.2.1. Igorpen atmosferikoak eta airearen kalitatea

Aretxabaletan ez dago EAEko Aire Kontrolatzeko eta Zaintzeko Sareko Estaziorik.

Debako Atmosfera Zaintzeko azpisarearen barnean, neurketa estazio iraunkor bat dago Arrasaten. Hauek dira etengabe neurtzen dituen kutsatzaileak: Aireko Partikulak (AP), Sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno dioxidoa (NO₂), karbono dioxidoa (CO) eta Ozonoa (O₃).

Eta honako hauek dira kontuan hartzeko igorle kutsatzaile foku nagusiak:

- Ibilgailuen trafikoa
- Industria
- Etxeko eta zerbitzuetako fokuak

Ibilgailuen trafikoa

Aretxabaletako automobil parkeak, aurrez aipatu den moduan, hazkunde jarraiturako joera erakusten du. Horri gehitu behar zaio biztanleriaren mugikortasun handia eta hazten ari dena. Gainera, handia da ibilgailu pribatuaren erabilpena eta Debagoiena bezalako zonalde industrializatu baten merkantzien garraioak eta industriak sortzen duen trafikoa.

Industria

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzako informazioaren arabera, Aretxabaletan hiru industria daude “Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaile diren Aktibitateak” izenez sailkatzen direnak (otsailaren 6ko 833/1975 dekretuak ezartzen du, Atmosferako Ingurugiroaren Babeserako 38/1972 legeak garatzen du). Enpresa horiek normalean egiten dituzten igorpen kutsatzaileak AP, COV, CO, SO₂, CN, OP eta NOX dira.

Potentzialki Atmosferaren Kutsatzaile diren Aktibitateak dituzten industriak

Zentroa	Fokua
Azbe B.Zubia S.A.	10 foku
Copreci, S. Coop.	6 foku
Fagor Ederlan S.Cop.	6

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza

Etxeko iturriak eta zerbitzuak

Etxetatik igortzen diren elementu kutsatzaileak gehienetan berogailuetatik eta ura berotzetik sortzen dira. Erabilitako erregaiaren arabera da hauen eragina, azpimarratu behar da petroliotik eratorritakoen ordeaz gas naturala ezartzeak karbono monoxido eta sulfuro dioxido igorpenak murrizten dituela.

Gasaren sarrera indizea nahiko altua da bizitegietan eta industrian, baina, oraindik hornikuntza Sareak ez du udalerrira osoa hartzen.

Beste igorpen batzuk, tximinietan eta landa gunetan landaredia erretzeko erabiltzen diren egurretatik eta ikatzetik datoz.

Udalerriko atmosferaren kalitatea

Egoeraren eta joeraren hurbilketa bat Eusko Jaurlaritzak plazaratutako EAE-ko Ingurugiro Indikadoreen Sistemari dugu. Dokumentu horretan adierazten du, lurralde eremu bakoitzean urtean zehar zenbat egunetan den airearen kalitatea “txarra” edo “oso txarra”. Publikazio horren arabera, 2003. urtean Debagoieneko airearen kalitatea okertzen joan da, izan ere, 2001 eta 2002an 6 eta 4 egunetan, hurrenez hurren, airearen kalitatea “txarra” edo “oso txarra” zela jaso zen, 2003an, ordea, kopuru horiek 19 egunera igo ziren. EAE-ko 9,9 eguneko batez bestekoarekin alderatuz kopuru esanguratsua izanik.

EAE-ko lurralde eremuak	2001	2002	2003
Erribera	4	0	0
Kostaldea	0	0	3
Donostialdea	1	2	10
Goierrri	3	2	13
Debagoiena Ibaizabal	6	4	19

Nerbioi Garaia Enkarterriak	2	3	5
Arabar lautada	2	6	14
Nerbioi Behera	5	4	115
Egunen Batez Bestekoa	2,9	2,6	9,9

Iturria: EAE-ko Ingurugiro Indikadorean Sisteman oinarrituaz.

Orokorrean Euskal Herriko zonalde industrialetan ematen diren fenomeno eta joera komunak azpimarra daitezke:

- Jatorri industrialeko kutsaduraren murrizketa jarraitua, bereziki SO₂ eta NO_x. Bi horien balioa onargarria da, legeak ezarritako mugetatik oso behera daude, kasu zehatzetan izan ezik. Jaitsiera horren arrazoi nagusiak teknologia zaharkitua duten enpresen itxieran, sufre gutxi duten erregaien erabilpenean, gas naturala erregai alternatibo gisa erabiltzean eta minimizazio politiketan aurki ditzakegu.
- Airean dauden partikulek eta nitrogeno oxidoek garapen ilunagoa erakusten dute, jaitsiera ematen da baina denbora luzeagoan. Balio handienak trafiko intentsitate handia duten hiriguneetan edo merkantzia trafiko intentsua dutenetan ematen dira.
- Trafikoak eragindako kutsadura atmosferikoaren hazkunde jarraitua eta progresiboa, bereziki, hirigune handienetan ematen diren pilaketetan. Horrek arazoak sortzen ditu CO eta O₃ mailetan (maiztasun handiz landarediaren babeserako muga gisa definitzen dena gainditzen dute).

Airearen kalitatean dauden beste arazo batzuk

Denboraldiko izaera duen kutsatzaile biotiko batetik eratorritako arazo batzuk ere badaude: polenak eragindakoak. Garai zehatz batean (bereziki martxoa eta ekaina bitartean) euren ugalketa funtzioa betetzeko atmosferan dauden landare organo bizidunak dira. Arnasketa arazoak edo alergia prozesuen eta asmaren areagotzea eta bizkortzea eragin dezakete. Gaur egun ez dago atmosferan duten presentziaren edo giza osasunean duten eraginaren inguruko jarraipen zehatzik.

Beste arlo garrantzitsu bat “energia motek” sortutakoa da, hotsen eta dardaren gaindi erradiazio ionizatzaileak eta uhin elektromagnetikoak barnebiltzen ditu.

Erradiazio ionizatzaileei dagokienean, udalaren eskumena gainditzen duen arazoa da. Hala ere, udalak badu aukera erabilpen mediku, zientifiko edo industrialerako instalazio erradiaktiboen jarraipena egiteko eskumena duten herri erakundeekin elkarlanean.

Uhin elektromagnetikoen inguruko arazoa konplexuagoa da, izan ere, ez dago adostasunik ingurugiroan eta giza osasunean duten eraginaren inguruan, eta ezta arautuko dituen legedirik ere. Tentsio altuko sare elektrikoei eta antenei lotuta dago (geroz eta arazo larriagoa telefonia mugikorraren zabalkundearen ondorioz). Duela gutxi udalak Ordenantza bat onartu du telekomunikazio ekipoen instalazioa eta funtzionamendua arautzeko.

5.2.2. Zarata eta kalitate akustikoa

Aretxabaletak ez du hotsen maparik edo azterketa zehatzik udalerraren kalitate akustikoa zein den zehaztu ahal izateko.

Hala ere, badira bi hots igorle foku argi: hirigunetik gertuen dauden industriak eta hiriguneko

eta inguruko errepideetako trafikoak sortutakoa.

5.3. Energia

Energia kontsumoak

IBERDROLAK eskaintako datuek diotenez, honako hauek dira, sektoreen arabera, 2000-2003 urteen artean Aretxabaletako kontsumo elektrikoak:

Iberdrolaren fakturazioaren garapena (KWh) Aretxabaletan

<i>Energia banatua</i>	<i>2000</i>	<i>2001</i>	<i>2002</i>	<i>2003</i>
Bizitegietan	5.606.254	5.694.279	6.051.090	6.026.684
Industrialean	28.829.463	29.081.361	28.335.865	30.074.487
Zerbitzuetan	4.924.376	5.359.565	5.690.573	5.488.994
Sailkatu gabeak	25.455	67.164	509.156	10.060
Guztira	39.385.548	40.202.369	40.586.685	41.600.225

Iturria: Iberdrolaren datuetan oinarritua.

Industria sektorea da Aretxabaletako energia elektriko kontsumitzaile nagusia. 2003an kontsumo guztiaren %72,3a zen eta garapen hazkorra erakusten zuen. Bizitegietako kontsumo elektrikoa, aldiz, %14,5 zen 2003an eta azken urteetan garapen hazkorra erakusten zuen. Zerbitzuen sektoreak guztiaren %13,2 hartzen zuen.

IBERDROLAK emandako datuen arabera, honako hauek dira bizitegietako kontsumo elektrikoaren datuak Aretxabaletan urteko eta biztanleko:

<i>Urtea</i>	<i>Biztanleko urteko kontsumoa</i>
2000 urtea	906,5 kWh. biztanleko urteko
2001 urtea	920,8 kWh. biztanleko urteko
2002 urtea	968,4 kWh. biztanleko urteko
2003 urtea	964,5 kWh. biztanleko urteko

Iturria: Iberdrolako datuetan oinarritua.

Datuek bizitegietako kontsumo elektrikoaren hazkunde jarraitua erakusten dute, baina ez da oso handia.

Udaleko datuen arabera, argiztapen publikoaren kontsumo elektrikoak joera aldakorra erakusten du. Hauek dira:

Udalerriko kontsumo elektrikoa argiztapen publikoan (kw/h)

	<i>2001</i>	<i>2002</i>	<i>2003</i>
Eguneko kontsumoa	286.977	320.185	281.215
Gaueko kontsumoa	352.494	399.497	349.908
Kontsumoa guztira	639.471	719.685	631.123

Iturria: Udaleko datuetan oinarritua

Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa

Gaur egun ez dago udalerrian aldi bereko sorrera sistemarik udalerrian.

2001eko urrian EVEk analisi bat egin zuen “Energiaren zentzuzko erabilpenerako eta baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako udal ekinbiderako aurre analisisia eta proposamena” izenekoa eta atal hauetan oinarritu zen:

- Energia berriztagarrien erabilpena
- Udalerriko egungo aprobetxamendua
- Ekinbide moduak

Txosten horretan udalerrian zeuden energia berriztagarrien eta horren aprobetxamendurako hainbat instalazioen berri ematen zen; aldi berean, udalerrian energia berriztagarriak ezartzeko hainbat ekinbide proposatzen zituen:

EGIN BEHARREKOAK	INSTALAZIOAK
Fakturazio elektrikoaren analisisia	- Polikiroldegia, Etxebarria Auzoa, 11; Auzunea, 10eko argiztapen publikoa
Monitorizazio elektrikoa	- Polikiroldegia, Etxebarria Auzoa, 11; Auzunea, 10eko argiztapen publikoa
Analisi energetikoa	- Polikiroldegia, Etxebarria Auzoa, 11
Azterketa integrala	

Iturria: EVE

Aretxabaletako Udalaren instalazioetan egin beharreko ekintzez gain, honako hauen bultzatzaile ere izan daiteke udala:

- **Eraikinen energia eraginkortasun ziurtagiriak:** udalerrian eraikitzen diren etxebizitza edo bulego berrietan.
- **Ekomugikorra:** ibilgailu publiko eta pribatuen diagnostiko energetikoa bultzatuz berriz.
- **Eguzkitiko energia:**
 - **Aprobetxamendu pasiboa:** udalak eguzki egiturak bultzatu beharko lituzke eraikin berrietan edo mota honetako etxebizitza eta eraikinak bultzatu beharko lituzke.
 - **Eguzkitiko termikoa:** osasungintzarako ur beroarentzat eta kiroldegietako, eskoletako, etxebizitzetako edo aterpetxeetako ura berotzeko.
 - **Eguzkitiko fotovoltaikoa:** proposamenaren xedea sare orokorretik aldendutako lekuetara eguzkitiko energia fotovoltaiakoaren bidez elektrizitate hornikuntza ematea zen.
- **Energia eolikoa:** Sare elektrikitik aldendutako lekuetan eta kontsumo baxuko aplikazioetan potentzia baxuko aerosorgailuak jartzea proposatzen du.
- **Biomasa energia:** Potentzialen azterketa baten bidez egur, nekazaritza eta abeltzaintza hondakinen aprobetxamendu energetikoaren identifikazioa eta balioztatzea.

2004an, EVEk egindako azterketaren ondotik, Erakunde beraren Energia Berriztagarriaren Saitetik jasotako informazioaren arabera, honako hauek dira Aretxabaletan dauden energia berriztagarrien aprobetxamendurako edo produkziarako dauden instalazioak:

- **Eguzkitiko Fotovoltaikoa:** 9 instalazio daude (eskainitako informazioan ez da zehazten sarean lotuta dauden edo instalazio bananduak diren) eta honako ezaugarriak dituzte:

<i>Potentzia (Wtontorra)</i>	<i>Produkzioa (kwh/urtean)</i>
1.559	1.559

Iturria: EVEren datuetan oinarritua.

- **Biomasa:** 5 aktibitate industrial daude baliabide biologikoetatik (egurretik batez ere) lortzen den erregaiaren bidez aprobetxamendu energetikoa lortzeko aukera izango luketenak. Euren prozesu produktiboan zura darabilten enpresa txikiak dira (aroztegiak, altzari fabrikak...). Ez da ezagutzen hauen erabilpen energetikoa.
- **Eolikoa:** Elgeako eta Urkilako parke eolikoan zati bat Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin dago. Aretxabaletaren kasuan, instalatutako aerosorgailuen kopurua 3koa da eta potentzia orotara urteko 6.080.000 KWh/ da.

Aretxabaletako parke eolikoak

<i>Aerosorgailu kopurua</i>	<i>Potentzia (KW)</i>	<i>Produkzioa (kWh/urteko)</i>
3	1.980	6.080.000

Iturria: EVEren datuetan oinarritua.

- **Etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa,** hurrengo balantzearekin:

Etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa

<i>Behin behineko ziurtagiriak (etxebizitza kopurua)</i>	<i>Behin betiko ziurtagiriak</i>
20	0

Iturria: EVEko datuetan oinarritua.

5.4. Lurzorua

5.4.1. Potentzialki kutsatutako lurren inbentarioa.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak, 1999ko otsailean eman zion Aretxabaletako Udalari “Aretxabaletako Udalerriko Potentzialki Lurraren Kutsatzaile diren Aktibitateak dituzten Kokaguneen Inbentarioa”. Inbentario horretan ingurugiroarentzat eta giza osasunarentzat kaltegarri izateko mailara iristeko moduko aktibitateak jasan dituzten kokaguneak jasotzen ditu.


Emaitzek, 20,67 hektarea inguru potentzialki kutsatuta daudela adierazten dute, eta 46 kokagune zehazten ditu. Lur horiek 63 ekinbide izan zituzten.

Potentzialki kutsagarriak diren lursailen eta kokalekuen banaketa

Kokaleku modua		Inbentariatutako lursail kopurua	Azalera(Ha)
Aktiboak	Etxebizitzien baxuak	2	0,37
	Industriarako erabilpen eskusiboak	21	10,94
Jarduerarik gabek	Orubeak	1	0,27
	Aurriak	-	-
	Industria ez aktiboak	-	-
Hondakindegia		2	3,82
Aldatuak	Hondakindegia	5	3,38
	Aktibitateak	15	1,89
Guztira		46	20,67

Iturria: IHOBE

Aretxabaletan potentzialki kutsatuta dauden lurren kartografia



Iturria: IHOBE

5.4.2. Ekintzak eta Planak

Honako hauek dira potentzialki kutsatutako lurren gainean azken urteetan egindako lanak:

Geoiker Kodigoa	Kokalekua	Ikerketa titulua	Azalera	Urtea
20013-00024	Laminados Aretxabaleta S.A.	Laminados Aretxabaleta zegoen orubean egindako lurraren kalitatearen gaineko ikerketa ikuskatzailea. Ekinbide Plan Gehigarria. 2003ko ekainean Urvasco UTEk egina.	14.357	2003
20013-00024	Laminados Aretxabaleta S.A.	Laminados Aretxabaleta zegoen orubean egindako saneamendu lanak. 2003040236 Zk txostena. 2003ko urria. TECNOGEAK egina	14.357	2003
20013-00024	Laminados Aretxabaleta S.A.	Laminados Aretxabaleta zegoen orubeko "P-107" zatian egindako lurpeko uren kalitatearen kontrola eta jarraipena. Tecnogearen 2003100503/1 Zk. txostena. 2003ko abendua.		2003

5.5. Hondakinen kudeaketa

5.5.1. Hiriguneko hondakinak

Aretxabaletan sortutako hondakinen bilketa eta garraioa Debagoieneko Mankomunitateak burutzen du. Mankomunitateak honako instalazioak ditu hondakinen kudeaketa egokia egiteko:

- AKEIko transferentzia planta (Arrasate)
- Bilketa zerbitzuen garajea eta tailerra (AKEIn Arrasate)
- Inausketa eta lorezaintzako hondakindegia (AKEIn Arrasate)
- EPELEko hondakin geldoen zabortegia (Bergara)
- Arrasate, Bergara eta Oñatiko GARBIGUNEAK

Eskualdean jasotako hiriguneko hondakinak Akeira eramaten dira eta bertan kapazitate handiagoko kamioietan kargatzen dituzte Beasaingo Sasieta zabortegira eramateko.

Hiriguneko hondakin kopurua

2003an Debagoieneko Mankomunitatean jasotako hondakinak 17.309 tona izan ziren orotara, 2002an baino 226 tona gehiago, urteko % 1,3 gehiago.

Mankomunitatean jasotako hiriguneko hondakinak

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Tonak	18.030	18.395	18.269	17.547	16.701	17.082	17.309
Kgr/bzt/eguneko	0,78	0,80	0,79	0,76	0,73	0,75	0,76
Kgr/bzt/urteko	286	292	290	279	267	274	278

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

Ikus daitekeen bezala, jasotako kopuruak urte batzuetan jaitsi egin baziren ere, azken urteetan, gora egin du berriz ere hiriguneko hondakin kopuruak. Joera hori ez du eragiten gaika jasotako zatikiak gutxitu izateak, hiriguneko hondakinen sortze orokorraren eta jarraituaren hazkundeak baizik.

Debagoieneko Hiriguneko Hondakinen (HH) egoera orokorrari dagokionez, aipatu behar da Mankomunitatea saiatu dela bereizketa egiten PIGRUGk egiten duen sailkapenari jarraituz, Etxeko Hondakinak (EH) eta Industria, Komertzio eta Instituzional Asimilagarriak (IKIA) bereiziz. Ez da bideragarria izan, ordea, zerbitzu gehienetan bi hondakin motak elkarrekin jasotzen batira, eta ez da posible bereizketa kontagarri izateko moduko kopuruetan.

Debagoieneko HHen jasotako kopuruak (Tn)

	2001	2002	2003
Guztira	25.191	26.247	27.221
Kg. Bzt/urteko	403	421	438
Kg. Bzt/eguneko	1,10	1,15	1,20

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, HH-en sorrera azken urteetan pixkana hazten joan da, nahiz eta eskualdeko biztanleria jaitsi egin den. Debagoieneko biztanle bakoitzak 2003an egunean 1,2 Kg. zabor sortu zituen eta 438 kg urtean. Europako tasarik txikienetakoa da.

HH-en kudeaketaren garapena Debagoienan

	2001		2002		2003	
	Tn	%	Tn	%	Tn	%
Berrerabilketa	0	0	0	0	12	0
Birziklatzea	4.529	18,0	4.812	18,3	5.099	18,7
Energetikoki balorizatua	0	0	979	3,7	1.091	4,0
Konposta	189	0,8	520	2,0	689	2,5
Guztira balorizatua	4.718	18,7	6.311	24,0	6.891	25,3
Guztira isuria	20.474	81,3	19.936	76,0	20.330	74,7
Guztira	25.191		26.247		27.221	

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

Bestalde, eta hiriguneko hondakinen tratamenduari dagokionez, garrantzitsua izan da oso azken hiru urteetan izan den HH-en balorizazioaren hazkundera (2.173 Tn). 2001ean baino 570 Tn gehiago birziklatzen dira urtero. Gaika jasotako hondakin guztiak ez dira balorizagarriak %100ean. Izan ere, eskatu ez diren edo egokiak ez diren materialak agertu ohi dira eta beste batzuetan, zatiki batzuk balorizatzeko ezintasun teknikoa izan ohi da (material ez balorizagarriak, konposizio konplexuko hondakinak...). Beraz, benetan balorizatu diren kopuruak izan dira kontuan.

Birziklagarria ez den zur-energiaren balorizazioa 2002an ezarri zen eta 112 Tona hazi da, konpostajeak berriz, gorantz jarraitzen du.

Gaikako bilketak

Beiraren gaikako bilketa

Azken urteetan edukiontzietan jasotako beira tona kopurua haziz joan da Aretxabaletan, pixkanakako eboluzioa mantenduz (75 tn. jaso ziren 2002an eta 174, 2003an).

Beira bilketa edukiontzietan. Aretxabaleta

Beira	2002		2003	
	Tn	Kg/bzt/urteko	Tn	Kg/bzt/urteko
Aretxabaleta	175	27,7	174	27,8

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

2002 eta 2003 urteetan Mankomunitatean zegoen edukiontzi kopurua 187 eta 198koa zen, hurrenez hurren. Batez besteko 313 eta 314 biztanleko edukiontzi bat.

Edukiontzietan egindako paper/kartoi gaikako bilketa

Aretxabaletan, edukiontzietan jasotako paper eta kartoi tona kopurua eskualdeko batez bestekotik behera dago.

Edukiontzietan egindako paper eta kartoi bilketa. Aretxabaleta

Papera eta kartoiak	2002		2003	
	Tn	Kg/bzt/urteko	Tn	Kg/bzt/urteko
Aretxabaleta	174	27,6	169	26,9

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

Gaur egunean 159 edukiontzi daude Mankomunitatean eta biztanleko edukiontzi kopuruaren ratioa 391 biztanleko edukiontzi 1 da.

Atez ateko kartoi komertzial eta industrialaren bilketa

2000eko abenduaren 1ean abiatu zen bilketa zerbitzu berezia eta merkatariari eta enpresari txikiari begira lan egiten du. Kartoiak, etxeko zakarra jasotzeko dagokion egunean eta kokalekuan jartzen da. Honako hau da guztira orain arte jasotakoa:

Atez ateko kartoi komertzial eta industrialaren bilketa. Mankomunitatea

Mankomunitatea	2001	2002	2003
Tn/urteko	439	415	574

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

Zerbitzu honen bidez egindako bilketa handitu egin da nabarmen 2003an, %28. Hazkunde hau azaltzeko 2003ko urtarrilaren eta martxoaren artean dendetan eta industrietan egindako kontzientziatze kanpaina izan behar da kontuan.

Ontzi arinen gaikako bilketa edukiontzietan

Ezarri zenetik bizi izan duen hazkunde jarraian jarraitzen du ontzi arinen gaikako bilketak. 2003an 2002an baino 7 Tn gehiago jaso dira. Datuak erakusten du norberak bere etxean hondakinen gaikako bereizketa egiteko duen kontzientzia modu jarraian areagotzen ari dela.

Ontzi arinen bilketa edukiontzietan. Aretxabaleta

Ontzi arinak	2002		2003	
	Tn	Kg/bzt/urteko	Tn	Kg/bzt/urteko
Aretxabaleta	38	6,1	45	7,2

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

Gaur egun 156 edukiontzi daude eskualdean eta biztanleko edukiontzien ratioa 398 biztanleko 1 da.

Tamaina handiko hondakinen gaikako bilketa

2002ko urtarrilean hobekuntza garrantzitsu bat txertatu zen hondakinen kudeaketan, aurrez Epeleko zabortegira botatzen ziren. Data horretatik aurrera, tamaina handikoak Altzaurtiko instalaziora eramaten dira. Bertan, zatitu egiten dituzte eta zatiki ezberdinetan bereizten dituzte, gero balorizatzeko. Balorizagarria ez den soberakina baimendutako zabortegi batera eramaten da.

Tamaina handiko hondakinen bilketa. Mankomunitatea

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
Tn	222	254	300	434	451	448	547
Kg/bzt/eguneko	0,009	0,011	0,013	0,019	0,020	0,020	0,024
Kg/bzt/urteko	3,5	4,0	4,7	6,9	7,2	7,2	8,8

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

2000an hazkunde garrantzitsua izan zen jasotako kopuruan, zerbitzua hilean bitan izatera igarotzeak eragina izan zuen. Ondoren, eta 2002a arte, egoera mantendu egin zen, baina, berriz hazi da 2003an. Kopuruen hazkunde garrantzitsu horren eraginez eta zerbitzua hobetzeko asmoz, 2004an zerbitzua areagotu egin da eskualde guztian bilketa astean behin izatera igaroz.

Bestalde, Altzaurtiko instalazioa 2002an abiatu zenetik, mota honetako hondakinen zatiki balorizagarrien berreskurapenak hobekuntza eragin du tamaina handiko hondakinen kudeaketan. 2003an tamaina handiko zatikien berreskurapenaren portzentajea %59,7koa izan da, aurreko urtekoa baino %9,3 handiagoa.

Pilen bilketa

Hasiera batean, pilak bi zati zituzten buzoietan jasotzen ziren, batean pila zapalak jasotzen ziren eta bestean bestelakoak. Buzoi horiek ez zirela eraginkorrak erakutsi zuen errealitateak eta sistema aldatu egin zen. Gaur egunean, eskualdeko pila bilketa kanpainari atxikitako denda ezberdinetan eta hainbat udaletxetan daude pilak uzteko buzoiak. Eskoletan eta osasun zentroetan ere ari dira pilak jasotzeko kutxak jartzen, eta 2003ko ekainetik aurrera Mankomunitateak abiatutako Puntu Berde Mugikorrean utzi ahal izango dira.

Pila bilketa. Mankomunitatea

	1997	1998	2000	2001	2002	2004
Hileko batez bestekoa KG.	587	650	527	564	466	422

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

1998tik jaisten jarraitu dute jasotako kopuruek, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurugiro Saileko arduradunen ustez, pilen ordez berriz kargatzeko bateriak erabiltzearen ondorioz da. Bestalde, Mankomunitateak laster egingo du informazio eta kontzientziazio kanpaina bat zerbitzu honetan hiritarren parte-hartzea areagotzeko.

Landare olio erabilia eta etxeko hondakin arriskutsuen gaikako bilketarako zerbitzua (Puntu Berde Mugikorra)

2003an hondakinak gaika biltzeko zerbitzu mankomunatu berria ezarri zen martxan: Puntu Berde Mugikorra. Zerbitzu horrek, bi motako hiri hondakinak gaika sailkatzeko aukera eskaintzen die eskualdeko herritarrei: sukaldeko olio erabilia eta etxeetako hondakin arriskutsuak, orain arte ingurumenaren aldetik irteera jasangarririk ez zutenak.

Zerbitzua martxan dagoen lehen 7 hilabeteetan erabilitako 621 litro landare olio jaso dira Aretxabaletan. Beraz, azpimarragarria da sorreratik bertatik izan duen arrakasta.

Hori horrela, zerbitzu horrek Ecogras SL enpresak egiten duen landare olioaren ekoizle handien bilketa osatuko luke, aipatutako enpresak 112.485 litro jaso baizituen 2003an eskualdean, eta 3.750 Aretxabaletan.

Ehunen gaikako bilketa

2003an abiatu zen ehunen gaikako bilketa zerbitzua. Horren bidez, hiritarrari aukera eskaintzen zaio, modu errez, eroso, gertuko eta fidagarri baten bidez, arropa, oinetakoak, gehigarriak, mantak eta antzekoak emateko, ondoren berrerabiliak edo birziklatuak izan daitezten. Zerbitzua kalean ezarritako edukiontzien bidez eskaintzen da. Hasieran zuri koloreko edukiontzi 1 ezarri da Aretxabaletan. Jasotako materialak Caritas/Oldberrira eta "Traperos de Emaus" erakundera bidaltzen dira sailkatzeko eta dagokien helmugara bideratzeko.

Zerbitzua irailean abiatu zen eta arrakasta handia izan zuen, 4.800 Kg baino gehiago jaso ziren. 2004an mantendu egiten da joera.

Hondakinen Biltoki Alternatiboak – Garbiguneak

Balantze orokor gisa, Arrasateko Ibarreta Garbigunearen erabilpena (udalerritik gertuen dagoena) finkatu egin da honako azalpenekin:

- Zura: handitzen doan hondakina da (2003an beherakada arina izan zuen)

- Obra-hondakinak: azken bost urteetan gehien hazi den hondakina da, etxeko obra txikietako gremioetatik dator batez ere.
- Plastikoak beherakadarako joera erakusten badu ere (2001ean eta 2002an), igo egin da azken urtean.
- Kartoia ere jaitsi egin da azken urteetan, izan ere, kaleko edukiontziak erabiltzeko ohitura indartu egin da eta dendetan eta industrian atez ateko zerbitzua dago.
- Fluoreszenteak. Zerbitzua ezarri zenetik hazkunde garrantzitsua izan dute.

Ibarreta Garbigunearen Garapena (Arrasate)

Materialak	1999	2000	2001	2002	2003
Egurra (Tn)	514	504	525	499	553
Obra-hondakinak (Tn)	826	893	969	1.004	1.081
Plastikoa (Tn)	186	218	171	150	155
Txatarra (Tn)	137	152	186	193	202
Kartoia-papera (Tn)		119	124	109	110
Gris-marroi linea (Tn)	18	24	19	28	26
Guztira	1.799	1.910	1.994	1.983	2.127
Bateriak (Aleak)	365	331	529	463	473
Fluoreszenteak (Aleak)			3.249	4.633	5.557

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

Inausketa eta lorazaintzako hondakindegia

Zerbitzua hori eskualdeko udalerrietako garbiketa eta lorazaintzako zerbitzuetara dago zuzendua, baita erabili nahi duten partikular edo enpresetara ere.

Udal zerbitzuen lankidetzeta eta dohaineko izaerak, zerbitzuaren arrakasta ekarri du, inausketa eta lorazaintzako 689 Tn ongarrri (konposta) bihurtzea lortu da 2003an.

5.5.2. Hondakin Industrialak eta arriskutsuak

Hondakin arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurugiro Kalitatearen Zuzendaritzak igorritako informazioaren arabera, honako hauek dira, azken urteetan urteroko hondakin arriskutsuen ekoizle direneko adierazpena aurkeztu duten enpresak Aretxabaletan:

- ✓ Azbe B. Zubia S.A.
- ✓ Laminados Aretxabaleta eta
- ✓ Copreci, S.Coop.

Udalerrian dauden enpresek sortutako Hondakin Arriskutsuei dagokienez, Ingurugiro Kalitaterako Zuzendaritzak 330.539,20 Kg. HA ditu kontabilizatuta, eta 50,00 Kg Hondakin Sanitario.

Ez dago enpresarik EAeko Hondakin Arriskutsuen Kudeatzaile baimenduen Zerrendan.

Hondakin arriskutsuen kudeaketarako zerbitzua (Gipuzkoako Ganbera)

Debagoieneko Mankomunitatea 2001a ezkerro Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberarekin elkarlanean ari da ekoizle Txikien Hondakin Arriskutsuen Kudeaketarako Hitzarmenean. Zerbitzuak kopuru txikitik hondakin arriskutsuak sortzen dituzten enpresen bilketa bermatzen du (10 Tn-tik behera urtean). Era horretan baimendutako kudeatzaile batek lantzea ahalbidetzen du.

Hondakin arriskutsuen kudeaketa. Mankomunitatea

	2001	2002	2003
Jasotako deiak	265	385	337
DSAdun enpresak	123	105	112
Bilketa kopurua	85	199	289
Kg kudeatuak	148.510	238.619	360.243

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea. DSA: euren hondakinen kudeaketarako beharrezkoa den jarraipen eta onarpen dokumentua jaso duten enpresak.

Zerbitzuaren harrera areagotzen ari da, 2003an kudeatutako Kg.-etan eta zerbitzua erabili duen enpresa kopurua hazten ari da. Zerbitzu horren bidez jaso diren hondakin arriskutsuak honakoak izan dira: taladrinak, disolbatzaileak, bernizen, margoen eta erabilitako olioien hondakinak.

Hondakin inerteak. Epeleko zabortegia

Epeleko zabortegian eraikuntzako edo industriako hondakin inerteak bota daitezke baldin eta Europako Hondakinen Katalogoak (EHK) hondakin arriskutsutzat hartzen ez baditu eta Mankomunitateak ezarritako onarpen frogak gainditzen badituzte.

Epelen sartzen diren hondakinak

Hondakina	2002		2003	
	Tn	%	Tn	%
Industrialak	128.388	69,3	150.122	70,8
Eraikuntzakoak	49.234	26,6	55.098	26,0
Nahasketak	7.661	4,1	6.860	3,2
Guztira	186.283	100	212.080	100

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

2003an jasotako hondakin kopurua %14,5 hazi da (26.797 Tn). Igoera horren %81,1a hondakin industrialei dagokie eta eskualdeko ekoizle handien hazkundeari lotzen zaio.

Abeltzaintzako hondakinak

Sortutako hondakin organiko guztiak ongarri gisa aplikatzen dira ustiapenetan. Horrek zonalde batzuetan kutsadura arazoak sortzen ditu gehiegizko nitrogenoa dela eta.

Hildako animaliak


Debagoieneko Mankomunitateak hildako animaliak biltzen ditu aurrez deitu ostean. Kalkulatzeko da urtean baserriko 250 Kg/ sortzen direla.

5.6. Jardueren eragina eta ingurumen arriskua

5.6.1. Jarduera ekonomikoaren eragina ingurumenean

Arexabaletako jarduera ekonomikoaren inguruko datuak Eustatetik hartu dira eta honako hauek dira:

Laukia: Saltokiak jarduera adarraren arabera Arexabaletan. 2.003



Iturria: EUSTATEN datuetan oinarritua

Jarduera industrialari udaletik egiten zaion jarraipena eskasa da, batez ere bitarteko teknikoak falta zaizkiolako. Salbuespena, kutsaduraren prebentzioarako programa batzuetan ere parte hartzen dela da (Debagoieneko Mankomunitateak garatzen ditu, udalaz gaindiko herri erakundeekin koordinatuta).

Diagnostiko honetako beste atal batzuetan aztertzen dira industriak ingurumen naturaleko elementuen gain duen inpaktua: atmosferan, hotsetan, ubideak, lurzorua... laburtuta, hauek dira azpimarra ditzakegun inpaktu nagusiak:

- Aire. Orokorrean, industriak nahiko gutxi kutsatzen du, eraldaketa metalikoak dira nagusi eta ia ez dago industria kimikorik. Industriak kutsadura atmosferikoaren sortzaile nagusia izateari utzi dio. Airearen kalitatearen kontrola eta jarraipena zuzenean Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzatik egiten dute.
- Ura. Historikoki ibaiak jaramonik egin gabe edukitzeko ohitura aldatu egin da eta uraren babes eta kontserbazio kultura berri bati bidea ireki dio. Baina, saneamendu planak oso atzeratuta daude eta erabilpen industrialeko uraren hornikuntza kontrola eskasa da, etorkizun hurbilean arazoak ekarri ditzake horrek. Udalaren esku-hartzea eskasa da, eskumen nagusiak Eusko Jaurlaritzarenak (Uraren Zuzendaritza) eta Gipuzkoako Uren Partzuergoarenak dira.
- Hondakinen kudeaketa. Eskualdean garatu dira programa batzuk industria hondakinen kudeaketa eta minimizazioa garatzeko. Bestelakoan, udalaren kontrol zuzenik, nahiz eta bere eskumena ez izan, ez dago.

Kutsadura Integratuaren Prebentziorako eta Kontrolerako Legea (IPPC)

2003ko Euskadi-EPER Inbentarioaren arabera, Aretxabaletan zentro bakarra dago IPPC legean dauden jarduerak burutzen dituena, honako ezaugarriekin:

Instalazioa	Isurketak	Kopurua (Kg/urteko)	B. lim. muga (Kg/urteko)
Laminados de Aretxabaleta	Kobrea eta bere konposatuak	2.400	50
	Zinka eta bere konposatuak	1.120	100

Iturria: EPER-Euskadi Gidako datuetan oinarritua

Arau horrek eragiten dien enpresek 2006ko abenduaren 31 arte dute moldatzeko epea.

Hauk dira **ingurugiroaren kudeaketarako sistema duten enpresak**:

- **ISO 14.001:** SERBITZU ELKARTEA S.L, FAGOR EDERLAN S.COOP., AZBE B. ZUBIA S.A. eta COPRECI, S. COOP.
- **EKOESKAN:** Fagor Ederlan, S. Coop.; Negocio Transmisión (Inyección Aretxabaleta) eta I.E.S. Arrasate-Aretxabaleta BHI.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueren eragina

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak ingurumenean duten eraginari dagokionez, honako hauek azpimarra daitezke:

- Hondakinen sorrera eta tratamendua, bereziki abeltzaintzakoak. Beste kapitulu batean garatzen da.
- Hondakin uren tratamendu falta, normalean lurrera edo jario publikoetara doaz, nahiz eta Arau Subsidiarioetatik eratorzen den betebeharra egon.

Basogintzako jardueri dagokienez, honako eragin nagusiak azpimarratzen ditugu:

- Koniferen birpopulatze gehiegizkoa, lurraren produkzio gaitasuna mugatzen dute.
- Hori larritzen dute baso husteek edo matarrasek, lur produktiboaren galera eragiten dute gainera eta eskorrentiak areagotzen dituzte.
- Baso ustiapenak, gainera, basabideak irekitzea eragiten du eta horrek aldapa handiko tokietan lurren mugimenduak eragiten ditu, isurbide lan eskasegiak egiten dira eta paisaia eragin handia dute.
- Azkenik, ustiapenek sortzen duten paisaia inpaktu handia azpimarratu behar da, paisaia erradikalki aldatu da, kantauriar isurialde guztian bezala kolore bakarreko koadroa osatuz.

5.6.2. Arrisku naturalak eta industrialak eta arriskuaren kudeaketa

Aretxabaletako Udalak, honako informazioa eta tresnak ditu arrisku eta larrialdietarako:

- 2000ko azaroan egin zen Udalerriko Emergentsia Plana. Euskadiko Babesgo Zibilerako Batzordeak balioztatua dago plan hori.
- Emergentsia planak daude Udal Kiroldegian eta Zentro Sozio-Kulturalan (Antzinako Zinema).

Aretxabaletan ez dago industriarik jarduera industrial zehatzetatik eratorritako istripu handiagoen prebentziorako RD 886/1.998 eta 952/1.990 legeen eraginpean.

Udalerriko Emergentsia Plana (UEP)

Aretxabaletako UEPn zehaztu diren hondamendi egoerak sor ditzaketen arriskuak honako hauek dira:

- Uholdeak
- Lur mugimenduak
- Jarduera industrial edo teknologiako arriskutsuei lotutakoak
- TPC/TPF merkantzia arriskutsuen garraioari lotutakoak
- Merkantzien garraioari eta garraio publikoari lotutakoak
- Sute arriskua
- Giza kontzentrazio handiei lotutakoak
- Ekintza antisozialak

Egoera hauetako bakoitzarentzat Ekintza Plana zehazten da eta potentzialki arriskuaren menpe eror daitezkeen guneak edo zonaldeak deskribatzen dira.

Eraikin publikoen emergentsia planak

Aretxabaletak Emergentsia Planak ditu eraikin publiko batzuentzat, hala nola, Udal Kiroldegirako eta Zentro Sozio-Kulturalerako; baina, hala ere, publikoak diren eraikin guztietan ezarri behar dira antzeko planak.

6. UDAL EGITURA ETA BERTAKO GIZARTEA

6.1. Gizartea eta herritarren parte hartzea

Bada Aretxabaletan elkarte eta hiritar entitate sare zabal bat, askotariko helburu sozialak eta jarduerak dituena. Horietako batzuk ingurugiroari eta udalerriko iraunkortasunari lotutakoak dira. Ez dute gai hauekiko jarduera jarraiturik burutzen, nahiz eta aldian behin ekimenak edo kanpainak antolatzen dituzten.

Ez dago udalaren udalerriko jardueran herritarren parte-hartzea zehazteko tresna iraunkorrik.

Udalerriko iraunkortasunaz herritarrek duten pertzepzioa


Udaltalde 21 Debagoiena lan taldearen barruan azterketa soziologikoa egin da eskualdean Udalerriko eta Eskualdeko Iraunkortasunaren problematikaren inguruan. Aretxabaletako biztanleen pertzepzio eta jarrera nagusienak honako hauek dira:

1etik (batere asebeteta) 4rako (oso asebeteta) eskala batean Aretxabaletako herritarrak “nahikoa asebeteta” daude udalerriarekin (3,14) eta eskualdearekin (3,06) bizitzeko eta lan egiteko eremu gisa, eskualdeko udalerrietako biztanleek adierazitako portzentajetik oso gora (2,96 udalerriarekiko asebetetze maila eta 2,98 eskualdearekiko).

Aretxabaletako biztanleentzat asebetetze maila txikiena sortzen duten gaien artean, lehen lekuan, etxebizitzarako sarbidea eta honen kalitatea eta prezioa ageri dira. Jarraian, gazteriarentzako zerbitzu kopuruan eta hauen kalitatean dago asebetetze maila txikiena. Sozio-ekonomia arloan asebetetze maila txikia erakusten dute turismoari eta nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari dagokionean, baita ingurumen arloan ibaien kutsaduran eta ezinduen mugikortasuna bermatzeko dagoen eskasian ere.

Aretxabaletako biztanleek udalerriko eta inguruko bizi kalitatea hobetzeko ohiturak aldatzeko prestutasunaren inguruan, azpimarragarria da Aretxabaletan prestutasuna handiagoa dela eskualdeko batez bestekoarekin alderatuz gero, uraren eta energiaren kontsumoa etxean gutxiagotzearen kontuan izan ezik; baita mendien eta ibaien garbiketa kanpainetan parte hartzeko prestutasunaren inguruan eta iraunkortasun gaiei buruzko bilkuretan parte hartzekoaren ere.

Grafikoa: Ohiturak aldatzeko prestutasuna



6.2. Ingurumen informazio eta sentsibilizazioa

Udalerriko ingurumen informazioa eta jendarteratzea

Udaletik ez dago aldikako edo etengabeko jardura zehatzik ingurumen edo iraunkortasun gaiez sentsibilizatzeko edo horiek jendarteratzeko.

Debagoieneko Mankomunitatearen ingurumen jardueren sentsibilizazioa

Ingurugiro Zerbitzuaren baitan Debagoieneko Mankomunitatean gune bat dago ingurugiroarekin kontzientziatzeko.

Honako kanpaina hauek egin zituzten 2003an:

- 2002aren amaieran, eskualdeko udalerririk guztietan tamaina handiko hondakinak zein egunetan jaso azaltzen zuten 2003ko egutegia banatu zen. Egutegian, bilketa egunez gain, zerbitzuaren erabilerarako arauk ere gehitzen ziren.
- 2003ko urtarriletik martxora atez ateko industria txikien eta saltokien kartoi bilketa zerbitzuaren gaineko kanpaina egin zen. Tekniko batek eskualdeko 836 saltoki eta 395 industria bisitatu zituen zerbitzua indartu asmoz.
- Maiatzean eta ekainean, Puntu Berde Mugikorrek jarduerak sustatzeko kanpaina egin zuten.
- Maiatza eta ekaina artean, Debagoieneko Mankomunitateak, ECOVIDRIO eta Gipuzkoako eta Arrasateko Ostalarien Elkartearekin elkarlanean, ostalaritza guneetan beiraren gaikako bilketa egiteko sentsibilizazio kanpaina egin zuten.
- Ehun bilketa zerbitzuaren sustapen kanpaina egin zen.
- 2003ko uztailean, Mankomunitateak ekoizle txikien hondakin arriskutsuen kudeaketarako hitzarmenaren inguruko kanpaina egin zuten Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin elkarlanean.

Hiritar guztiei zuzendutako kanpainez gain, Debagoieneko Mankomunitateak modu berezian landu du eskolaren eremua Udalako Ingurumen Eskolaren bitartez. Jarduerak eskualdeko Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasle guztiei begira egin dira.

Udaltalde 21 Debagoiena proiektuaren barnean, udalerriko iraunkortasunaren inguruko sensibilizazio eta komunikazio plan bat ekoiztea eta garatzea aurreikusten da.

6.3. Udal egitura

Egituraketa politikoa

Udalak alkatea du buru eta 4 alkateorde. Funtzionamenduari dagokionez, honako Batzar edo Informazio Batzordeetan antolatzen da udala:

- Ingurugiroa, Hirigintza, Etxebizitza, Obrak eta Zerbitzuak (Ingurumena, Hirigintza eta Etxebizitza, Obrak eta Zerbitzuak atalak ditu bere baitan)
- Hiritarren Segurtasuna
- Ogasuna
- Garapen ekonomikoa
- Ongizate soziala
- Kultura
- Kirolak
- Hezkuntza
- Euskara
- Auzoak

Egituraketa administratiboa

Udalaren organigramak honako gune tekniko edo Sailak zehazten ditu, Alkatetzaren menpeko gisa:

- Idazkaritza
- Bitartekotza / Ogasuna
- Udaltzaingoa
- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak
- Zerbitzu sozialak
- Kultura
- Euskara
- Kirolak

Mankomunitateetan eta Partzuergoetan parte-hartzea

Udala Debagoieneko Mankomunitatearen parte da. Mankomunitateak garatzen dituen zerbitzu eta jarduera gehienak ingurumen gaien kudeaketaren ingurukoak dira. Horien artean hauek azpimarra daitezke:

- Ingurumen Zerbitzua. Bertan barnebiltzen dira hiritar hondakinen kudeaketa; kutsaduraren prebentzioa eta ingurumenarekiko kontzientziaketa.
- Lurralde antolamenduaren inguruko Lan Taldea
- Eskualdeko hiltegiaren kudeaketa
- Ezinduen garraioa

Aretxabaletako Udala, gainera, honako Partzuergo eta Elkarteetako kide da:

- SURADESA. Debagoieneko garapen urbanistikorako elkarte
- ARINSA
- Leintz Bailarako Osasun Kontseilua
- UDA Udalerrien Mankomunitatea
- EUDEL Udalerrien Elkarte
- Gipuzkoako Uren Partzuergoa
- Debagoieneko mendi nekazaritza elkarte

6.4. Udal ingurumen kudeaketa

Udalerriko ingurumen araudia

Ez dago ingurumenari buruzko Arau zehatzik udalerrian. Modu orokorrean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ingurugiroaren Babeserako 3/98 Lege Orokorra aplikatzen da, baita ingurugiroaren babeserako zatikako gainontzeko arauak ere.

Honako Udal Arauak daude:

- Lokalizazio, instalazio eta elementuen funtzionamendurako eta telekomunikazio ekipoentzako hirigintza baldintzak (2003ko apirilaren 28an onartu zen Udaleko Osoko Bilkuran)
- Animalien jabetza eta babesa (2004an onartua)

7. IRAUNKORTASUNERAKO UDAL DIAGNOSTIKOA

7.1. Demografia eta biztanleria

6.184 biztanle zituen Aretxabaletak 2001ean, 212,5 biztanle./Km²ko dentsitatearekin, herrigunean nabarmen handitzen den kopurua. Eskualdeko bigarren herria da dentsitateari dagokionean, Arrasateren atzetik.

Pixkanaka bada ere, biztanle kopurua hazten ari da etengabe azken 15 urteetan, ia 1991n herriak zuen biztanle kopurua harrapatzeraino.

Adinari dagokionez, honako hau zen 2001ean bertako biztanleriaren adina: 0-19 urte (%18,3), 20-64 (%66,7) eta 64< urte (%15). Eboluzioak, bere aldetik etengabeko zahartzea ematen ari dela adierazten du: 1986an 20 urtez beherako populazioa %32 zen eta 64 urtez gorakoa %8,4. Antzekoa da eskualdekoa zein Gipuzkoako egoera.

Sexuaren araberako banaketa egiten badugu, nahiko oreka dagoela esan daiteke, nahiz eta gizonezkoen (%50,9) kopurua emakumezkoena (%49,1) baino handiagoa izan.

Hazkunde naturala, positiboa da 1996-2002 urte tartean. Jaiotza kopurua 53tik 63ra igarotzen da, igotzeko joera adieraziz, eta heriotza kopurua, berriz, jaitsiz doa, 48tik 38ra.

Migrazio mugimendua positiboa izan da 2001.urtean, kanpo migrazioari (21) zein barne migrazioari (41) dagokionean. Udalerriak jendea erakartzeko duen gaitasuna da biztanleria haztearen arrazoi nagusietako bat.

7.2. Ekonomia eta enplegua

2001eko sektore ekonomikoen **balio erantsiaren egitura** honako hau zen: Lehen sektorea %0,46, Industria % 69,10, eraikuntza %4,8 eta zerbitzuen sektorea %25,63. Egitura eskualdeak duenaren antzekoa da, Industriaren garrantzi gehiagorekin eta zerbitzuen pisu gutxiagorekin.

Lehen Sektorea zen XX mendeko lehen erdira arte egitura ekonomikoaren ardatz nagusia, eta gaur egunean, berriz, hiri eta industriaren garapena.

Sektore Industrialak, biztanleria okupatuaren % 60a hartzen zuen, eta balio erantsiaren %69,1 zen, nahiz eta pixkanaka bere garrantzia galduz joan zerbitzuen sektorearen mesedetan. Sektore industrialean ari diren langileen %50 baino gehiagok beste udalerrri batzuetan egiten du lan. Sektoreari dagokionean, 50 langile baino gehiagoko laminazio, fundizio eta metalaren eraldaketan aritzen den industriari zuzendutako enpresak dira gehienak. Gaur egunean 19 industria aurki ditzakegu 10 langile eta gehiagorekin eta 2.972 lanpostu sortzen dituzte guztira

Hirugarren sektoreak gero eta garrantzi handiagoa du, establezimenduen %69,1 hartuz, bere barnean “Merkataritza, ostalaritza eta garraioak” azpisektorea gailenduz.

Aipatzekoa da, baita, **kooperatiben mugimendua** ere, horrek lagundu baitu eskualdean produkzioaren dibertsifikazio prozesu bat zabaltzen: ardatz zuria, talde ondasunak, automoziorako gailuak, zehaztasunezko mekanika, tailer mekanikoak eta, orokorrean, siderurgia eta metalurgiarekin lotura dutenak.

Lanari dagokionez, 2001ean 3.227 pertsonak osatzen zuten biztanleria aktiboa zen (populazioaren %52,2). Aktibitate tasa Debagoieneko eskualdekoa baino handiagoa da (%49,9) eta baita Gipuzkoakoa baino handiagoa ere (%47,9).

1997an langabezia tasa populazio aktiboaren %5,43 zen. 2004rako %3,8ra jaitsi zen, nahiz eta denboralitate mailak oso altua izaten jarraitu.

Langabezian dagoen biztanle kopuruari dagokionean, eta sexuari erreparatuz, emakumeak eta gazteak dira gehien nozitzen dutenak. 2004an, langabezia bulegoetan izena emandakoen kopurua 39 gizon eta 79 emakume izan ziren. 25-44 urte tarteko taldean agertzen dira langabetu gehien. Sektoreei dagokienean tasa handienak industria eta zerbitzuetan ematen dira, berez duten

populazio okupatuaren kopuru handiarengatik.

7.3. Gizarte ekintza, bizikidetza eta elkartasuna

Laguntza, Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak

Aretxabaletako gizarte eta ekonomiari dagokionez, gutxi dira Gizarte Laguntza bereziak eskatzen dituzten familiak herrian.

Gizarte Zerbitzuei dagokienez, honako laguntza hauek izango lirateke 2004an udaletxeak eskainitakoen artean adierazgarrienak:

- **Oinarrizko Errenta** (9 familia unitate) eta **Gizarte Larrialditarako Laguntzak** (23 Laguntza)
- **Udal tasen bonifikazioa**: 24 familia
- **Etxebizitzako laguntza zerbitzuaren** barruan 52 etxebizitza lagundu ziren (34 dependiente eta 18 autonomo)
- Udalerrian ezarritako **Tele-Alarmak**: 4
- **Bizileku Eskaerak**: 5 (1 itxaron zerrendan)
- **Eguneko Zentroa**. Erantzundako eskaerak: 2
- Elbarrituei **Banakako Laguntzen eskaerak**: 3
- **Umeak arriskuan dituzten Familiak**, jarduerak: 2
- **Elkarte eta taldeei dirulaguntzak**: 8 elkarte eta 3 GKE
- **Komunitate prebentzioa**: Eskola Prebentzio Programak, ohiturak kentzeko zentroetara mugitzeko laguntza ekonomikoak eta emakumeentzako autoestimua lantzeko tailerrak.

Osasun Zerbitzuak eta biztanleriaren osasuna

Aretxabaletak Osasun Zentro Publiko edo Anbulatorio bat du, Medikuntza Orokorra, Ginekologia Zerbitzua eta Larrialdi Zerbitzuak eskaintzen dituena. Ospitale arreta Arrasateko Eskualdeko Ospitalean jasotzen da edo probintziakoetan.

Biztanleriaren osasunari dagokionean, hiltzeko arrazioen artean (dauden datu bakarrak) ez dago arrazoi adierazgarririk, baina zenbait ohar atera daitezke: tumore eta zirkulazio aparatuen eraginez izandako heriotzak nahiko altuak dira. Arnas aparatua eta digestio aparatuan izandako gaitzen eraginez hildakoen kopurua, aldiz, txikia da, eta lan istripuena nahiko altua.

Hezkuntza eta Kultura

Hezkuntza mailaren arabera, honako hau zen biztanleriaren banaketa 2001ean:

- Eskolaurre eta lehen hezkuntzako ikasketak: 2.179
- Bigarren hezkuntzako (1.134) eta lanbide heziketako ikasketak (1.002)
- Erdi mailako (439) eta goi mailako eta unibertsitateko ikasketak (616)
- Ikasketa Gabeak (277) eta Analfabetoak (28).

Ikasketa eskaintzari dagokionean, honako hauek dira herrian dauden ikastetxeak:

- **Pausoka**. Haur Hezkuntza (lehen zikloa, 0-3 urte). D hizkuntza eredia
- **Santa Rita**. Gizabidean integraturiko zentro pribatua. Haur Hezkuntza. D eredia.
- **Kurtzebarri**. Haur Hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako bi ardatzeko zentro publikoa. D eredia eta “Barneratze” eredia.
- **Almen**. Eskoriatzan dago: Goi mailako heziketa zikloak. D hizkuntz eredia. A eredia zenbait ziklotan.
- **Aretxabaletako Institutu Publikoa**. Goi eta erdi mailako heziketa zikloak. Baita ez araututako Heziketa ere: okupazio heziketa eta heziketa jarraitua.
- **Mondragon Unibertsitatea**. Ingeniaritza (Lanbide Eskola, Aretxabaleta), Humanitateak (HUEZI, Eskoriatza) eta Enpresa Administrazio eta Kudeaketa (ETEO, Oñati).

Hezkuntzaren hizkuntza ereduari dagokionean D ereduak da nagusi, baina goi mailetan behera egiten du. 2002-2003 ikasturtean : Haur Hezkuntza (B-42 eta D-198), Lehen Hezkuntza (B-80 eta D-80), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (B-668 eta D-75).

Euskara

Euskararen ezaguerari dagokionez, biztanleriaren %64,8 euskalduna zen 2001ean, %16,8 ia euskalduna eta %18,2 erdalduna.

1986-2001 urte tartean etengabe hazi da euskaldunen kopurua, 3.283tik 3.905era pasatuz, erdaldunen kopurua gutxituz.

7.4.- Lurraldea, antolamendua eta hirigintza

7.4.1. Ingurune Fisiko eta naturala

Aretxabaleta Gipuzkoako hego mendebaldean dago. Iparraldean Arrasate-Mondragonekin egiten du muga, mendebaldean Eskoriatzarekin, ekialdean Oñatirekin eta hegoaldean Barrundiarekin (Araba). 29, km. karratuko azalera du, herrigunea itsasoaz gorako 235m.tako altueran, eta altitude maximoa Zaraiturri mendian (1.189 m.).

Geologia, litologia eta geomorfologia

Aretxabaleta, Bizkaiko Antiklinorioaren mendebaldean dago, Yurreko unitatean Udala Sektorean. Litologiaren aldetik Behe Kretazikoko materialak aurkitzen ditugu: Wealdiar, Urgoniar eta Goiurgoniar faziesak. Material gogorrenak (kalkarenitak, kareharriak, tuparri kareharritsuak, eta batez ere koral eta rudistadun kareharriak) egituratzen dute mendebaldeko aldea, erliebe monoklinal indartsu bat eratuz eta Deba bailara eta Urkulu aldea gogor altxatuz.

Morfologikoki, erliebe horiek Elgeako mendizerrarekin lotzen dira, karst prozesu oso nabariak jasan dituen mendizerra. Adierazgarriak dira bertan dauden zenbait leize, sakonera, lapiaz, dolina...., eta horien artean Ametzetako sakonune karstikoa azpimarra dezakegu. Erliebeak 1.000 metroko altitueda gainditzen du. Iparraldera, ordea, altuera gutxiagoko eta litologi ezegonkorragoekin topo egitean (lutitak, limolitak, arbel beltzak,...) segituan galtzen du indarra erliebeak.

Badira geologia eta geomorfologia aldetik garrantzia duten zenbait puntu ere, baina horiek aurrerago azalduko ditugu.

Klima eta meteorologia

Debagoiena eskualdeko klima epel-beroa da, 4-10°C gradu (hilabete hotzenetan) eta 18-20°C (hilabete beroenetan). Prezipitazioak 1.300-1.700 mm. tartean mugitzen dira urtearen arabera.

Urteko batez besteko tenperatura, Urkuluko behatokian neurtuta 1983-1992 urte tartean, 12,3°Ckoa izan da, batez besteko altuenak abuztuan izanik eta hotzenak urtarrilean. Urteko batez besteko prezipitazioak 1.126,2 mm.koak izan ziren. Horien barnean ez da elur zein kazkabar erako prezipitaziorik sartzen. Iraila izan zen euri gehien egin zuen hilabetea eta lehorrena, berriz, abuztua.

Neguko seihilekoan haizeen norabide nagusia Iparraldea eta MIMkoa izan da egunez, eta gauez, berriz, MIM-M norabideko haizea da nagusi. Orokorrean haize indartsuagoak eman izan dira egunez (2 eta 6 m/s tartean) eta leunagoak gauez (<2m/s). Neguko seihilekoan haizeak leunagoak dira (gutxitan igotzen dira 5m/s-tik gora) eta norabideak Mendebaldekoak izan ohi dira bai egunez zein gauez.

Hidrologia

Deba ibaia Leintz Gatzagako ubideetan jaiotzen da, Ipar eta Ebro isurialdeen banalerrotik gertu. Arrasaten Aramaioko errekarerekin batzen da, bere arroko zati bat Arabako lurraldean duena. Arrasatetik behera Oñati ibaiaren emaria jasotzen du, neurri handi batean Aizkorriko mendizerrako gainazaleko uretatik sortua bera. Urkuluko urtegiak, Oñati ibaiaren arroan kokatua, Debagoiena eta Deba ertaineko eskualdeak asetzeko beharrezkoak diren ur baliabideak erregulatzen ditu.

Debako goi ibilgua oso ongi kontserbatua dago. Uren kalitate fisikoa eta kimikoa ona da, beraz izokinen familiako arraiantzako ur egokiak dira. Tenperaturak freskoak mantentzen dira, 15,8°Cko tenperatura maximoarekin. Oxigenoa batez besteko altuan aurkitzen da, 10,14 mg/l eta uda garaian zertxobait baxuagoak dira. Ez da kutsadura organikorik ez eta metalek eragindako toxikotasunik aurkitzen. Konduktibitateko batez bestekoa 598 µS/cm da, mineralizazio baxua adierazten duena.

Aretxabaletatik igarotzean kalitate egokia mantentzen du, nahiz eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako zenbait isurik zerbait kaltetzen duten.

Landaretza

Klima ozeanikoak eta euri kopuru handiek lurzoru azidoak nagusitzera dakarte lurzoru basiko eta neutroen aldean; horren eraginez landaretza azidofiloa da arruntena. Erliebea oso gorabeheratsua izateak ere eragin handia dauka.

Aztertutako esparruak bi motako landaretza aurkezten ditu, muinokoa eta mendikoa. Aurrenekoan, beheko lurri dagokienean, antzinako paisaia haritz kanduduna (*Quercus robur*) da nagusi. Toki lehorragoetan eta lainoak eskasagoak direnetan artadia (*Quercus ilex*) azaltzen da, eta baita estaia ere, mendiko zenbait eremu hartuz. Hartzadiak (*Alnus glutinosa*) ur ibilguren inguru guztiak hartzen zituzten, baita mendiak ere.

Horren gainera mendiko landaretza dago, garai batean gure mendiak ia bere osotasunean estali zituzten pagadiak daude bertan. Mendian eta muinoetan agertzen diren beste zuhaitz batzuk, ameztiak (*Quercus pyrenaica*), haritz kandugabeak (*Quercus petraea*) eta haritz hibridoetatik sortutako haritzak dira; azken biak oso gutxi.

Gaur eguneko landaretzari dagokion paisaia nahiko aldatuta azaltzen da: belardiek eta labore lurrek eta koniferazko baso landaketek hartu dute paisaia ia bere osotasunean. Belardi eta Labore lur atlantikoek haritz kandudunaren eremua hartu dute eta baso landaketek era guztietako baso eremuak; horrez gain maila ertain eta altuetan belar taldeak (larreak) zabaltzen dira eta txilar sastrakadiak, oteak eta iratzeak (baita behe altueretan ere).

Interes handieneko landaretza eremuen artean honako hauek aipa daitezke:

- Urkulu urtegiako alboetan eta beste zenbait eremutan ihitza belardiak.
- Erkamezti-hariztiz osatutako zenbait eremu, batez ere Orkatzategi eta Kurutzeberri bitarteko arroilan.
- Zenbait harizti azidofilo eta harizti/baso, gorabehera handiko lurretan.

Fauna

Aretxabaletan dagoen fauna aipatutako ekosistemetan agertu ohi dena da. Bere urritasunak eta eremu txikietan sakabanatzeak, gizakiak eremu horietan eragiten duen presioarekin batera, espezieak nabarmen gutxitzea ekarri du.

Eremu naturaletan aurki ditzakegu interesa duten espezie nagusiak: Elgeako Mendizerran, Aizkorriko Mendizerran eta Urkuluko Urtegian (Gipuzkoa barnealdeko hezegune nagusia).

Paisaia eta ekologia aldetik interesa duten guneak

Aretxabaletako udalerrak, inguru natural eta landa inguruari dagokionean, paisaiaren aldetik balio handiko guneak ditu. Hala ere, **bi zonalde** azpimarra daitezke: hegoaldeko lerro luzea, Elgeako mendizerraren parte dena, eta Urkuluko urtegia eta bere inguruak, jatorri

artifizialekoa baina balio natural handiko eremu bihurtu dena.

Bi eremu horiek ondo jasota daude babes bereziko bi udal arautegitan, egite fasean:

- Aizkorri-Aratz Parke Naturala, Natura Baliabideen Antolamendu Planaren behin betiko onarpenaren zain, 935Ha jasotzen dituena (Udal lurren %36).
- Euskal Herriko Hezeguneen Lurraldeko Sektorekako Plana

Horrez gain, **Debagoieneko LZPk, babeserako beste zenbait eremu eta puntu jasotzen ditu:**

- Urkuluko urtegiko eremu urperagarriak, arroko errekek eta ondo kontserbaturiko haltzadietako ibai ekosistemak.
- Zuhaitz bereziak: Gaztainondo eta Pinua.
- Geologi eta geomorfologi aldetik interesa duten puntu eta eremuak: Orkatzategi Aldapa, Kurtzebarri aldapa eta Degurixako Dolina.

Ekologia aldetik interesa daukaten beste gune batzuk: Andartza-Areantzako piedemonte azalerak, Leizabal mozketa eta Andartiko-Arrua iturburua.

Paisaia eta bioaniztasunaren babesean eragina duten jarduerak

Aretxabaletako udalerriko lurrek 29,1km² betetzen dituzte. **Landaketei** dagokienean baso ustiaketak eta belardi naturalak dira nagusi. Urriagoak dira hosto zabaleko basoek betetzen dituzten azalerak.

Nekazaritza eta abeltzaintza ustiatuek 1999an betetzen zuten azalera 1.62 Ha.koa zen, 161 ustiatuegitan banatuak, nekazaritza-abeltzaintzakoak eta/edo basokoak, horietako 63k (1.024Ha.) abereak zituzten eta 98k (938Ha.) ez. Abeltzaintzari dagokionean, ardiak ziren nagusi, 1.621 buru zituzten eta 673 behi buru.

Zuhaitzak zituzten baso azalerak 1.381 Ha. hartzen zituen 1996an, horietako 926 (%67,5) koniferoak ziren eta 455 (%32) hosto zabalekoak.

200-2004 urte tartean aurrera eramandako mendi pribatuaren **baso mozketak** 94,63 Ha.tako azalera izatera iritsi ziren eta 22.075m³ bolumena izan zuten. Gehiena Intsignis pinua zen, baso soilketaren bitartez 48 Ha izanik (20,740m³).

1994-2004 urte tartean erabilera publikoko mendietan egindako egur aprobetxamenduak honako hauek izan ziren: 9.986m³ 33,5 Ha.tan (itsignis pinuko baso soilketa).

1.999 eta 2003 bitartean **9 baso-sute** izan ziren, zuhaitzak zituzten 16,7Ha. erre ziren eta zuhaitzik ez zuten 46,2 Ha. Horietatik 7 arduragabekeriagatik izan ziren.

Nahiz eta iraganean kareharri arrezifaleko bi ustiatuegi izan herrian, gaur egunean ez da era horretako **jarduerarik** egiten udalerrian.

7.4.2. Lurralde antolamendu eta planeamendua

Baldintza historiko eta geografikoak

Aretxabaletako udalerrria Leintz bailaran dago, Deba ibaiak eratua, horrek baldintzatzen du udalerrri zein eskualde osoko egitura morfologikoa eta gizakiaren bizi esparrua. Honako hauek dira Aretxabaletako elementu nagusiak:

- Deba ibaiak egituratutako harana, herriaren gunea biltzen duena, herri egitura gehienak eta komunikaziorako azpiegitura gehienak bertan bilduz.
- Mendebaldeko muinoak, landa eremuko gunea txiki batzuekin (Isurieta, Apotzaga-Etxebarri eta Galartza), baso landaketak eta belardi txikiak.
- Ekialdeko muinoak eta Aizkorriren inguruak, landazabaleko paisaiarekin, labore lur eta belardiak eta Oro, Bolinaga, Arkarazo, Larriño, Aozaratza eta Goronaeta landa auzoak.
- Zeharkako haran txikiak, Galartza mendebaldean eta Bainatxe ekialdean.
- Aizkorriko Mendizerra, mendiko larreek, harkaitzek eta kareharriek jantzitako paisaia.

Jarduera nagusiak abeltzaintza eta basogintza dituen.

Aretxabaleta, Leintz Haraneko Mankomunitateko kide izan zen. Denbora aurrera joan ahala, ordea, Mankomunitatea osatzen zuten herri batzuek bakoitzak bere aldetik jo zuen, eta 1331tik 1630era Eskoriatza eta Aretxabaleta gelditu ziren bakarrik, eta handik aurrera bakoitzak bere aldetik jo zuen.

Euskal Herriko L.A.An aurreikuspenak

1997ko Lurralde Antolamendurako Artezpideetan, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara edo Debagoieneko Eskualde Egituraren barnean sartzen da, eskualdeko buru nagusia Arrasate izanik.

E.A.E.ko Eskualde Egituren artean bakarra da 1981tik biztanleriaren beheranzko joera erakusten duena. Aipagarria da, baita, Erkidegoko erdigune geografikoan duen kokapen estrategikoa ere, beste Eskualde Egitura garrantzitsuren arteko lotura puntua izanik eta hiru euskal hiriburuen arteko erdibidean egonik. Horrek, etorkizunerako aurreikusitako zenbait proiektu azaltzen ditu, batez ere garraiorako azpiegitura handiak.

Aretxabaleta zuzenean sartzen da Oinarrizko Interkonexioetan, Donostia eta Gasteiz arteko autobidearen bidez. Eskualde Egituren arteko interkonexioen barruan, Beasain-Durango ardatzetik oso gertu dago. Udalerriko Hegoaldea, Aizkorri-Aratz parke naturalaren barruan dago, Natura Intereseko Eremuen Zerrendan sartuta, paisaia, fauna, landaretza eta etnografia aldetik dituen balioengatik. Herria lehenera ekartzeari dagokionean, Herrigune historikoa azpimarratzen da eta Eskoriatzarekin batera “Antolamenduaren bateragarritasuna”, proposatzen da.

Debagoieneko L.Z.Pren Aurreikuspenak

Debagoieneko L.Z.Pk behin betiko onarpena izan du 2005eko apirilaren 12an. Honako hauek dira planteatzen diren helburuak:

- Lurralde nortasuna sortzea, leku “berri” batean gizarte berri bat eraikitzeke gai izan behar da.
- Oinarrizko interkonexioen egitura osatzea (Eibar-Gasteiz Autopista eta Beasain-Durango Autobidea), eskualdeen arteko loturak hobetzea eta garraio publikoko sistema egoki bat ezartzea.
- 70.000 biztanle inguruko indar demografiko bat lortzea, 16 urteren buruan, gizarteak erakartzeko elementuak eratuz.
- Biztanleria kopurua ase ahal izateko, etxebizitza politika, tasatutako etxebizitzaren eskaintza bermatzea.
- Betiko aktibitate ekonomikoaren garapen iraunkorra bermatzea, industria berritzea bultzatuz eta hirugarren sektorearen jarduera alternatiboak sustatuz.
- Gaur egungo hornidura ekimenak (Mondragon Unibertsitatea) osatzea, indar handia izango duten ekipamenduekin.

Aretxabaletarako **aurrez ikusitako ekimen zehatzagoak**:

- Aurrez adierazitako natura intereseko guneak
- Debako tranbiaren proposamenean barneratzea
- Herrigune historikoaren Berrikuntza Integratua eta Beroa-Aroztegia (Aretxabaleta) Hiri eraldaketa.
- Gehienez 992 etxebizitzako aurreikuspena, horietako 220 babes ofizialekoak izanik.
- Ez dago Jarduera Ekonomikoentzako lurzoru berririk aurreikusita.

Lurralde Arloko Planak eta Babeserako Plan bereziak

Behin betiko izaerarekin onartutako Lurralde Zatikako Planen dagokienez:

- Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Plana – Kantauri Isurian, 1998an onartua eta

Deba ibaia babesteko arau orokorrak.

- Energia Eolikoaren Plana, 2002an onartua eta Elgea Mendizerrako Parke Eolikoari buruzko bere aurreikuspenak.
- Hezeguneak Antolatzeke Plana, 2004an onartua eta Urkuluko urtegiko Hezeguneari buruzko aurreikuspenak.

Herriz gaindiko izaera duten inguru naturalak babesteko plan berezien barnean, etorkizunari begira kontuan izan behar da Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren proiektua. Oraindik gauzatze fasean dago horri buruzko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana.

7.4.3 Hirigintza egitura eta Planeamendua

Aretxabaletako udalerriak 2.626 Ha betetzen ditu, gehiena urbanizatzerik ez dagoen lurzorua edo landa lurzorua izanik. Hiri lurrek eta urbanizatzerik ez dagoen lurrek 84 Ha betetzen dituzte, bertan bizi da biztanleria gehiena, eta bertan dago industria, merkataritza, eta zerbitzu aktibitate handiena. Landa lurtean, jendea bizi den zenbait gune txiki dago eta baso landaketan lan egiten du, batik bat, eta neurri txikiago batean abeltzaintzan eta nekazaritzan.

Planeamendurako Arau Subsidiarioen Análisis

Aretxabaletan indarrean dagoen Hiri Planeamendua b) motako Arau Subsidiarioak dira, 2001eko maiatzaren 21ean onartuak.

Irizpideak eta Helburu orokorrak:

- Lurralde egitura. Herrigune batean oinarritutako plangintza mantentzen da, landa eremuko lurraldearekin eta errepide egitura batekin, “Debako korridorea”ren jarduera bakararekin.
- Lurzorua sailkapena. Araudira egokitu eta herriaren jarraipena bilatu.
- Urbanizatzerik ez dagoen lurzorua. Erabilera murriztailea planteatzen da, inguru honetan ohikoa dena, batez ere Natura intereseko guneen eta nekazal kalitatearen babeserako.
- Errepideak eta loturak. Ipar-Hego norabidean herriaren jarraipena bultzatuko duen bide sarea eta trafikoa herrigunean kokatzea galaraziko duena.
- Erabileren banaketa. Herriaren zentroa industria konpaktuaren erabileratik libratu eta hazkunde lineal batez jarraipen fisikoa eta egiturazkoa mantendu.
- Herri erabileraren intentsitateak. Lurzoru industrialaren eskaintza handitu eta etxebizitza eraikitzeke aukerak agortzeari erantzun.
- Eskoriatzako udalerriarekin planeamenduko zenbait gai amankomun koordinatu: Deba ibaiaren ibilbidea, Ederlan planten lotura bide sarera eta errepidera. eta ALMEN eskola gunea.

Lurzoru erregimenari dagokionean, azalera totala 2.626 Ha-koa da: Urbanizatzerik ez dagoen lurzorua 2.541,85 Ha, Hiri Lurra 61,71Ha, eta urbaniza daitekeen lurzorua 22,44Ha.

Etxebizitzetarako lurzorua 4 taldetan banatzen da:

- Alde Zaharreko Etxebizitza. Bepizteke Plan Berezi batek arautua.
- Etxebizitza Mistoa. Herri erabilera eta etxebizitza batzen dituen etxebizitza.
- Etxebizitza Irekia. Erabilera nahasterik gabeko zentroan ez dauden auzoetako eraikinak.
- Dentsitate baxuko etxebizitzak. Isolaturiko familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzak lorategiarekin.

Arau Subsidiarioek 640 etxebizitza berri egitea aurreikusten zuten, eta 23 berritzea. Berriak honako hauek lirateke: 260 lurzoru mistoan, 348 irekian eta 32 Dentsitate Baxukoak.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionean, urbaniza daitekeen lurzoruari 4 gune berri eratzea proposatzen da industriaren erabilerarako, guztira 87.000m², horietako

25.600m² okupaturiko lurzorua izango litzateke. Horrek 31,86Ha. hartuko litzuzke, 13,88Ha. okupatuz.

Berdeguneen eta eremu irekien sistema orokorra defizitariotzat jotzen da. Espazio irekiek 27.500m² hartzen dute tokiko sisteman (11,5m²/etxebizitza) eta 16.700m² Parketako Sistema Orokorrean (2,7m.22/biztanle). Herri Lurren mugan 33.000m² kalifikatzea proposatzen zen, Porrukotxarako Parke berrirako.

Errepide Sarearen aurreikuspenak, Gasteiz-Eibar autobidearen eta haren loturen jardueraz arduratzen dira, eta baita haren loturako hiru errepideetan egin beharreko zenbait mugimenduz ere.

Urbanizatzerik ez dagoen lurzoruari dagokionean, landa eta natural ingurunerako babeserako arau eta irizpideak barneratzea proposatzen da. Jarduerak 3 lurzoru mota eta maila nagusiren arabera arautzen dira: Babesturiko Lurzorua, Landa Gunea eta Landa Lurzoru Arrunta. Lehentasunezko irizpidetzat hartzen dira Aizkorri Mendigunea eta Urkulu urtegiaren ingurua babestekoak, hala nola, tradiziozko baso atlantiarrek, hosto erorkorreko landareak eta Kantauriko artadiak, emankortasun handiko lurzoruak, isurketa-ur, ibarbideak eta karst paisaiak, landa auzoak eta ondare historikoko elementuak.

7.4.4. Ondare historiko, arkitektoniko eta arkeologikoa

AA.SS.ek Interes Kulturala duten Ondasun Higieizintzat hartzen diren Multzo eta Elementuen Sailkapen bat dute barnean, eta “Ondare Kulturalaren Babeserako Arau”entzako arautegi espezifikoa.

Interes kultureko Multzo Arkitektonikoak. Alde Zaharra edo Historikoa, Goroeta, Oro eta Galartza Landa auzo edo gunek, Isurieta, Larriño eta Areatza auzoetako zati bat, eta Aozaratzako Otalora multzoa.

Interes arkitektonikoa duten Eraikin eta Ondasun Higieizintzat hartzen direnak: Otalora eta Arratabe Etxe-jauregiak, Galartza Dorretxea, Otalora dorrea eta Kristo deuna eta Terminoko Gurutzeko Santutxoak. Horiez gain, 16 eraikin eta proposaturiko elementuko zerrenda bat, eta baita tokiko interesa duten elementuak dituen zerrenda luze bat ere.

Interes Arkeologikoko Ondasuntzat hartzen dira, Murugaineko herrixka, Ugastegiko gune arkeologikoa eta Gazteluarro, Ugastegi eta Iruaxpeko kobazuloak. Baita ere, **Arkeologia aldetik ustez balio** handia duten 23 zonalde ere.

7.4.5. Mugikortasuna eta garraioa

Debagoieneko **ibilgailuen zirkulaziorako bide sistema** honela dago egituratuta:

1.- Deba bailara zeharkatzen duen ardatz nagusi bat, Eibar eta Gasteiz lotzen dituen GI-627 errepideak osatua. Ardatz honen gainean Eibar-Gasteiz autobide aurreikusten da.

2.- Zeharkako Hiru ardatz nagusi: Durango Beasain korridorea, Gi-632 bideak betetzen duena eta Autobidearen proiektua duena; GI-2630 errepidea, San Prudentzio-Elorregitik Udana mendateraino doana; eta Bergaratik Elorriora doan GI-2632 errepidea.

Aretxabaletako udalerrria ardatz nagusian kokatzen da eta Durango-Beasain eta Elorregi-Oñatiko zeharkako ardatzetatik oso gertu.

Gaur egun ez dago tren zerbitzurik Debagoienean. Debako Tranbiaren proiektua dago, Eibartik Eskoriatzara doana. Aurreneko fase batean Bergara-Aretxabaleta tartea eramango litzateke aurrera.

Debagoieneko LZPk izaera bereziko herriarteko ibilbide sare bat proposatzen du (oinezkoentzako bideak eta bidegorriak). Aretxabaletan bidegorri bat badago herrigunea Urkuluko urtegiarekin (1.789m.) lotzen duena.

“Debagoienean mugikortasuna planifikatu eta kudeatzeko ikerketa” lanean (2005 martxoan) honako emaitza nagusiak biltzen dira:

- Garraio Publikoaren eskaintza murrizta eta agortua, jasotze mailetatik beherakoa.
- Zenbait ordutan trafiko pribatuaren saturazioa.
- Automobilaren erabilera anitza eta aldaketarako inertzia handia.

Hasierako datuek gune metropolitano bateko izaera duen mugikortasun eredu bat erakusten dute, eta honako hauek dira adierazgarriak:

- Sorturiko bidaien %92a eskualde barruan sorturikoak dira.
- 70.000 motordun bidaietatik bakarrik 2.700 dira garraio publikokoak.
- Garraio publikoaren eskaintza (12 leku/ 1000 biztanleko) Gipuzkoako gutxienekoaren erdia da.
- Garraio publikoaren merkatu kuota %3a da eskualde barruko bidaiantzako eta %10 a eskualde artekoentzako.
- Irisgarritasuna Gipuzkoako txarrenetarikoa da.

Aretxabaletatik garraio pribatuz egiten diren bidaiak gehienak Arrasatera (%52) eta Eskoriatzara (%20) izaten dira. Eskualdetik kanporako bidaiak %9,5 dira.

Garraio publikoari dagokionean, honako hauek dira emaitza adierazgarriak: Eskaintza murrizta; eskaera mantentzea; eskaintza hobetzerakoan erantzun egokia ematen da eta hazkunderako potentzial garrantzitsu bat.

Mugikortasunaren ikerketak, enpresa handietan aparkalekuak egotea faktore eragingarritzat jotzen du autoaren erabilerarako.

Udalerrian, kotxeak aparkatuta egoten diren batez besteko denbora altua da, errotazio indize baxuekin. Ez dago aparkatzeko erregulazio sistematik.

Parke mugikorra altua da eta handitzeko joera dago.

7.5. Ingurumen sektoreak

7.5.1. Uraren ziklo integrala

Hornidura eta uren kalitatea

Hornikuntza sistema, Urkuluko (Aretxabaleta) Urtegiak eta Ur Edangarriaren Tratamendu Estazioak osatzen dute. 66.000 biztanleko eskualdeko populazioa ur edangarritz hornitzen du, urteko 7.360.000 m³ko kontsumo osoarekin. Urtegiak 10.000.000 m³ko ur metatzeko gaitasuna dauka.

Kontsumorako uren kalitatearen kontrola zenbait mailatan egiten da:

- Urkuluko urak “Aguas de Gipuzkoa S.A.” kontrolatzen ditu zuzenean.
- Osakidetzako Debagoiena eta Debabarrenako Osasun Publikoko Eskualdeko Zentroak aldiro analisiak egiten ditu (hilean zenbaitetan) hornikuntza sarearen puntu ezberdinetan, parametro mikrobiologikoak, fisiko-kimikoak, organoleptikoak, nahi ez diren substantziak eta kloroa aztertuz.

Bi kontrol hauen emaitzak udaletara igotzen dira. Orokorrean uren kalitatea egokitzen jotzen da behaketa hauetan.

Gipuzkoako Uren Partzuergoaren datuen arabera, Aretxabaletari hornitutako ur kopurua 676.285 m³koa izan zen, Urkuluko urtegiak hornitua.

Industriaren kontsumoei dagokienez, industriek ur kopuru handiak jasotzen dituzte ibaitik, nahiz

eta hori egiteko baimena duten 3 enpresaren datuak bakarrik egon: Laminados de Aretxabaleta, Talleres Azpe-B Zubia eta Geiliano-Erreka.

Saneamendua eta Arazketa

Saneamendu sistema Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasateko kolektoreek osatzen dute eta hondakin urak Epeleko Hondakin Uren Arazketa Estaziora (Arrasate-Bergara) eramaten dituzte.

HUAEn diseinua bi etapako lohi aktibo motakoa da, zikinkeria ezabatzeko nitrogenoa eta fosforoa erabiltzen dituena. Kutsadura karga 95.000 hab-eq.-ren parekoa da, tratamendu aurreko gaitasuna 1.300 l/seg-koa eta biologikoa 450 l/seg-koa.

Gaur egunean, EAEko ur kalitate txarrena duen ingurutzat hartzen da Deba bailara. Eskoriatza-Aretxabaletako kolektoreak zati honetako uren kalitatea hobetu badu ere, kaltetu egin du isurtzen den zatia.

Kontuan hartu beharreko beste arazo bat, landa eremuetan sortzen diren hondakin urak dira, ohiko saneamendu sarerik ez dutenak, bai baserrietakoak bai isolaturiko etxebizitzetakoak, eta baita abeltzaintzara zuzendutako ustiauketetakoak ere.

Honako hauek dira Karga Kutsakorrari dagokion Aitorpena egin duten industriak (Hondakin Uren isurtzea) : Cerrajería Valle Leinz, Tubos metálicos de precisión, Galvanizados Marchante eta Aretxabaletako Udala.

7.5.2. Atmosferaren kalitatea eta zarata

Aretxabaletan ez dago EAEn Airearen Kalitatea Kontrolatu eta Behatzeko Sarearen estaziorik. Gertuen dagoen estazioa Arrasatekoa da, Airean dauden Partikulak (PS), Sufre Dioxidoa (SO₂), Nitrogeno Dioxidoa (NO₂), Karbono Monoxidoa (CO) eta Ozonoa (O₃) uneoro neurtzen dituena. Honako hauek dira kutsadura iturri nagusienak:

- Ibilgailuen trafikoa. Azken urteotan asko hazi da ibilgailu kopurua herrian (3.598 ibilgailu 2003an), eta oso handia da mugikortasuna (Autobidearekin handituko dena) bailaran industria asko izateak sortzen duen merkantzien trafiko handia dela eta.
- “Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak” dituzten lantegiak 3 dira herrian: (Azpe B. Zubia S.A., Copreci S.Coop. eta Fagor Ederlan S. Coop.).
- Etxebizitza eta Merkataritza iturriak. Iturri horiek aldatu egiten dira erregai motaren arabera. Aretxabaletak altua da gasifikazio indizea.

Eskualdea bere osotasunean hartuta Airearen Kalitatearen egoera eta joera aztertu nahi bada, *EAEaren Ingurumen Adierazleen Sisteman* dago nahiko informazio. 2003an okerrera egin zuen airearen kalitateak Debagoieneko eskualdean. Airearen kalitatea txarra edo oso txarra izan zen 19 egunez, EAEko batez bestekotik oso gora (9,9 egun).

Airearen kalitateak dituen beste arazo batzuk aldizkako kutsadura biologikoekin (polena) eta “energia bidezko kutsadurarekin” daude lotuta, zarata, bibrazioak, uhin elektromagnetikoak eta ioi erradiazioak.

Kalitate akustikoari dagokionez, ez dago ez zarata maparik eta ezta ikerketa espezifikorik ere. Honako hauek dira zarataren iturri nagusienak: herrigunetik gertuen dauden industriak eta herrigune barneko eta saihebidetako trafikoa.

7.5.3. Energia

Energia kontsumoak

Industriaren sektorea da Aretxabaletako energia elektrikoaren kontsumitzaile nagusia. 2003an kontsumo guztiaren %72,3a izan zen, goranzko eboluzioarekin. Bizitegi sektorea kontsumo horren %14,5a zen, pixkanaka ehuneko horren hazkundera ematen ari da, eta zerbitzuek %13,2a suposatzen dute.

Etxebizitzetako elektrizitate kontsumoa 964,5 Kwh-koa zen biztanle eta urteko, hazkunderako

joera txiki bat antzematen zela.

Energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna

EEEren datuen arabera, segidan aipatzen den motako energia erabiltzen dute Aretxabaletako dauden instalazioak 2004an:

- **Eguzki Fotovoltaikoa:** 9 instalazio daude 1.555Wko potentziarekin.
- **Biomasa:** 5 industri jarduera daude horrelako energi aprobeixamendua aurrera eraman zezaketenak. Ez da euren erabilera energetikoa ezagutzen.
- **Eolikoa:** Elgea-Urkillako parke eolikoak, Aretxabaletan ezarritako 3 aerosorgailurekin eta 6.080.000 KWh/urteko produkzioarekin.
- **Etxebizitzaren eraginkortasun-energetikoa,** behin behineko ziurtagiria duten 20 etxebizitzarekin eta behin betiko 0 etxebizitzarekin.

7.5.4. Lurzorua

“Aretxabaletako Udalerrian **Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak** dituzten Kokalekuen Inbentarioa”-ren arabera (1999 Otsaila), 46 kokaleku daude 20,67 hektarea betetzen dituztela. Lurzoru hauek 63 jarduera jasan zituzten.

Harrezkero aurrera eramandako ekimenak, Laminados Aretxabaletako orubean egindako lurzoruaren kalitatearen azterketak, zoruaren arazketa lanak, eta lurrazpiko uren kalitatearen kontrol eta jarraipen ikerketari dagozkionak izan dira (2003 urtea, 14.357 m²).

7.5.5. Hondakinen kudeaketa

Hiri Hondakinak

Aretxabaletan sortutako hiri hondakin solidoen bilketa eta garraioa **Debagoieneko Mankomunitateak** egiten du, eta honako **instalazio** hauek ditu:

- AKEI (Arrasate) transferentzia planta, Sasietako Zabortegira garraioa egiteko (Beasain).
- Bilketa zerbitzuen garaje eta tailerra, Akei (Arrasate).
- Inausketa eta Lorezaintza hondakinen metatzea, Akei (Arrasate).
- EPELEko Hondakin inerteen Zabortegia (Bergara).
- Arrasate, Bergara eta Oñatiko GARBIGUNEAK.

2003an eskualde osoan 27.221 Tona bildu ziren , 1,20 kg./bizt./eguneko batez besteko bat suposatuz, aurreko urteko antzeko datuak.

Masiboki jasotako hondakinak 17.309 Tona izan ziren, 2002ari dagokionean %1,3 gehiago, 1998tik aurrera emandako jaitsieraren ondoren.

Tratamenduari dagokionean, birziklapenaren hazkundera (5.099 Tona) eta konpostaren hazkundera (689 Tona) nabarmendu behar dira, eta isurketen kopuruaren egonkortzea (20.330 Tona).

Gaikako bilketaren datuak Aretxabaletan 2003an :

- Beira: 174 Tona. (27,8 kg/bizt/urtean).
- Edukiontzietako Papera eta kartoia: 169 tona (26,9 kg/bizt/urtean).
- Ontzi arinak: 45 tona (7,2kg/bizt/urtean).

2002ko urtariletik aurrera nahiko hobetu da **tamaina handiko hondakinen** bilketa eta tratamendua, Altzaurtik plantan jasotzen direnak eta bertan txikitu eta atal ezberdinetan sailkatzen direnak, % 59,7ko balorazioa lortuz.

2003an **Puntu Berde Mugikorra** jarri zen martxan erabilitako sukaldeko olio eta etxe hondakin arriskutsuak (margoak, disolbatzaileak, garbiketa produktuak, etab...) jasotzeko. Zerbitzua abian jarri eta aurreko 7 hilabeteetan erabilitako 625 l. olio begetal jaso ziren Aretxabaletan.

Urte berean **ehun bilketa** jarri zen martxan (arropa, oinetakoak, gehigarriak, manta,...) edukiontzi

zuriaren bitartez.

Garbigune edo Hondakinentzako Ordezko biltegiari dagokionean, Arrasateko Ibarretakoa da Aretxabaletatik hurbilen dagoen biltegia.

Hondakin arriskutsuak, inerteak eta besteak

Aretxabaletan 3 enpresa daude **hondakin arriskutsuen** urteroko aitorpena aurkezten dutenak: Azbe B. Zubia S.A.; Laminados Aretxabaleta eta Copreci, S.Coop. Herrian ez dago enpresa bat bera ere, Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko baimena duela adieraziz izena emanda dagoenik.

Udalerrian dauden enpresek sortutako Hondakin Arriskutsuen kopurua urteko 330.539,20 kilokoa da eta 50 kg. Osasun hondakinak.

2001tik aurrera, Mankomunitateak Hondakin Arriskutsuak biltzeko zerbitzu bat du gutxi produzitzen duten produktorentzat (10 Tona baino gutxiago urtean). Zerbitzu horrek 360 tona jaso zituen 2003an, eta pixkanaka bada ere, goraka doa kantitatea.

Industrian edo eraikuntzan jatorria duten **Hondakin Inerteak**, eta Hondakinaren Europar Katalogoan hondakin arriskutsutzat hartzen ez direnak, Epeleko (Bergara) Zabortegean jasotzen dira. 212.088 Tona jaso ziren eskualde osoan 2003an, aurreko urtean baino % 14,5 gehiago.

Abeltzaintzaren Hondakin organikoak lur sailetan bertan erabili ohi dira ongari modura. Zenbait lekutan kutsadura sor daiteke nitrogeno gehiegi egoteagatik.

Debagoieneko Mankomunitateak **hildako animalien** bilketa ere egiten du aurrez deitzen bada. Batez beste, baserriko/250kg. produzitzen direla kalkulatu da.

7.5.6. Jardueren eragina eta ingurume-arriskua

Urria da udalak industria jardueri egiten dien jarraipena eta kontrola, dituen baliabide teknikoak urriak baitira. Badira kutsadura galarazteko zenbait programa (Debagoieneko Mankomunitateak garatuak, herriz gaindiko beste erakunde batzuekin koordinatuta).

Laburbilduz, honako hauek dira adieraz daitezkeen **eragin nagusienak**:

- Aire. Gutxi kutsatzen duen industria, eraldaketa metalikoak dira nagusi eta ia ez dago industria kimikorik. Eusko Jaurlaritzaren eskumena (Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza).
- Urak. Atzerapen nabarmena saneamendu planean eta Debagoieneko HUAUE eraiki gabe oraindik. EPER Inbentarioan sailkatutako enpresa bat dago IPPCren eraginpean (Laminados de Aretxabaleta). Eusko Jaurlaritzaren (Ur Zuzendaritza) eta Gipuzkoako Ur Partzuergoaren eskumena.
- Hondakinaren Kudeaketa. Eskualdean hondakin industrialak gutxitzeko eta hobeto kudeatzeko zenbait programa garatu dira.

Ingurumen kudeaketarako sistemak dituzten enpresak:

- **ISO 14.001:** SERBITZU ELKARTEA S.L, FAGOR EDERLAN S.COOP., AZBE B. ZUBIA S.A. eta COPRECI, S. COOP.
- **EKOESKAN:** Fagor Ederlan, S. Coop.; Negocio Transmisión (Inyección Aretxabaleta) eta I.E.S. Arrasate-Aretxabaleta BHI.

Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren ingurune eraginari dagokionean, hondakinaren sorrera eta tratamenduak dira adierazgarrienak, batez ere abeltzaintzan jatorria dutenak, eta hondakin uren tratamendu falta.

Basogintza jardueretan, koniferen gehiegizko landaketek izan dute eragin handiena: lurzoruen produkzio gaitasuna murriztea, soilketa mota (lurzoru galerak ekar dezaketenak, higadura prozesuak eta isurketa handitzea); baso bideen irekiera, paisaiaren kaltetzea,...

Arrisku natural eta industrialak eta arriskuaren kudeaketa

Arriskuei dagokienean honako baliabideak ditu Aretxabaletako Udalak:

- Udal Larrialdi Plana 2000 urteko azaroan egina eta Euskadiko Babes Zibilerako Komisioak homologatua.
- Udal Kiroldegian eta Gizarte-Kultura Zentroan (iraganeko zinema) Larrialdi Planak.

Ez dago Aretxabaletan, industria jardueretan goi mailako istripuen prebentzioaren inguruko legediak eragina daukan industriarik.

7.7. Udal egitura eta gizartea

Gizartea eta Herritarren parte-hartzea

Aretxabaletan elkarte eta erakunde sare zabala aurki daiteke. Batzuek zuzenean ingurumena eta iraunkortasunarekin loturiko aktibitatea daukate. Ez dute etengabeko edo aldiroko jarduera bat aurrera eramaten.

Udalak garatutako udal jardueretan ez dago tresna egonkorrik herritarren parte-hartzea aurrera eramateko.

Udal Ingurumenari buruz Herritarrek duten pertzepzioa

Udaltalde 21 Debagoiena lan taldearen barruan, eskualde mailako soziologia ikerketa bat eraman da aurrera eskualde zein udalerrri mailan Iraunkortasunaren inguruan zein iritzi dagoen jakiteko.

Eta honako hauek dira Aretxabaletako biztanleek dituzten pertzepzio eta jarrera nagusiak:

-Biztanleriak, bere udalerriarekin eta eskualdearekin “nahiko pozik” sentitzen dela adierazten du (3,14 eta 3,08 hurrenez hurren 1-4 eskala batean) bizitzeko eta lan egiteko tokia bezala kontuan hartuta, Debagoieneko beste udalerrietan baino altuagoak (2,96 eta 2,98 hurrenez hurren).

Poztasun gutxien sortzen duten gaiak kontuan hartuta, lehenengo postuan azaltzen dena, eta beraz, ardura gehien sortzen duena, etxebizitza izateko aukera, kalitatea eta prezioa dira. Ondoren, gazteentzako zerbitzu urritasuna eta kalitatea azaltzen dira. Atal Sozioekonomikoari dagokionean, turismoa eta nekazar sektorearen egoera azaltzen dira ardura sortzen duten gaien artean. Eta ingurumenaren alorrean ibaien kutsadura.

Udalerrriaren ingurua eta bizi kalitatea hobetzeko **biztanleriak dituen ohiturak aldatzeko jarrerari** dagokionean, handiagoa da Aretxabaletako herritarrek dutena eskualdeko gainontzeko herrietakoek dutena baino, etxebizitzan energia eta ur kontsumoa murrizteko jarreran izan ezik.

Ingurumenari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa

Ez dago udalak garatutako ohiko jarduerarik tokiko ingurumen eta iraunkortasun gaietan sentsibilizazioa edo hezkuntza jorratzeko.

Debagoieneko Mankomunitatean bada ingurumenarekin kontzientziatzeko sail bat Ingurumen Zerbitzuaren barruan. *Udaltalde 21 Debagoiena* proiektuaren barruan, aurreikusita dago udal iraunkortasunaren gainean herritarren komunikaziorako eta sentsibilizaziorako plan bat egitea eta garatzea.

Udal egitura

Egitura politikoari dagokionean, honako Batzar edo Informazio batzordeetan antolatzen da:

Ingurumena, Hirigintza, Etxebizitza, Obra eta Zerbitzuak (Ingurumena, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzuetan azpi zatitua) / Herri Segurtasuna / Ogasuna / Garapen Ekonomikoa / Ongizatea / Kultura / Kirolak / Euskara eta Auzoak.

Udal Organigrama hurrengo sail teknikoak edo departamentuak barne hartzen ditu: Idazkaritza / Kontu-hartzea eta Ogasuna / Udaltzaingoa / Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak / Gizarte Zerbitzuak

/ Kultura / Euskara eta Kirolak.

Udala **Debagoieneko Mankomunitatearen** partaide da. Eta bertan garatzen diren zerbitzu eta ekimeneenetako batzuk ingurumeneko zenbait gairekin lotuta daude: Ingurumen Zerbitzua (hiri hondakinen Kudeaketa; Kutsaduraren Prebentzioa eta Ingurumenarekiko Kontzientziazioa sailak hartzen ditu bere baitan); lurralde antolamenduaren inguruko lan taldea; Elbarrien Garraioa eta eskualdeko Hiltegiaren Kudeaketa.

Aretxabaletako Udalak, gainera, honako **Partzuergo eta Elkarteetan** hartzen du parte: SURADESA, ARINSA, Leintz Bailarako Osason Kontzeilua, EUDEL Udalerrien Elkarte; UDA Udalerrien Mankomunitatea, Gipuzkoako Ur Partzuergoa eta Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarte.

Ez dago ingurumenera bereziki zuzenduriko Udal Ordenantzarik. Badira **Telekomunikazioko ekipo eta osagaiak jartzeko hirigintza baldintzak, instalazioak eta funtzionamenduari dagokion udal ordenantza (2003) eta Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza (2004).**